


ITZULPEN ETA TERMINOLOGIAZKO ALDIZKARIA

senez

DUVOISIN ETA ATZIZKIBIDEA
JOXE AUSTIN ARRIETAREKIN SOLASEAN



1

zenbakia

7 urtea

1991

Senez

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

11

VII urtea 1 zenbakia

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, derrigor, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin

Azala: LAURA ESTEVE

ISBN: 84-7086-287-1

Legezko gordailua: S.S. 454/92

Inprimaketa: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 - Zarautz

Senez

Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

Erredakzio Batzordea:

Zuzendaria:

Koldo Biguri

Hizkuntz arduraduna:

Koldo Biguri

Batzordekideak:

Jose I. Berasategi

Bego Montorio

Xabier Mendiguren

Andoni Sarriegi

Beatriz Zabalondo

Gazteleraazko laburpenak:

Koldo Biguri

Ingeleseazko itzulpenak:

Brian Webster

Maketa eta konposizioa:

Jesus M. Zabaleta

Helbidea:

EIZIE

Etxague jenerala, 6

DONOSTIA

Telefonoa: 42 91 66

E.I.Z.I.E

Aurkibidea

Ale honetan	7
Gaiak	
Duvoisin eta atzizkibidea. <i>Karlos del Olmo</i>	11
Alemaniarren itzulpen tradizioa.	
<i>Xabier Mendiguren</i>	31
Joxe Austin Arrietarekin solasean.	
<i>Lurdes Auzmendi</i>	51
Txekieratik euskaratzeak sortzen dituen hainbat	
buruhauste. <i>Carlos Cid Abasolo</i>	61
Euskal administrazio izkribu zahar batzuk.	
<i>Gotzon Egia Goienetxea</i>	79
Puntuz puntu	
FITek munduko kultura ministroei deia	107
Iuvan Xestaloven gutuna. <i>Eva Thót</i>	111
Oker ez banago. <i>Gotzon Egia Goienetxea</i>	115
"Caleco biarguiñac..." edo eguneroko kontuak	
euskaraz eman ezina gezurtatzen duen testua.	
<i>Begoña Azpiri</i>	117
Iruzkinak	
Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea	123
Bibliografia	135
Berri eta albiste	
Lino Akesolo.	145
Jose Inazio Berasategi	146
Jose Inazio Berasategi. Oroitzaz eta Doluz	147
Premio Nacional de Traducción 1991	149
Expolingua'91	151
Itzulpena eta interpretaritza: Komunikaziorako eta	
normalizaziorako tresna	153
Klaudio Otaegi	157

Ale honetan

Zenbaki hau aurkeztean, lehen-lehenik esan behar da doluz plazaratzen dela, Lino Akesolo eta Jose Inazio Berasategiren heriotzengatik. Lehena EIZIE elkartearen ohorezko bazkidea zen, joan den urtetik, eta bigarrena elkartearen beraren sortzaile eta SENEZ aldizkari honetako erredakzio batzordekide eta baita suspertzaile ere. Bataren eta bestearen omenez eta oroimenez, zenbaki honetako lehen lerroak haiei buruzkoak izango dira, eta zenbakia bera haiei eskainia izatea nahi dugu, eskaintza xumea bada ere.

Ondoren, oraingo honetan irakurlearen esku utzi ditugun gaietara igaroz, Joxe Austin Arrieta idazle eta itzultzaile ezagunak 1991ko Euskadi Itzulpen Saria jaso duela eta, hari eginiko elkarriketa bat dator, zeinetan bere itzulpen lanaz gainera, gure arteko itzulpen-gintzaz ere halako gogoeta batzuk ezagutzeko aukera izango dugun.

Gero itzulpenari buruzko hausnarketak jarraituko du Xabier Mendigurenek Alemaniako itzulpen tradizioaz eginiko artikuluekin; izan ere, euskal itzultzaileontzat ere guztiz baliagarria izango da alemaniarrek zientzia honetan jorratutako bidea ezagutzea, eta

konparazioak eginez eta haien eskarmentua ezagutuz gure ikaskizunak ateratzea.

Funtsezko asmo berarekin sortuak dira ondorengo bi artikuluko nagusiak ere, lehena Duvoisin kapitain euskaltzale eta itzultzaile handiari eskainia, 1991an bere heriotzaren mendeurrena egokitu delako; eta bigarrena, maila pragmatikoago batera jaitsiz, txekieratik euskarara itzultzeko lanaren inguruko zailtasun batzuei buruzko iruzkinak eskaintzen dizkiguna. Aldizkari honen asmo eta helburuetako bat, hain zuzen ere, itzultzaileok geure lanetik ikusi eta ikasitakoaz gogoeta egin eta gainerantzeko lankideei eskaintzea izanik, uste dugu interesgarriak direla era honetako esperientziak erakusten dizkiguten lanak ezagutzera ematea, azken finean itzulpen praktika bera da, nola ez, bide erakuslerik onena.

«Puntuz puntu» sailaren barruan, aldiz, lehen-lehenik bi manifestu agertuko zaizkigu, lehena mansi herri txikiko idazle batek mundu osoari egina, hizkuntza «txiki» edo —modan dagoen bezala— «hedapen mugatuko»-en egoeraren islagarri; eta bigarrena, itzulpenaren inguruan Itzultzaileen Nazioarteko Federazioak mundu osoko kultura ministroei egina, itzulpenaren aldeko deialdi gisa.

Haiekin batera, euskarazko testu zahar batzuk ere azalduko zaizkigu, biak itzulpengintzarekin oso lotuak, edota itzultzaileoi zer ikasi franko ingura diezaguketenak; eta, baita ere, penitentzia moduan, etorkizunerako eginiko okerrak zuzentzeko burubidearen erakusgarri, eta itzultzaileen bidelagun —ez oso atsegin— izaten diren akats edo intrxisu gaiztoen ispilu, SENEZ aldizkari honen zenbaki batzuetan lerraturako akats handi eta txiki batzuei buruzko aitorpena, argi asko geure burua zuzentzeko ahaleginak erne egon behar duela azaltzen diguna.

Aldizkaria ixten da ohizko atalekin, hau da, itzulpenaren inguruko berri eta albiste batzuk, eta zenbait aldizkariren berri emanaz eta bibliografi iruzkin batzuk eskainiz.

GAIK

Duvoisin eta atzizkibidea

Karlos del Olmo

*Itzulpen bat, gehien-gehienez,
jatorrizkoaren oihartzuna baizik
ezin da izan. George H. Borrow*

0.- Sarrera

«Nere ustez maila egoki bat mantendu behar du, bere terminologi zehatza erabili behar du, hori bai, egokitasuna, erabilgarritasuna eta guzti hori kontutan hartuta. Bestalde, erdarak ez du inongo begiramenik eta hemen primeran funtzionatzen du» A. Sarriegi in **Administrazio hizkera eta terminologiaz jardunaldiak**, HAEE, Oñati, 1989, 38. or. (Besterik esan ezean, egingo diren aipamenak liburu horretatik atera ditugu).

«Erizpideak zehaztu behar ditugu eta ez proposamen orokorra-goak. Eta erizpideetako bat hau da: Iparraldearekiko loturak zaindu behar genituzke; hori kontuan hartzeak ez dakar zailtasun berezirik». I. Sarasola, idem, 38. or.

«Guztiz premiazkoa da lehengoek zer egin duten jakitea, baina, noski, zer egin duten jakiteko eta ez besterik gabe imitatzeke, (...) beti ez bait zuten ongi asmatzen, oraingook ere beti ongi asmatzen ez dugun arrazoi beragatik». X. Kintana, idem, 37. or.

«Administrazio hizkuntzarako hutsune nabaria hiztegi berezietan dugu (...). Ikerne Oiartzabal, idem, 34. or.

«Administrazio-hizkuntza ez da hiztun adituen artean solik erabiltzeko, aditua ez den eta izan beharrik ez duen herritarrek ere parte hartzen bait du, gehienetan hartzaile bezala, modu pasiboan beraz». J. Agirre Garai, idem, 26. or.

«Itzulpengintzan gauza ez bait da hitza nahiz esaldia euskaraz «nola esaten/esango/esan behar» den jakitea, adierazi behar dena itzulpena irakurriko edo jasoko duenari ahalik eta erarik ulergarrienez aditzera ematen saiatzea baizik». J.L. Etxeberria, idem, 30. or.

«Euskal Autonomi Elkarte euskaldun guztietatik euskaraz ongi mintzatzen eta idazten dakitenak (nola edo hala «euskaldun landu»-tzat jo daitezkeenak alegiak) %52,34 bat dira. (...) Beraz, oro har bi euskaldunetatik bakarra da administrazioetik jatorriz nahiz itzulpenbidez sortutako euskarazko mezua (horren barnean terminologia, noski) era egokian jaso eta mamitu dezakeena». G. Egia, idem, 58. or.

«Bertzalde ere, eta hemen aipatua izan den bezala, euskarak ez omen du tradizio juridiko-administratiborik; ez dago euskara «standard»-ik (...). P. Diez de Ulzurrun, idem, 67. or. «Bainan esandako terminologi arazoak ez dira konponduko Ipar Euskal Herria baztertuz». M. Itçaina, idem, 69. or.

«Hitz elkarketa eta eratorikuntza aipatu baino ez dira egin eta uste dut horrek ere kapitulu bat eta eztabaida momentu bat mereziko lukeela euskarazko politika eta administrazio hizkera eztabaidatzeko». J.L. Lizundia, 74. or.

«Hitz elkarketa eta eratorikuntzari dagokionez, nik aipatzen dudana zera da: terminoak, diskurtsoa bera, estandarizatu daitezkeen era berean, zenbait hizkuntz mekanismo ere, terminologian termino berriak sortzeko zenbait mekanismo adibidez, estandarizatu daitezke. Euskaraz ez dut uste horretan saio gehiegirik egin denik, esate baterako hitz-elkarketa edo eratorikuntzan». G. Egia, idem, 76. or.

«Hiru dira gure hizkuntzak hitzak eratzeko dituen oinarritzko baliabideak: hitz arrotzak mailegatzea, hitz-elkartea eta eratorpena». A. Sagarna, idem, 85. or.

«Hizkuntza bateko eta besteko unitate terminologikoen baliokidetasuna ez da semantikoa bakarrik (...), baliokidetasuna gramatikazko kategorietan ere gertatzen da». J. Zabaleta, idem, 106 or.

«Terminoak eta hitz normalak eratzeko baliabide berak erabiltzen ditugula esan du Andonik, eta nik ez dakit noraino den egia hori (...). Adibidez, «medikuntza»; zer da «medi» hori «-kuntza» gehitzen bazaio? Nola eratua dago hori? Edo «monastegi»; zer da «monas», «-tegi» gehitzen zaionean?; eta horiek «gaizki» eginda daude» I. Sarasola, idem, 109. or.

«Arazoa ez dago hor; alde batera utzita erro jasoak edo nazioartekoak e.a., dauzkagun atzizkiak zein kategoria gramatikalei lotzen zaien, (...) hizkuntz arruntean edo hizkuntza teknikoan berdin berdin da (...)». A. Sagarna, idem, 110. or.

«Zuzenbidea eta Administrazioa mendebaldean —Europa guztian zehar— tradizio batean oinarritua dago, erromatarren zuzenbidean hain zuzen. (...) eta tradizio horri lotuak gaude, euskal kultura eta hizkuntza (erromatarren aurreko hizkuntza izan arren) azken finean greko-latindar kulturaren oinarritua dagoen bezala. Beraz, tradizio gabeziaren arazoa ez dakit norainokoa den; tradizioa badago (...)». J. Arrieta, idem, 110-11. or.

«Euskaltzaindiaren aburuz, bestalde, hitz berriak asmatzean, beroiek, beti ere, hizkuntzaren egiazko eta ohizko legeen arauera sortu beharra dago». X. Kintana, idem, 125. or.

«[atzizkiez ari delarik] Aurretiko erabilera okerrak ondotik ekar diezagukeen ondorio txar luzeak, hortaz, ez genituzke ahaztu behar». X. Kintana, idem, 127. or.

«Eremu honetan euskarak ez du inolako maniobrabilitaterik ezta ahalmen sortzailerik ere. Hau da, gaztelaniak ezartzen dizkion kategorietara makurtu behar da». I. Lamarka, idem 131. or.

«Niretzat funtsezko arazo bat zera da: ez dagoela ohizko hiztun arruntik euskaraz (...). Bestalde, ez dago hitz bat txarto edo gaizki eratuta dagoela erabakitzeke erizpiderik (...). Beraz, guk kontu ho-

rretan egin duguna zera da (...), iparraldeko atzizki bat [«-gailu» atzizkiaz ari da] hartu, zentzua aldatu eta martxan jarri(...)». I. Sarasola, idem, 141-142. or.

«Nik uste dut erizpiderik badela hitz bat formaz ongi ala gaizki dagoen esateko (...) «etortasuna» esaten badut, hitz horren desegokitasuna begien bistan dago». X. Kintana, idem, 142. or.

«(...) administrazio-alorreko terminologi kontuok astintzerakoan beronen ikusmolde soziolinguistikoa izan behar dugu denok, hitz-zal ederreko maila hutsalean gelditu nahi ez badugu, abiaburu nagusi eta erizpide gidari». M. Zalbide, idem, 209. or.

«Terminologia-ikerketa ez da itzultzailearen lana, edo ez da izan behar». Araceli Diaz de Lezana, idem, 160. or.

«(...) baina ezin daiteke konparatu «osakidetza»-rekin edo «emakidetza»-rekin; «osasunketa»-z ere hori ezan nahi nuen: nola arrazio (!) oraindik sail baten deituratarako «Osasunketa» hitza erabiltzen den!». I. Sarasola, idem, 178. or.

«Esan gabe doa, baina, euskal administrazio-hizkerarik ez dagoela oraindik, ez eta euskal administrazio-hiztegiarik ere. Euskal administrazioetan, saiotox batzuk gora-behera, anarkia da nagusi hitz-kontuan, anarkia eta bitxikeria». E. Oregi, idem, 186. or.

«Erabilgarritasun horrek (ulergarritasuna / esangarritasuna / irakurgarritasuna / idazgarritasuna, kasuan kasu), autonomia behar luke izan, ez luke gaztelaniarekin derrigorrezko loturarik izan behar». E. Oregi, idem, 190. or.

«Nere aburuz, hiztegi kontu honetan, itzulpenean bezalaxe, teknika guztietarik erabili beharra dago (...), barne baliabideez gain (eratorbidea, hitz-elkarketa, berrezarpena)». E. Oregi, idem, 191. or.

«Bestalde, Euskaltzaindiari eskabide bat egin beharko litzaioke. Euskaltzaindiak badu lexikologi-erizpideen finkapenerako batzorde bat eta eratorpenaren standardizatzea aipatu da hemen eta, hitz-elkarketaz egin duen bezala, eratorkuntzarako lagungarri izan dai-

tekeen zerbait egin beharko luke Euskaltzaindiak; eta beharbada ez Euskaltzaindiari bakarrik, baizik eta baita Unibertsitateari ere». J. L. Lizundia, idem, 222. or.

* * *

Zergatik «Duvoisin eta atzizkibidea» izenburua? Irakasle eta lagun dudan X. Monasteriok egindako ohar batek bultzatu ninduen atzizkibidearen gaia jorratzera. Noizbait, eztabaida bizia piztu zen I. Sarasolak erabilitako «Hiztegi arauemailea» izenburua zela eta. Hiztegi batek araurik eman ote zezakeen? Ba ote zuen tradizioarik? e.a. Ahor zergati bat. Bestalde, euskal itzulpen juridiko-administratiboak (euskal itzulpenak, orohar) gainditu beharreko zenbait oztopo dauka.

Goiko aipu horietako batzuk arazoaren nondik-norakoa ikusten lagun diezagukete. Azken finean, euskarak hizkera (ala hizkuntza?) juridiko-administratiboa eginkizun dauka, asko aurreratu bada ere.

Baina, nola lortuko da mezu juridiko-administratiboak igortzen dituzten eta jasotzen dituztenen arteko zubia amildegi ez bihurtzea? Agian, euskal irakurleen erreferentzi-gunea izan den liburuan (ez horretan bakarrik, noski) oinarrituz, Biblian, alegia. Zergatik Biblian? Esan bezala, euskal irakurle askoren irakurgai ia bakarra izan delako. Baina ez hori bakarrik. Biblia itzultzeak abstrakzio mailaraino heltzeko eskatzen diolako xede-hizkuntzari, itzultzaileari. Eta hori gutxi balitz, Biblia gizaldi eta gizarte askoren araudi oinarritzkoa izan delako, bakarra izan ez denean. «Bergia begi truk» eta horrelako esamoldeak gogoratu besterik ez dago. Hau da, estilo «juridiko-administratibo» xume bat badugu. Ondare apala, egia esan, baina euskal idazle eta itzultzaile askok landurikoa. Bestalde, hizkuntza moderno baten ezaugarrietariko bat «itzulgarritasuna» bada (X. Mendiguren), badugu zer konparatu auzoko hizkuntzekin.

Agian abstrakzioraino heltzeak zer eskatzen duen ez da nahikoa azpimarratu, itzulpengintzan dabiltnan guztiek ondo baino hobeto ezagutzen duten «etsaia» bada ere. Egia da itzulpenaren problematika

ez dela hiztegira mugatzen. Baina alor juridiko-administratiboan beste inon baino larriagoa da arazoa. Atzizkibidea, jakina, ezinbestekoa dugu. Baina (beti bainaren bat), ulergarritasuna eta jarraitasunarekin (A. Urrutia) —atzizkiak nonnahi— egiten dugu topo. Hau bai oreka gorde beharra!

Bazen beste zergati bat: gaur egungo erabilera eta klasikoena aurrez-aurre jartzea.

Horra hor atzizkibideari heltzeko arrazoi batzu. Duvoisin bidean lagunduko digun lankideetariko bata baino ez da izango. Lankide bikaina, bestalde, oso fin ibili zelako hitz aukeraketan.

1.- Metodologia

Segituan agertzen den corpora lagin txiki bat besterik ez duzue. Ez du osoa izan nahi, atzizkidunen baten falta nabarituko bait duzue. Gainera, Mathiuren ebanjelioa arakatu dugu, besterik ez. Atzizkidun hitzak testuinguruan eskaintzen dira batzutan, esaldien joskeran duten eginkizuna ikus dadin. Irakurleak, horrela, «... arauemalia» edo antzekorik erabiltzen ote zuen ikusiko du.

Esan bezala, lagin xumea baino ez da, lan osoago baten ataria. Ez ditugu itzulpen guztiak emango, bitxiak edo esanguratsuak diren banaka batzu baino ez. Sakondu nahi duenak, Vulgata eta bestelako bertsioak ikus ditzala. Edonola ere, atzizkien kontuetan Duvoisin maisua zela begiratu azkar batean egiazta daiteke.

Aipuen ondoan kapitulua eta pasartea aipatzen da, hankasartzeak gora-behera.

2.-Corpusa

Gorago esan bezala, azken muturretaraino heltzen ez den azterketa bat baino ez dugu egin, egileak erakusten duen aberastasuna nolakoa den antzemateko. Astirik ezagatik atzizkidunen batazbestekoa eta maiztasuna ezin izan dira aztertu, hurrengo baterako eginkizun

delarik. Egunerokoak (edo) diren atzizkien ondoan, abstrakziorako oina ematen dutenak ere agertzen dira, batzu eta besteen maiztasunak alderatu ez baditugu ere. Bestalde, euskal atzizki jatortzat jotzen ez den baten bat isuriko zen (*gaitzerua*, *manamendua*, kasu). Txarto eginak barkatu, arren! Jorratu beharreko beste alor bat maileguena litzateke: norainoko argitasuna duen testua? mailegu asko erabiltzen ditu? Zein nagusitzen da, eratorpena, mailegutza, elkarketa...?

1. (...) ethorkiaren liburua [I.1.]
2. (...) desherripen irian. [I.11.]
3. Gizaldi guziak (...) dire ... [I.17.]
4. (...), elkharganatu ziren ... [I.18.]
5. ... holako gogoetak ... [I.20.]
6. (...) iguzkialdetik Jerusalemara, [II.1.]
7. (...), emaitzetan eskaini ziozkaten ... [II.1.]
8. (...) marraska eta orrobia hainitz [II.18.]
9. (...), eta gozakaririk ez du nahi izan ... [II.18.]
10. (...), Galileako aurkhintzetara bildu zen. [II.22.]
11. (...) hiri batean egin zuen bere egoitza,... [II.23]
12. (...): Egizkitzue urrikizko eginkariak ... [III.2.]
13. (...), chuchen zatzue haren bidechkak. [III.3.]
14. (...), Joanesez zuen soinekoa kamelu ilez, ... [III.4.]
15. (...) haren janharria zen chartalaz eta oihanetako eztiz. [III.4.]
16. (...) Farisauetarik eta Saduzearretarik ... [III.7.]
17. (...) sabelean haurdun. [I.17.]
18. (...), ni baino ahaldunago da, (...) [III.11.]
19. (...), eta ni ez naiz haren oinetakoen erabiltzeko ere; [III.11.]
20. (...): Zure Jainko Jauna ez duzu frogapenez behartuko. (IV. 7.)
21. Ilhumbeetan zatzan populuak (...) [IV. 16.]
22. (...), Jesusek ikhusi zituen bi haurride, ... [IV.18.]
23. (...), hango sinagogetan irakhatsiz,... [IV. 23.]
24. (...), eta populuak gaitz eta eritasun guziak sendatuz [IV.23.]
25. (...), debrudunak, ..., eta alderdikatuak, eta sendatu zituen. [IV.24.]
26. Dohatsu izpirituz direnak behar,...[V.3.]
27. Dohatsu zuzembidearen gosez eta egarritz ... [V.6.]
28. Dohatsu urrikalkor direnak, (...) ardietsiren baitute urrikalmendu. [V.7.]
29. Dohatsu baketiarrak... [V.9.]
30. Dohatsu jazarpenak zuzenaren gatik egartzen dituztenak.. [V.10.]
31. (...), ahapaldika hariko zarozkitzutenean, eta jazarrika ... [V.11.]

32. (...) eta gizonez oinkatua izateko. [V.13.]
33. (...) ere ez da bizten eta gaitzeruaren azpian ematen, baina bai ganderailuaren gainean, ... [V.15.]
34. (...); ez naiz ethorri ezeztatza, (...) [V.17.]
35. Nork-ere beraz manamendu horietarik (...) irakhaspena gizonei baitiote emanen,... [V.19.]
36. (...), baldinetaria zuen zuzentasunak (...) gaintitzen ez badu.[V.20.]
37. (...); eta hiltzailea juyamenduaren jasankizun izanen dela. [V.21.]
38. (...), haina biltzarraren meneko izanen dela; [V.22.]
39. Baldin beraz eskaintza bat aldarera ekhartzen baduzu, ... [V.23.]
40. (...), eta juyek bere zerbitzariari, ... [V.25.]
41. baldinetaria zure begi eskuinekoa zure behaztopagarri bada, ... [V.29]
42. (...), hura baita haren oimpetako alkhia; ... [V.35.]
43. Bainan hau izan bedi zure hizkuntza: (...) [V.37.]
44. Onhetsazu (...) eta gaitzets (...) [V.43.]
45. (...) Onirizkotan iduk zatzue zuen etsayak (...) gaitzirizkotan (...) [V.44.]
46. (...), itchura edertzaleek finagogetan... [VI.2.]
47. (...), guk ere gure zorduruei barkhatzen daroeztegun bezala. [VI.12.]
48. (...), ez jar, itchuratiak bezala, beghitartez ilhun; ... [VI.16.]
49. Ontasun moltzatzen ez eraunts lurrean,... [VI.19.]
50. Ezen non-ere baita zure ontasuntzea, ... [VI.21.]
51. Ikhusatzue zeruko hegastinak, (...) [VI.26.]
52. (...) bere irazkiari befo bat iratchik diozokeenik? [VI.27.]
53. (...), zeren zarete grinati? [VI.28.]
54. (...) eta haren alderako zintasuna? [VI.33.]
55. (...); eta joileari idekiren zayo. [VI.8.]
56. (...), eta nasaya bidea, galpenerat daramana, [VII.13.]
57. (...); barnean otso harrapariak dire ordean. [VII.15.]
58. (...), eta zure izenean asko sendagaila egin? [VII.22.]
59. (...), urrun zaitezte ni ganik, tzarkeria orhatzaileak. [VII.23.]
60. (...), eta gaitza izan da haren leherpena. [VII.27.]
61. (...) haren irakhasmenaren gainean. [VII.28.]
62. (...), eta eskaintazu Moisesek manatu eskaintza, lekhukotasunetan dakioten izan [VIII.4.]
63. (...), bat hurbildu zitzayoen othoizka [VIII.5.]
64. (...), eta oinhazeak ematen dio gogorki. [VIII.6.]
65. Eta untzichkan sarthu zenean, ... [VIII.23.]
66. (...): Zertako zarete bildurti, sinheste apurrekoak? (...), eta jabaldura handi bat egin zen. [VIII. 26.]

67. (...), bazen urdalde handi bat alhan. [VIII.30.]
68. (...) urdalde guzia tarrapataka (...) goan zela (...) [VIII.32.]
69. (...), osteak beldurtasunean sarthu ziren ... [IX.8.]
70. (...) zerga bildegian jarria gizon bat ... [IX.9.]
71. (...), gertatu zen asko zergari eta ... [IX.10.]
72. (...): Sendoek ez dute sendakin beharrik,... [IX.12.]
73. Bada, aldagarri zaharrari nihork ez ahal dio... [IX.16.]
74. (...): Jauna, ene alaba oraichetan hil da;... [IX.18.]
75. (...) aitzindariaren etchera eta ikhusi zituenen chirolariak... [IX.23.]
76. (...) Eta Jesusek larderiarekin erran zatoten: [IX.30.]
77. (...); eta orok ederresten zuten, (...) [IX.33.]
- 78., aldiz langileak guti. [IX.37.]
79. (...) eta Mathiu zerga biltzailea, [X.3.]
80. Simon Kanaandarra [X.4.]
81. Ez izan gerrikoetan ez urhe, [X.9.]
- 82., galda zazue nor den han merezdunik, [X.11.]
83. (...) jasan-errechagoa izanen dela (...) [X.15.]
84. Eta edozeinek chumetto haukietarik bati ... [X.42.]
85. Bada, Joanesez presondegian aditurik Kristoren egintzak (...) [XI.2.]
86. Eta dohatsu ene ariaz gaizbiderik hartzen ez duena [XI.6.]
87. (...) guriki jauntzia den gizon baten? [XI.8.]
88. (...), emaztekiaren umeen artean ez da jaiki (...) [XI.11]
89. (...) ezagutarazi dute ethorkizuna; [XI.13.]
- 90.: Horra jale bat eta arno edale bat, zergari eta gizatzarren adiskidea, [XI.19.]
91. (...) abiatu zitzayoten erantzukika, [XI.20.]
92. Zorigaitz hiri, korozain, (...) aspaldi huntan zurdatzekin eta hauspean egin baitzituzketen urrikizko eginkariak. [XI.21.]
93. (...) lurrari eztikiago eginen zayo. [XI.24.]
94. (...) eta aphaltura bihotzez, [XI.29.]
95. (...): Urrikalpena nahi dut (...) etzinduzkete nihoiz hobengaberik kondenatu. [XII.7.]
96. Eta han bazen gizon esku-ihardun bat; eta Jesusen kontra zerbait lo-pide nahiz, [XII.10.]
97. Hargatik da larumbat egunez ongiaren egitea zilhegi. [XII.12.]
98. Huna ene zerbitzari; (...) erantzunen diote zuzembidea. [XII.18.]
99. (...) zuzenari garhaizia eman diozon arteo. [XII.20.]
100. Eta jendayek haren izenean izanen dute beren igurikimena. [XII.21.]
- 101., barkhakizun da; (...) ez ethorkizunekoa markhaturen. [XII.32.]

102. (...) ezen bihotzeko gairididuratik ahoa da mintzo. [XII.34.]
103. Gizon prestuek gauza onak dakhazka bildegi onetik, eta gaichtaginak (...) [XII.35.]
104. , eta zure ahotik hobendun. [XII.37.]
105. (...): Gaichtakeriako eta lohikeriako umeak (...) [XII.39.]
106. , ephaitza agorak behera phausuketa dabila, [XII.43.]
107. Adizue; eraitera ilkhi zen erailea. [XIII.3.]
108. (...) hitzaren ariaz ethorri dire bai hestura jazargoak, [XIII. 21.]
109. (...) eta aberastasunen liluramenduek itho dute hitza, [XIII.22.]
110. (...) erranen diotet ephaileei: (...) espalka [XIII.30.]
111. : Zeruetao erresumak iduri du altchagarria. [XIII.33.]
112. (...) hastapenetik hunat (...) [XIII.35.]
113. (...); eta ustatzailak, aingeruak dire. [XIII.39.]
114. (...) behaztopagailu diren guziak eta gaizki egileak. [XIII.41.]
115. (...) gordean den dirutze bat, [XIII.44.]
116. (...) perla onketa dabilan tratularia. [XIII.45.]
117. Eta etzuen egin han ikhugarri haintzik, hekien sinhesgaiztasuna zelakoz. [XIII.58.]
118. , eta eman zaroten neskatchari, [XIV.11.]
119. ; eta izialdurak heyagoraka abiarazi zituen. [XIV.26.]
120. : Eta zuek zertako hausten duzue Jainkoaren manamendua zuen ohi-tzaren ariaz? [XV.3.]
121. (...): Nik Jainkoari egin eskaintza guziak (...) [XV.5.]
122. Itchura eder egileak (...) [XV.7.]
123. (...), gizonen araberako irakhaspen eta manamenduak (...) [XU.9.]
124. (...) hitz hori aditzearekin gaizbiderat hartu dutela? [XV. 12.]
125. ; itsuak dira eta itsu bidari; [XV.14.]
126. : Zer! zuek ere adigarrik gabe zarete oraino? [XV.17.]
127. , ohorgo, gezurrezko lekhukotasun eta burhoak. [XV.19.]
128. , bidean ahuldurak arthik detzan beldurrez. [XV.32.]
129. eta arrainchila bakhar batzu. [XV.34.]
130. , ezen uhartzea gorrikara da; [XVI.2.]
131. ; eta mugen ezagutkariaren ardiesten ez dakizue? Gaichtakeriako eta galdukeriako umeak (...) [XVI.4.]
135. Farisauen eta Saduzearren altchagarritik begira zatzue. [XVI.6.]
136. , Piarres abiatu zitzaioen erantzunka (...) [XVI.2.]
137. ; eragozgailu zaizkit, [XVI.23.]
138. (...) gizonaren Semea bere erregetasunean heldu dela. [XVI.28.]

139. ; dizipuluak erori ziren ahuspeka eta izialdura handia lothu zitzaoten.
[XVIII.28.]
140. Eta dizipuluak galdeka hasi zitzaizkon, [XVII.10.]
141. (...) egartzekotan dago horien aldetik. [XVII.12.]
142. : Oi ume sinhesgaitz eta makurrak! [XVII.16.]
143. Erakhar dizadazuet hunat muthikoa [XVII.16.]
144. Eta atsekabetu ziren minki. [XVIII.22.]
145. Ihardetsi zuen bayetz (...) [XVII. 24.]
146. Ez gatzazkieten ordean gaizbidetan izan, (...) [XVII. 26.]
147. (...), haurtto bat deithurik, (...) [XVIII. 2.]
148. (...) hulacheko haurtto bat, (...) [XVIII. 5.]
149. (...) eta buruz burutan egiozkitzu zure arrangurak. (...) [XVIII. 15.]
150. Sehi harek berriz, ahuspeka eroririk, (...) [XVIII. 26.]
151. (...) damu min hartu zuten; (...) [XVIII. 31.]
152. (...) nausiak eman zuen estiratzailen eskuetara, (...) [XVIII. 34.]
153. (...) gizonki eta emazteki egin izan zituela? (...) [XIX. 4.]
154. (...) Beraz Jainkoak bat-tua, (...) [XIX. 6.]
155. (...) Moisesek uzpeneko ageria ematea (...) [XIX. 7.]
176. Alabainan badire ebakiak, (...) [XIX. 12.]
157. (...) gaizkika hari zitzaizkoten. [XIX. 13.]
158. (...), ongirik zer eginen dut, (...) [XIX. 16.]
159. (...): Itzalgabea izan nahi baduzu, (...) eta zeruan ontasuntze bat dukezu (...) [XIX. 21]
160. (...); Jainkoarentzat ordean eginkizun dire guztiak. [XIX. 26]
161. (...), erreberritzapeneko egunean, (...) [XIX. 28.]
162. (...), hainak ehunkun izanen, (...) [XIX. 29.]
163. (...), bere mahastikotzat langile hartera. [XX. 1.]
164. (...) eguneko denario banaz hitzarturik, bidali zituen bere mahastira.
[XX. 2.]
165. (...) bederatzigarren orenaren ingurutsuan, (...) [XX.5.]
166. (...), erasiaka hasi ziren (...) [XX.11.]
167. (...) bere bizia hainitzetan erospentetan ematera. [XX.28.]
168. Bada, jendea gaizkika hari zitzaoten, (...) [XX.31.]
169. (...), Olibadietako mendi aldera, (...) [XXI.1.]
170. (...) atzemanen duzue asto urricha bat bere umearekin (...) [XXI.2.]
171. Eta mulkhoka aitzinean zihoazenak (...) oihuka hari ziren (...) [XXI.9.]
172. (...), eta eragotzi zituen aldatzaileen mahainak eta uso saltzaileen jarlekhuak. [XXI. 12.]

173. (...) ihardetsi zioten: Segurki. (...): Haurttoen eta bulharrekoen ahotik (...) [XXI. 16.]
174. (...) Bainan gero, urrikiak harturik, (...) [XXI. 29.]
175. (...) zuzentasunaren bidez, (...) [XXI. 32.]
176. (...), eta mahastizain batzuei etchetiargoan hura emanik, atze herritara bidayetan goan zen. [XXI. 33.]
177. (...), eta gurea ditake horren primantza. [XXI. 38.]
178. (...): Harginek tzartat utzi harria, (...), eta da zuen begietan ederresgarri? [XXI. 42.]
179. (...): Ezteiliarrei errozuete: Huna non aphaindu dudane barazkaria; (...) [XXII. 4.]
180. (...), chahutu zituen gizon hiltzaile hekiek, (...) [XXII. 7.]
181. (...), eta barazkaltiarrez bethe zen (...) [XXII. 10.]
182. (...), batzarre egin zuten, (...) [XXII. 15.]
183. (...), eta zintasunean irakhasten duzula (...) [XXII. 16.]
184. (...) hekien maltzurkeria, erran zioten: Itchura eder egileak, (...) [XXII. 18.]
185. (...), bainan bai bizidunena. [XXII. 32.]
186. (...) legearen irakhasle zen batek, (...) [XXII. 35.]
187. (...) ez egin horien egitateen arabera, (...) [XXIII. 3.]
188. (...), Iskribau eta Farisau itchura edertzaleak, (...) [XXIII. 13.]
189. (...), ala urhea sainduesten duen temploa? [XXIII. 17.]
190. (...), alegikari ederrak, (...), barneak aldiz harrapakariaz eta likhiskeriaz ditutzuelarik betheak. [XXIII. 25.]
191. (...) ustelkeriaz betheak daudenak. [XXIII. 27.]
192. (...) gezurrezko itchurapenik eta tzarkeriarik baizen ez duzuelarik barnean. [XXIII. 28.]
193. (...) eta prestuen orhoitgailuak edertzen ditutzuena. [XXIII. 29.]
194. (...) profeten odolean parthedun ez ginen izanen. [XXIII. 30.]
195. (...), oiloak hegaperla chitoak biltzen dituen bezala, (...) [XXIII. 37.]
196. (...) ichilka hurbildu zitzaizkon dizipuluak, (...) zure ethorpenaren eta mendeen akabantzaren ezagutkia? [XXIV. 3.]
197. (...) izanen da izurrite, gosete, lur ikharatze. [XXIV. 7.]
198. Orduan hesturetan ezarriko eta hilen zaituztete; (...) gaitzirizkotan izanen zarete. [XXIV. 9.]
199. (...) lurraren hedadura guztian, jendaki guzietan lekhukotasunetan; eta orduan ethorriko da ahipena. [XXIV. 14.]
200. (...) desmasiako hasgarrikeria, (...) [XXIV. 15.]
201. Eta hegaztegia dena, (...) [XXIV. 17.]

202. (...) hautetsien gatik ordean (...) [XXIV. 22.]
203. (...), edo hantche da; (...) [XXIV. 23.]
204. Ezen jaikiko dire kristo-aizunak (...) [XXIV. 24.]
205. (...) gizonaren Semearen ezagutkaria; eta orduan marrasketan' egonen lurreko jendaki guziak, (...) [XXIV. 30.]
206. Bada, piko hondotik har zazue iduripen bat: (...) [XXIV. 32.]
207. (...) balitz jakintsun (...) [XXIV. 43.]
208. (...); hordizaleekin berriz, jaten eta edaten; [XXIV. 49.]
209. (...) ilkhi baitziren ezkomberrien bidera. [XXV. 1.]
210. (...), eta luphean gorde dut (...) [XXV. 25.]
211. (...), eta eman darotzugu atherbea; (...) [XXV. 38.]
212. (...), balio handitako gantzugailu batez bethea, (...) [XXVI. 7.]
213. (...), ene ehorzpenaren ariaz egin du. [XXVI. 12.]
214. (...), bat-tasun berrikoa, (...) bekhatuen barkhamendutan. [XXVI. 28.]
215. (...) jasfanen duzue gaizbide guziek (...) Joko dut artzaina, (...) arthaldeko ardiak. [XXVI. 31.]
216. (...), harache othoitz egitera nohan artean. [XXVI. 36.]
217. (...), hasi zen ilhuntzen eta atsekabetan sartzen. [XXVI. 37.]
218. Eta aitzinachago goanik, (...) [XXVI. 39.]
219. (...) hamabi aingeru aralde baino gehiago? [XXVI. 53.]
220. Orduan abiatu zitzaizkon beghitartera thuka; (...) ukhaldika; (...) zaflakoka, [XXVI. 67.]
221. (...) ezen hire hizkuntzak salhatzen hau. [XXVI. 73.]
222. Orduan hasi zen zinka eta arneguka, (...) [XXVI. 74.]
223. (...) haren faltzaileak, (...) [XXVII. 3.]
224. Eta eman dituzte bacheregile baten landaren truk, (...) [XXVII. 10.]
225. (...) handizki harritzen baitzen. [XXVII. 14.]
226. Bada, besta-buru egunean, (...) [XXVII. 15.]
227. Bazakien alabainan bekhaizgoz eman ziotela eskuetara. [XXVII. 18.]
228. (...), eta zortheta arthiki dute ene soingainekoaz. [XXVII. 35.]
229. (...), enganatzaile horrek (...) erran izan duela: (...) [XXVII. 63.]
230. (...): Baditutzue zaintzaileak; (...) [XXVII. 65.]
231. (...) eta jaunzkura elhurraren pare. [XXVIII. 3.]
232. (...), besarkatu ziozkaten oinak, (...) [XXVIII. 9.]

Atzizkidunak ordenan

aberastasunen	batzarre	ehunkun
adigarrik	bayetz	elkharganatu
adiskidea	behaztopagailu	emaitzetan
ahaldunago	behaztopagarri	emazteki
ahapaldika	bekhaizgoz	enganatzaile
ahipena	beldurtasunean	ephaileei
ahuldurak	besarkatu	eragozgailu
ahuspeka	besta-buru	erakhar
aitzinachago	bidari	erantzukika
aitzindariaren	bidechkak	erantzunka
akabantzaren	bildegia	erasiaka
aldagarri	bildurti	erilea
aldatzaileen	biltzailea	eritasun
alderdikatuak	biltzarraren	erospenetan
alegikari	bizidunena	erreberritzapeneko
altchagarria	bulharrekoen	erregetasunean
aphalgura	chirolariak	eskaintza
aralde	chumetto	esku-ihardun
arneguka	damu min	espalka
arrainchila	debrudunak	estiratzailen
arrangurak	desherripen	etchetiargoan
arthaldeko	dirutze	ethorkiaren
artzaina	dohatsu	ethorkizuna
atherbea	ebakiak	ethorpenaren
atsekabetan	edale	ezagutkaria
atsekabetu	eder egileak	ezeztatzera
atze herritara	ederesten	ezkomberrien
aurkhintzetara	ederresgarri	ezteiliarrei
bacheregile	edertzaleak	eztikiago
baketiarrak	egartzekotan	frogapenez
banaz	egileak	gaichtaginak
barazkaltiarrez	eginkariak	gaichtakeriako
barazkaria	eginkizun	gaididuratik
barkhakizun	egintzak	gaitzeruaren
barkhamendutan	egitateen	gaitzets
bat-tua	egoitza	gaitzirizkotan
bat-tasun	ehorzipenaren	gaizbide

gaizkika
galdeka
galdukeriako
galpenerat
ganderailuaren
gantzugailu
garhaizia
gerrikoetan
gizaldi
gizatzarren
gizonki
gogoetak
gogorki
gorrikara
gosete
gozakaririk
grinati
guriki
handizki
hantche
harache
harginek
harrapakieriaz
harrapariak
hasgarrikeria
hastapenetik
haurdun
haurride
haurtto
hauspean
hautetsien
hedadura
hegalpera
hegastinak
hegaztegian
hestura
heyagoraka
hiltzaile
hiltzailea
hizkuntza

hizkuntzak
hobendun
hobengaberik
hordizaleekin
hulacheko
ichilka
iduripen
igurikimena
iguzkialdetik
ikhusgarri
Ilhumbeetan
ingurutsuan
irakhasle
irakhaspen
irakhaspena
irakhassmenaren
irakhatsiz
irazkiari
itchura eder egileak
itchurapenik
itchuratiak
Itzalgabea
izialdura
izialdurak
izurrite
jabaldura
jakintsun
jale
janharia
jarlekhuak
jasan-errechagoa
jaskanizun
jaunzkura
jazargoak
jazarpenak
jazarrika
jendaki
jendaki
joileari
juyamenduak

kanaandarra
korozaia
kristo-aizunak
langile
langileak
larderiarekin
leherpena
lekhukotasun
likhiskeriaz
liluramenduek
lohikeriako
lopile
luphean
lur ikharatze
mahastikotzat
mahastira
mahastizain
maltzurkeria
manamendu
marraska
merezdunik
minki
mulkhoka
muthikoa
neskatchari
ohitzaren
ohorgo
oihuka
oimpetako
oinetakoen
oinkatua
olibadietako
ongiaren
ongirik
onhetsazu
onirizkotan
onketa
ontasun
ontasuntze
oraichetan

orhatzaileak	sinhesgaitz	urrikalpena
orhoitgailuak	sinhesgaiztasuna	urrikiak
othoizka	sinheste	ustatzaileak
parthedun	soinekoa	ustelkeriaz
phausuketa	soingainekoaz	uzpeneko
piko hondotik	tarrapataka	zaflakoka
presondegian	thuka	zaintzaileak
primantza	tratularia	zerbitzari
saduzearretarik	tzarkeria	zergari
sainduesten	ukhaldika	zinka
saltzaileak	untzichkan	zintasuna
saltzaileen	urdalde	zorduruei
segurki	urricha	zuzembidea
sendagaila	urrikalkor	zuzentasunaren
sendakin	urrikalmendu	

Zenbait itzulpen, adibide gisa (gaztelerazkoak Vulgatatik egin-dako itzulpenetik atera ditugu). Ikus daitekeenez, batzutan bi hitz desberdin erabiltzen ditu gauza bera adierazteko (erdal testuan oinarritzen bagara, jakina. Beste bertsio batzu ikusi behar)

- | | |
|--|--|
| - ahaldun: fuerte | - gupil: prudente |
| - ahapaldika (haritu): injuriar | - hiltzaile: «quien matare» |
| - aurkhintza: región | - hizkuntza: lenguaje |
| - beldurtasunean sarthu: asombrarse | - irazkia: «duración de la vida» |
| - bildegi (zerga): despacho de aduanas | - itchura edertzale: hipócrita (1) |
| - biltzaile (zerga): publicano | - itchurati: hipócrita (2) |
| - biltzarra: sanedrín | - janharia: mantenimiento |
| - eskaintza: ofrenda | - juyamenduaren jasankizun (izan): someterse a juicio del tribunal |
| - egintza: obra | - leherpena: derrumbamiento |
| - egoitza egin: establecerse | - lekhukotasun: testimonio |
| - emaitza: presente | - merezdun: digno |
| - ethorkia: generación | - oimpetako alkhia: trono |
| - ezeztatu: destruir (la ley) | - onhetsi: amar |
| - gaitzetsi: aborrecer | - ontasun: tesoro |
| - gaizbide (hartu): escandalizar(se) | - ontasuntze: el atesorar |
| - gaizdun: los que se están mal | - oraichetan hil: acabar de fallecer |
| - galpen: perdición | - tzarkeria: iniquidad |
| - gozakari: consuelo | - urrikizko eginkari behar-beza- |

- | | |
|-------------------------------------|----------------------------|
| lakoak athera: hacer fruto digno de | – zintasun: justicia (1) |
| penitencia | – zuzembide: justicia (2) |
| – zerbitzari: alguacil | – zuzentasun: justicia (3) |

3.- Ondorioak

Duvoisinek, beste klasiko batzuren antzera, gaur egungo hiztegi berezituak osatzeko baliabide ederrak eskaintzen dizkigu. Ikus daitekeenez, Biblia barruan agertzen diren abstrakzioak eta hizkera «jasoa» emateko esamolde eta hitz baliagarriak aurkitu zituen, maiz aurreko tradizio eta hiztegieta oinarriturik, zer esanik ez. P. Altunak «Laborantza liburua»-rako egindako sarreran dioen bezala «(...) Duvoisinin mintzaira malgu eta zailua da, doi eta dotorea; ez zaio inoiz bortxarik ez gatazkarik nabarmentzen perpausa biribil taxutzeko (...)», 27. or., hitz «berriak» asmatzen zituela badiosku ere: «Baditu ere bizpahiru hitz berri» 27. or.

Beste auziari buruz, hau da, atzizkien eremua mugatzeari dagokionez, laginaren txikiak ez digu baieztapen sendorik egiten uzten. Ez da, hala ere, zenbait hizkuntzalarik diotena ahaztu behar, hau da, hizkuntzak bizirik daudela, beraz, aldakor eta moldakorrek direla. Atzo egiten edo esaten ez zena, egun egiten da. Gaurko esapide eta baliabide jatorrak aspaldiko maileguak izan daitezke. Eta gaurkoak, etorkizunekoak.

Sarreran aipatu bezala, Duvoisinin eredia gaur egungoarekin konparatzea zen lan honen helburuetako bat. Gehiegi ez luzatzearen, ahor zenbait atzizkidun, aukeraketa berezirik egin gabe:

* Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria:

Lehendakaritza, Sindikaritza, erakunde, izendapen, agintari, langilego, hirigintza, ordezkari, (Atzizkidunen maiztasun handia) «AGINDUA, 19991ko martxoaren 20koa, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailarena, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Arabako Lurralde Ordezkariak bere kargua utz dezala xedatzen duena.»

* Arabako Foru Aldundia:

«FORU AGINDUA. 19991ko otsailaren 25ekoa, Laguardiako Ekialdeko Castillar delakoaren Barne Erreformatarako Plan Bereziaren espedienterai buruzkoa.» Ikus daitekeenez, desberdintasun morfologiko zein sintaktikoak daude. Zenbait adibide: onarpen, berraztertze, iragarpen, legebide, interesdun,...

* Bizkaiko Egunkari Ofiziala:

«Azaroaren 20ko 90/4.832 FORU AGINDUA, Zine eta Kirolari buruzko Zinekirolak II. Jaialdirako deialdia egiten duena.» Zenbait atzizkidun: ogasun, egitamu, ezagupide, eskurantza, ...

* Gipuzkoako Foru Aldundia:

«FORU AGINDUA, 1991ko otsailaren 14ekoa. Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiroko Foru Diputatuarena, GHI-211/90-J01 espedienteari buruzkoa». Zenbait atzizkidun: hirigintza, ardura-dun, 'zati xedatzaileak (hiztegi arauemailea), baimen, ...

* Nafarroako Aldizkari Ofiziala:

«59/1991 FORU AGINDUA, otsailaren 15ekoa, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Kontseilariak emana, Haur eta Gazteendako Aisiarako Hezitzaile Eskolen onarpena arautzen duena». Zenbait hitz: hezitzaile, kontseilari, ekintza, zuzendari, prozedura, programaketa, programazio,...

Jakina, ondorio argirik ateratzerik ez dago, aztertutako corpusa oso murrizta delako. Guztiarekin ere, sarrerako aipuetan esan bezala, eredu garbi baten eza nabari-nabaria da. Bestalde, eta amaitzeko, esan dezagun klasikoetara jotzeak aurrekoen senak nondik nora jotzen zuen jakiten lagunduko digula, baina, bidenabar, haien irtenbide eta proposamenak neurririk gabe erabiltzeak oso kutsu arkaikoa eman diezaiokeela testu administratiboari.

SINTESIS

Duvoisin y la sufijación

En el artículo se recogen las opiniones de algunos de los ponentes y asistentes a las «Jornadas sobre el Lenguaje Administrativo y Terminología» celebrado en Gasteiz los días 8 y 9 de junio del año 1989 y que reflejan ciertos problemas a los que debe enfrentarse el traductor, tanto en la administración como en otras parcelas. Algunos de esos problemas se refieren a la necesidad de utilizar las posibilidades que ofrece la sufijación para la formación de nuevos términos y acepciones, sobre todo en lo referente a las abstracciones. El autor ofrece una muestra de algunas de las palabras que utilizó Duvoisin en su traducción de la Biblia (Evangelio de S. Mateo, en este caso). Se subraya, por otro lado, la falta de un único criterio en las distintas administraciones que recurren a ese tipo de traducción y la necesidad de realizar estudios más exhaustivos sobre el uso en la tradición escrita de los sufijos y afijos. Se señala, por otro lado, el papel fundamental que ha jugado la Biblia, y la literatura religiosa en general, en el País Vasco, puesto que ha sido en muchas ocasiones la única lectura de muchos vascos. Por otro lado, en el acervo cultural de este pueblo, la Biblia ha sido el único contacto con el lenguaje culto. Dado que en la Biblia aparecen en muchas ocasiones ciertas normas relacionadas estrechamente con la tradición jurídica de Occidente, —normas que por otro lado permanecen en el inconsciente colectivo del hablante normal— parece conveniente estudiar en profundidad la Terminología «jurídico-administrativa» que en las traducciones de la Biblia (totales o parciales) se recoge.

ABSTRACT

Duvoisin and suffixation

The article includes the opinions of some of the speakers and members of the public who attended the «Administrative Language and Terminology Seminar» held in Vitoria-Gasteiz on June 8th-9th 1989 and which reflect certain problems which the translator must face both within the Government and in other sectors. Some of these problems refer to the need to make use of the possibilities offered by suffixation to form new terms and meanings, especially with reference to abstract ideas. The author offers examples of the words which Duvoisin used in his translation of the Bible (Gospel according to Saint Matthew, in this case). On the other hand, he draws our attention to the lack of a single set of criteria in the different governments which resort to this type of translation and the need to make more exhaustive studies in the use of suffixes and affixes. He points out the fundamental role which the Bible and religious literature have played in the Basque Country, as they are the only texts which many Basques have read. On the other hand, in the cultural patrimony of this country, the Bible has been the only contact with erudite language. Given that on many occasions the Bible contains certain standards closely related with western legal tradition - standards which, on the other hand, remain in the collective unconsciousness of normal speakers - it seems appropriate to make an in-depth study of the «judicial-governmental» terminology included in translations (total or partial) of the Bible.

Alemaniarren itzulpen tradizioa

Xabier Mendiguren

Dagoeneko klasiko bihurtu den pasarte batean Schleiermacher filosofo eta hermeneuta alemaniarrek esaten zuenez, «edota itzultzaileak ahalik eta patxada handienezan uzten du idazlea eta berarenganantz mugierazten du irakurlea; edota ahalik eta patxada handienezan uzten du irakurlea, eta berarenganantz mugierazten du idazlea»¹. Bi polo auresuposatzen dituen jokaera bikoitz honen baitan betidanik itzultzaileak eta itzulpenaren irakurleak somatu izan duten tirandura edo tentsioa berezkoa izan du itzulpengintzak. Wilhelm von Humboldtek, 1796ko uztailaren 23an Schlegeli idatziriko gutunean, itzultzaile oro ezinbestean bi oztoparri horietakoren bat gainditu beharrean aurkituko zela esaten zion: «zehaztasun handiegiz lotuko zaio edo jatorrizkoari, bere herriaren gustu eta hizkuntzaren kaltetan, edo bere herriaren orijinaltasunari, itzuli beharreko obraren kaltetan...».

Franz Rosenzweigeck eta beste askok esan duten bezala, «itzultzea bi nagusiren zerbitzari izatea da»², eta oraindik ere «traduttore traditore» italiar adagioak indarrean dirau kultur giro askotan itzulpengintzaren zerbitzari-izaera azpimarratuz. Metafora honek adierazten duenez, obraren, autorearen, inoren hizkuntzaren (lehen nagusiaren) zerbitzari izan behar da eta irakurleagoaren, norbere hizkuntzaren (bigarren nagusiaren) zerbitzari ere bai.

Lehen nagusiaren zerbitzari bakarrik izatea hautatuz gero norbere kulturguneari arrotasuna ezartzen zaio (irakurlea autorearengana

eramaten da, Schleiermacherren hitzetan). Aldiz, bigarren nagusia-rekin gelditzen bada (autorea irakurlearengana eramanez), irakurle-goaren parterik makalenaren gustua egin bai, baina atzerritar obrari traizio egingo zaio. Baina A. Bermanek ongi dioenez³, ezinezko egoera hau auresuposamendu ideologiko batzuetan erroturik edo oinarriturik dago, ez da berezko zerbait eta bere baieztapenaren lekukotzat Léonard Forsterrek bere *The Poet's Tongues: Multilingualism in Literature* (1970) obran deskribatzen duen Erdi Aroaren amaiera aldeko poeten mundua aipatzen digu; bertan poeta asko autoitzultzaileak ziren eta orduko irakurleko landuak atseginez irakurtzen zuen obra bera hizkuntz aldagai ezberdinetan. Bestela esateko, idazle autoitzultzaile haiek ez zeuden leialtasun eta traizioaren arazoaz jabeturik, ez bait zuten ama-hizkuntza zerbait sagaratua bailitzan hartzen. Aipatu dugun traduktologo frantsesaren iritzian⁴, sakralizazio horretan legoke italiar adagioaren sorburua eta itzulpengintzaren «arazo» guztiena ere.

Itzulpengintzaren «arazo» hau planteiatu, eztabaidatu, garatu eta soluziobideetan jartzen nekez aurki daiteke alemaniarrena baino tradizio luze eta aberatsagorik, eta bertan argi eta garbi agertzen da etnoexozentrismoak sortutako tentsio eta errealitateen kontzientzia landua.

Tradizioaren aintzindariak

Lefeverek dioenez, «tradizioak ez dira «sortzen». Urte, hamarkada edota mendeetan barrena helburu berak, gutxienez antzeko samarrak, partekatzen dituen jende multzo batek kontzienteki taiutu eta finkatu egiten du»⁵. Alemaniar tradizioan aitzindariak Lutero eta Justus Georg Schottel dira, tradizioaren mamitzaileak Bodmer, Breitinger, Lessing eta Herder, maisuak Humboldt eta Schleiermacher, Goethe, Schlegel eta Novalis ahaztu gabe, eta azken aldiko berrikusle eta kritikariak Wilamowitz, Benjamin, Borchardt, Rosenzweig, halaber, Grimm, Nietzsche, Schopenhauer eta abarren ekarpenak ere gogoan hartuz.

Luterok idatzi zuen *Sendbrief vom Dolmetschen* (1530) Erreforma garaiko borrokan goritasunean sorturiko testu bat denez gero, ez da itzulpenari buruzko saiakera akademiko gisa hartu behar, baina bertan

akiakularik gabe heltzen dio alemaniar nazioa eta hizkuntzaren auziari, eta bertan ia era beretsuan erabiltzen ditu *übersetzen* (itzuli) eta *ver-deutschen* (alemaniaratu) hitzak egintza bera izendatzeko. Luteroren garaiko eta ondorengo mendeetako alemaniera konkurrentzia latzean zebilen inguruko beste zenbait hizkuntzarekin, grekoa, latina eta frantsesarekin batipat, eta itzultzailearen egitekoa zen alemaniar hizkuntza eta literatura hobetzea lehiaketan atzera gera ez zedin. Hobetu nahi horrek tradizioan luzaroan puri-purian iraungo duen kontraesan batera bultzatzen du: alemaniera ona landu nahi zuen itzultzaileak «hizketako» alemanierara jo behar zuen, baina aldi berean alemaniera gaitu eta landu ere egin nahi zuen eta horretarako alemaniar material edo gaiari kanpotar eite edo formak eman behar zizkion edota kanpotiko ereduaren parekotzat jo zitezkeen alemaniar hitz zaharrak birbiztu behar zituen. Lutero, Schottel, Gottsched, Lessing, Breitinger eta abarrek bigarren bide honi heldu zioten; aldiz, Bodmer eta Herder kalko eta literalismoen lehen bidetik ibili ziren batipat⁶.

Johann Christoph Gottschedek (1700-1766) hizkuntza «hobetze-aren» ideia lantzen du. Ereduen itzulpengintza idazleen, hizkuntzaren eta literaturaren trebetasun eta gaitasunak hobetzeko erabiliko dira Gottscheden ustetan, eta forma baino zentzua ematea beharrezkoago dela azpimarratzen du frantses neo-klasikoen idealaren ildotik. Horretan Leibnitz filosofoaren hizkuntz teoriari datxeko. Norbere hizkuntza baino inorena maiteago duena kritikatzeko bazuen ere, ez zen iritsi erromantikoen «jaiotzatiko hiztunaren sindromeraino»; alderantziz, hizkuntza arrotzetik norbere hizkuntzara ezezik, hizkuntza arrotz batetik beste arrotz batera itzul daitekeelakoa onartzen du, eta praktika arrazoi etikoengatik baztertzen du, ez hizkuntzazkoengatik.

Tradizioaren mamitzaileak

Johann Jakob Bodmerrek (1698-1783), bere aldetik, aurre hartzen die Goethe eta Schleiermacherren ideiei eta argiro bereizten ditu itzultzeko dauden bi moduak, «pentsamendua, edukinaren interpretazioa, zeinaren helburua *clare et distincte percipi* den eta irakurle hartzailearen hizkuntz baliabideez errazkien lortzen den; eta beste

modua, jatorrizkoaren ezaugarri banako eta formazkoetara zuzendua, zehaztasun handiena eta nork bere hizkuntz baliabideak arrotza den horretara moldatuz eta zehaztasun handiena erabiliz bakarrik lortzen dena». Horrela, 94. gutunaren amaieran dio: «Idatzi bat hitzez-hitz bere ama-hizkuntzara itzultzearen nekea hartu duen edonork, idatzi poetikoa batipat, konturatuko da (...) arrotz eta ezohizko gertatzen zaizkigun esamolde gehienek ez dutela ezer desegokirik beren baitan, ongi aztertzen badira, aldiz, sarritan gauzak oso irudi egokien bidez adierazten dituztela eta horregatik irakurlearen arretari oso era berezian eragiten diotela»⁷.

Johann Jakob Breitingerrek (1701-1776), berriz, Gottschedek ez bezala, itzultzailea jatorrizko izaera eta formaren aldatzaile izan dadin nahi du, pentsamendu eta kontzeptuen maila berean. Jatorrizkoak bere irakurleengan duen efektu bera lortu behar du itzulpenak bere irakurleen baitan ere. Horretarako itzultzailea eta autorearen enpatia bat beharrezkotzat jotzen du, forma edukinaren maila berean tratatzeko, eta ondorioz zorrotz berezten ditu itzulpena eta imitazio edo bertsioa. Bere *Critische Dichtkunst* (1740) obran, iraganean porrot egin duten hainbeste itzulpen alemaniarren aipamena egiten du, eta errua ez dio itzultzailearen trebetasunik ezari egozten baizik eta alemaniar hizkuntzari buruz izan den gehiegizko joritasun-usteari, hitz eta esamoldeen baliokidetzari buruzko aurreritziei eta, batez ere, itzulzaile fidelaren egitekoak gaizki ulertzeari eta jatorrizkotik gehiegi aldentzeko joerari⁸.

Itzulpengintzari buruz eztabaidagai berri batzuk sartu zituen Lessingen ondoren (1729-1781), Johann Gottfried Herder (1744-1803) dator eta gai horri buruzko eztabaida abiadura berri batean sarrerazten duela esan liteke, nahiz eta oso pentsamendu orokorrak adierazi eta bere ikuspegi osoa argitzeko bitarteko gisa haietaz baliatu. Herderrekin itzulpena hizkuntz iharduera ez, baizik eta metafora bihurtzen da, pentsamendu-kategoria, gerora Benjamin berak ere iradokiko duenez.

Herderren ideiak laburki emanez gero, honako hauek hautatzen ditugu: edozein hizkuntza bizi ama-hizkuntza da eta horregatik ez da beste edozein baino gutxiago. Bestela esateko, alemaniera frantsesaren pare da, nagusiago ez bada. «Alemaniera hobetzeko klasikoen

obretatiko ekarpenak behar dira. Esamolde baliokideak ez dira aski; gaur eguneko hizkuntz materiala molde arrotzetan isuri behar da», nahiz eta gerora Schleiermacher eta Benjamini gertatuko zitzaienez, eredu arrotz horrek alemaniarizat ezin ezagutu izateraino kanporaturik geratzeko arriskua izan.

Herderrek ezaguera filologikoaren garrantzia azpimarratzen du (filosofo, poeta eta filologo izatea eskatzen dio itzultzaileari). Egiazko itzultzaileak hitzak, esamoldeak eta konbinazioak egokitu behar-ko lituzke, Herderren iritzian, hizkuntza garatuagoetatik bere amahizkuntzara. Grekoa eta latinetik batipat, baina baita hizkuntza gazteagoetatik ere.

Itzultzeko moduari dagokionez ez du inondik ere itzulpengintza «edertzailerik» onartzen, eta horretan bestetara jokatzeko frantses gustuari gogor erasotzen dio, eta itzulpen laxo edo solteegiak bi hizkuntzen kontrako bekatua egiten duela aitortzen du: ez du zintzo jokatzeko jatorrizkoarekiko eta ez du fruiturik ematen bestean ere; aitzitik, moldatzaileegia ez den itzulpengintza bi hizkuntzekiko jator portatzen dela uste du.

Herderren ildotik, Johann Wolfgang Goethek (1749-1832) aurre-
rapauso bat ematen du eta itzulpen «ona» sortzeko arauak ezin litzkeela absolutuak izan adierazten du, zeren eta itzulpen «ona» bera ere ez bait da absolutua. Itzulpen bat «ona» den ala ez jakiteko sorburu-literatura eta xede-literaturaren artean zer harreman-maila lortu den ikusi behar da.

Goetherentzat hiru itzulpen-mota daude:

- 1) Lehenak geure hitzetan jartzen gaitu harremanetan atzeritarrekin: prosazko itzulpen soila da hoberena zentzu onetan.
- 2) Bigarren itzulpen-motak edukin arrotza hartu eta bere erara ematen du. «Parodistiko» izena ematen dio eta frantsesek beren obra poetiko guztien itzulpenean erabiltzen zutena zela zioen. Atzerrikoa (sentimenduak, pentsamenduak, gauzak ere bai) nork bere gisara moldatzea da. Alemanian Wieland zen joera horren ordezkari.

- 3) Hirugarren itzulpen-mota, nagusitzat eta azkentzat daukana, jatorrizkoa eta itzulpena bat egitea da, bata bestearen kaltetan ez, baizik eta mesedetan baloratua izan dadin. Hasieran kontrakar handia gainditu behar izaten du, zeren eta jatorrizkoari hurbil samarretik datxekon itzultzaileak bertan behera uzten bait du bere nazioaren jatortasuna eta horrela hirugarren bat sortzen da eta jendearen gustua hartara ohitu behar izaten da⁹.

Tradizioaren maisuak

Aurrekoaren garaikidea izan zen Wilhelm von Humboldt (1767-1835) bere ideiatan ez da oso sistematikoa itzulpengintzarekiko: hizkuntza guztiak egokitzen jotzen ditu lanbide horretarako, baina batzuk hobetuz dauzka, alemaniera kasurako, aintzinateko metrika bere baitan birsortzeko aukera ematen duelako. Humboldt tek testuarekiko fideltasuna azpimarratzen du, baina osotasun bezala harturik, zati eta xehetasunekiko fideltasunetik sortzen den barreiakuntzaren aurrez-aurre. Tradizioa gatzatzekoan formak duen garrantzia eta itzultzailea eta autorearen artean behar den enpatia azpimarratzen ditu; itzulpena eta iruzkina berezten ditu eta itzulpena, jatorrizkoa bezalaxe, inspirazio batetik sortzen dela aitortzen du. Itzulpen-ugaritasuna ontzat ematen du eta askoren artean jatorrizkorako metaketa-hurbilpen bat burutzen dela esaten du. *Aeschylus's Agamemnon metrisch übersetzt von Wilhelm von Humboldt* (1816) obraren sarreran agertzen ditu itzulpen-teoriari buruzko bere ideia nagusienak.

August Wilhelm Schlegel (1767-1845) seguraski bere aurreko kide guztiek baino literatura gehiago itzuli zuen. Beretzat eta bere anaia Friedrichentzat itzulpengintza metafora bat da, kategoria kontzeptual bat, Herderentzat bezalaxe.

A. W. Schlegel, literatur itzulpenari buruzko bere aitorpenetan aurreko eta garaiko kide askoren ideiak errepikatu zituen, baina guztien artean seguraski eraginik sakonena itzulpenean jatorrizko formari eutsi behar zitzaion iritziak izan zuen. Baina forma esatean batez ere metrika, neurria ulertzen zuen. Bestalde, itzulpena burutzeko

dauden bi era aipatzen ditu: idazleak bere burua agertzen duenekoa eta ez duenekoa. Berak ere, Humboldtek bezala, ez du onartzen itzuli beharreko obraren apurketa: fidelitasuna osotasunarekikoa da, ez zatiekikoa eta ez da literaltasunean, baizik eta baliokidetzan bilatu behar da. Alemanierara egindako itzulpenek hizkuntza hori Europaren erdigune kosmopolita gisako zer bait bihurtu behar zutelako ideia, aurrena Goethek iradokia, berak ere hartu egiten du eta Schleiermacherrenganaino iritsiko da. Lefeverek dioenez, «ironiaz ideia hori egia bihurtu da neurri handi batean (edo gutxienez ia egia) gure mende honetan, baina hizkuntza horiek ingelesa eta errusiera dira, ez alemaniera»¹⁰.

A. W. Schlegelek, Goethek bezala, hizkuntza «exotikoetatik» itzulpenak burutzeari garrantzi handia ematen dio, baina hizkuntzaren tratamenduari dagokionez Humboldt baino arreta handiagoarekin ibilizen, eta itzultzaileak ez dituela bere hizkuntzaren mugak gainditu behar aitortzen du. Azkenik, Schlegelen ideia nagusia, oraindik erabat onartu ez dena, itzultzailea eta literatur kritikaria batean elkartu eta artistikoki eta zientifikoki baliozkoa den literatur-obraren birsorkuntza bat egitearen premiarena da. Hala ere, onartzen du gutxi izan litezkeela ideal hori lortzeko modukoak.

Novalisek (1772-1801) ere itzulpengintza metafora gisa hartzen du, eta itzulpena eta jatorrizkoa biak idealerantz hurbiltzeko ahaleginak direlako uste platonizatzailea azpimarratzen du. Alemaniarrek erromatarrekin erkatzen ditu itzulpengintzarako ageri duten joera edo bulkada indartsuan. Hori alemaniarren kosmopolitismoa eta indibidualtasunaren ezaugarritzat jotzen du. «Guretzat bakarrik izan da hedapen itzulpengintza. Moralitate poetikoa, norbere zaletasunen sakrifizioa behar da itzulpengintzarako. Ederraren eta nazioaren literaturarenganako benetako maitasunarengatik itzultzen da. Itzulpengintza literaturgintza da, nork bere obra idaztea den bezalaxe, eta zailago, arraroago da. Azken buruan, literatura oro itzulpen da».

Friedrich Schleiermacheren (1768-1834) *Ueber der verschiedenen Methoden des Uebersetzens* saiakera, 1813ko ekainaren 24ean Berlingo Zientzien Erret Akademian lehen aldiz irakurria da, Lutero-

rengandik hasi eta alemaniar tradizioak itzulpenaz esan dituen gaien bilketa nagusia. Beronen garrantzia ukaezina da, era sistematikoan eskaintzen bait ditu, batez ere, Alemania erromantikoa eta klasikoaren intuizio eta esperientziak itzulpengintzari dagokionez. Gainera, zorrozkiz baztertzen du XVI mendeak modan jarri zuen baina kaltegarritzat daukan **imitazioa**. Schleiermacherrek itzulpena ulerkuntza-egintza, hermenutika gisa hartzen du. Bestalde, harreman berri bat planteiatzen du hizkuntza arrotz eta ama-hizkuntzarekiko, eta itzulpengintza ama-hizkuntzaren espazioan kokatzen du. Baina beronen-tzat ama-hizkuntza ez da nazionalismo estu baten ikuspegitik ulertzen den zer baita, ama-hizkuntza itzulpengintzaren esperientziara irekitzen ez den bitartean «ama-hizkuntza partzial» besterik ez da.

A. Bermanentzat garai hartako Alemanian itzulpenaz burutu zen ikerketa metodiko eta sistematiko bakarra da, alde batetik, aztertu ez ezik definizioetatik itzultzeko metodo posibleak ateratzen dituelako, eta bestetik, ulerkuntzaren alor osoan itzulpen-egintzaren eremua mugatzen ahalegintzen delako, ondoren zeuden itzulpenak aztertu eta itzulpengintzako metodologia bat sortuz *Rede* mota ezberdinei aplikatua. Bide horretatik jotzen du bere Hermeneutikak.

Schleiermacher itzulpen orokorra eta murritzua, interpretaria eta itzultzailea bereztetik hasten da (gogoan izan bedi Luterok bi hitzak, *dolmetschen* eta *übersetzen*, gauza bera adierazteko erabiltzen zituela), lehena batez ere mintzatuaren alorrean eta bigarrena idatziarenean kokatuz. Lehenean negozioak eta bigarreanean zientziak eta artea kokatzen ditu, subjektiboa eta objektiboaren oinarrien gainean. Baina erokeria bat ez ote den galdetzen du hizkuntza arrotzaren eta hizkuntza horretan bere mundua adierazten duen idazlearen barne-muina nork bere hizkuntzara aldatzea. Erokeria hori burutzean erabiltzen diren bi irtenbide, hau da, parafrasia eta birsorkuntza (*Nachbildung*) ez ditu ontzat ematen itzulpenaren auziaren albotik edo kontrara dabiltzalako.

Orduan Schleiermacherrek dagoeneko klasikoa den modura argudiatzen du: demagun adiskide bat ezagutzen ez duen norbaitekin toparazi nahi dudala, orduan bi irtenbide daude: nire adiskidea halako horri bisita egitera joango da, edota halako hori nire adiskideari

bisita egitera etorriko zaio. Itzulpengintzari dagokionez, jatorrizkoaren autorearen itzulpenaren irakurleagana eraman edo itzulpenaren irakurlea jatorrizkoaren autorearengana eraman.

Lehen kasuan itzultzaileak bere baitatik irtetera, deserdiratze-ahalegin bat egitera behartzen du irakurlea autore arrotza bere arrotasunean atzematera; bigarrenean, aldiz, autoreak bere arrotasuna erantzera eta irakurlearekin familiartzera derrigortzen du autorearen. A. Bermanek azpimarratzen duenez, bereizketa honen interesa ez dago itzulpen etnozentriko edo exozentriko, baizik eta itzulpena subjektuarterko topaketa bezala planteiatzean; izan ere itzulpenaren «arazoak» planteiatzeko era guztiak bi metodo horietara makurturik gertatzen bait dira, itzulpena ulerkuntzaren atal bihurturik utzi den unetik. Schleiermacherrek hitzaldiaren hemendik aurrerakoa bi metodoak aztertzen ematen du: lehena finkatuz, bere baldintzak eta zentzua aztertuz eta bigarrenaren funtsezko absurdua erakutsiz.

Schleiermacherrek bi eratako itzulpena dagoela erakusten du: kautoa eta ez-kautoa, ulerkuntza eta komunikazioan ere gertatzen denez. Ondorioz, autoreak idatzi duena itzultzailea bere ama-hizkuntza idatzia izan balitz bezala ematen ahalegintzen denean itzulpenak benetakotasuna galtzen du, autore horrek bere hizkuntzarekiko duen lotura sakona eteten bait zaio. «Bai, zer erantzungo litzateke, baldin itzultzaileak esango balio irakurleari: ematen dizut liburua gizon horrek alemanieraz idatzi izan balu bezala, eta irakurleak erantzungo balio: (...) hori gizon honen erretratoa bere amak beste aita batekin sortu izan balu emango bazenit bezala da? Zeren eta autorearen izpiritua badute zientzia eta arteari (...) dagozkien obrek ama, sorterrizko hizkuntza (*vaterländische Sprache*) dute aita».

Teoria honek aldi berean norbere ama-hizkuntzaren eta beste ama-hizkuntzen ukapena da, zehatzago esateko, ama-hizkuntza ideiarekin beraren ukapena da. Besteak ukatzen dituenak, bere burua ukatzen du. Eta Schleiermacherrek erakusten du, garai hartako Alemanian behintzat, artean hizkuntza nazionalak ez zeukala bere buruaren baieztapena egina, ez bait zen gauza onartzeko eta ez bait zituen beste hizkuntzak beren diferentzian onartu nahi. Eta bere burua garatua ez

duen bitartean ama-hizkuntzak «partzial» izaten jarraitzen du, «osagarritzat» latina edo frantsesa erabiltzen dituen. Horrela alemaniar kultur elebitasunak tratu egingo du bai ama-hizkuntzaren loratzea eta bai itzulpenena, zeren elebitasun horrek ez bait du atzerrikoa, arrotza denarekiko irekidura adierazten, baizik eta azken horrekiko menpetasuna. Aitzitik, ama-hizkuntzak bere burua kultur hizkuntza bezala baieztatzen duenetik hizkuntza horren inguruan ardazturiko komunitateak pentsa lezake hizkuntza arrotzak itzultzean mintzatzen jarraitu beharrean. Baina ama-hizkuntzak ezin dezake bere burua kultur hizkuntza bezala baieztatu harik eta itzulpen-hizkuntza bihurtu arte, hitzegiten dutenek libreki arrotza den horrekiko interesatu gabe. Itzulpen ez-kautoa ama-hizkuntza eta beste hizkuntzekiko harreman ez-kauto bati dagokio. Honela ikusten zituen Schleiermacherrek gauzak alemaniar kulturari zegokionez.

Frantsesaren itzulpena, berriz, birsorkuntza edo itzulpen etnozentrikoa zena, adierazpen klasikoarekiko lotura estuegiak dituzten hizkuntza preso hartu batena bezala ageri zaio. Hizkuntza preso hartu horiek hedatu edo zabaldu dezakete beren eremua ama-hizkuntzaz gainera beste hizkuntza bat hitzegin beharra duten atzeritarren hizkuntza bihurtuz (orduan frantsesarekin gertatzen zena, gaur ingelesarekin gertatzen da mundu osoan zehar), baina obra arrotzak bereitzeko parafrasia edota itzulpen etnozentrikoa erabili beharra zeukan.

A. Bermanek hiru eskematan aurkezten du Schleiermacherren ikuspegia:

- | | |
|--|---|
| 1. Frantses hizkuntza
klasikoa | → Hedapena/hizkuntza arrotz «partzialen»
menperakuntza.
Itzulpen-egokitzapenak, itzulpen etno-
zentrikoak. |
| 2. Alemaniar hizkuntza
aurre-klasikoa | → Hizkuntza «garatuagoek» «osoturiko»
hizkuntza partziala; elebitasun inte-
lektuala; menpekotasuna.
«Autorea irakurlearengana eramaten
duten» itzulpenak |

3. Alemaniar hizkuntza klasiko/erromantikoa → Hizkuntza «librea», «irekia» ama-hizkuntzaren sendarpena eta obra propioen sorkuntza. Itzulpen etnozentrikoak.

Itzulpen kautoak egin ahal izateko bi baldintza jotzen ditu beharrezkotzat pentsalari alemaniarrek: obra arrotzen ulerkuntza ezagutua eta desiratua izatea, eta ama-hizkuntza halako malgutasun baten jabe izatea. Baldintza horiek nabari ziren XIX mendearen hasierako Alemanian. A. Bermanek bere aldetik hirugarren baldintza bat ezartzen dio: hizkuntza nazionalaren autoafirmazioa, nahiz eta afirmazio hori dialektikoki arrotzarekiko harreman berriaren baitan egon.

Itzulpen ez-kautoak ez du inolako arriskurik kultura eta hizkuntza nazionalarentzat, arrotzarekiko harremanik ez izatea kenduz gero. Itzulpen kautoak baditu arriskuak. Horiei aurre egiteak esan nahi du kulturak baduela konfidantza bere buruan eta asimilatze gaitasunean. Schleiermacherrek dio: «Hori artea eta neurriarekin burutzea, nork bere buruari eta hizkuntzari kalterik egin gabe, hori da agian gure itzultzaileak gainditu beharreko zailtasunik handiena»¹¹, zeren arrotza dena ama-hizkuntzan aurkezteak arriskuan jartzen bait du berak «hizkuntzaren etxeko ongizatea» (*das heimische Wohlbefinden der Sprache*), hau da, Herderek «birjintasuna» deitzen zuena bera.

Aurreraxeago, Schleiermacher berak dio: «Sarritan entzun izan dira kexuak esanez horrelako itzulpen-mota batek kalte egin behar diola derrigorrez hizkuntzaren garbitasunari eta bere barne-garapen lasaiari». Baina laster ikusten da pentsalari alemaniarrentzat ama-hizkuntza mito bat dela, zeren ez bait dago horrelako garapen isolaturik, baizik eta hizkuntzen artean askatasun-harremanez ordezkatu behar diren menpetasunezkoak bait daude. Birjintasuna gorde nahi duen alemaniera jadanik frantsesak kutsatu eta menperaturiko alemaniera da. Hain zuzen ere, itzulpenak egiten diren tokian menperakuntza gutxiago dago. Hala ere, ulergarria da brauki eta supituki egoera batetik bestera igarotzean ama-hizkuntzarekiko harremana desorekatzeko arriskua egotea, horregatik aipatzen du hizkuntza batekoa edo bestekoa izatea aukeratu beharraz «atsedenik gabe bitarte higuigarri batean flotatu nahi ez bada».

Tradizioaren kritikariak

Alemaniar aro klasiko eta erromantikoak itzulpengintzaz idatzi duenari gainbegiratu bat ematean ez dugu era batera zein bestera jarraitzen duten teoria batzuekin soilik topo egiten, baizik eta kontzientzia batekin eta gure garaiotan daukagun hizkuntzen mehatxuzentzu gutxiagorekin. Lefeverek alemaniar «tradizioaren barne-kritikaren» eratzaileen artean Grimm, Nietzsche, Vossler, Schopenhauer, Benjamin, Wilamowitz-Moellendorff eta Rosenzweig sartzen ditue-nean zera dio: «Tradizioak izan duen indarraren froga bikaina da dizipuluen kritika, nik dakidanez, barne-kritikara mugatu izana. Alemanieraz idazten duen batek ere, gaur arte, ez du serioski tradizioa alde batera uzterik eta beste batez ordezkatzetik»¹². Nietzschek itzulpena konkista gisa, Vosslerrek kultur inperialismo eta nazio-literaturaren gotorleku estrategiko bezala, Schopenhauerrek poliglotismoa eta itzulpena «hizkuntza» hobetzeko ez baizik eta «hizketa» (*parole*) ñabartzeko beharrezkotzat jotzen duenean, edota Benjaminek hizkuntza «puru» bat berreskuratu nahia edota Wilamowitzek filologiaren garrantzia azpimarratzean, Borchardtek itzulpenak zerbait jatorrizkora berriraman behar duela edo Franz Rosenzweige-k praktika teoriaren gaintetik eta konpromisuaren baliozkotasuna errei-bindikatzen ditue-nean bezalaxe, funtsean ez dute inoiz Luterorekin hasi eta dialektikoki garatuz eta sendotuz mendez-mende etorri den alemaniar tradizioa hausten.

Aipatu ditugun itzultzaile eta pentsalari alemaniar horien ekarpe-nek aski garbi adierazten dute zeinen bide luze eta neketsua ibili behar izan duen alemanierak gaur egun «hedadura txikiko hizkuntza» deitzen ditugunon antzeko egoeran aurkitzen zenetik hasi eta hedadura handiko eta erabat garaturiko kultur hizkuntza izatera iritsi zen arte. Nahiz eta beste zenbait hizkuntzaren baitako itzulpen-historian ere antzeko garapen eta dilinda dialektikoak aurkitzen diren, ez dago inondik ere guztietan pauso berak eta ere berean ematen direnik; eredu alemaniarra frantses eredu klasiko etnozentrikoarekiko kontrajartzean garatu da.

Itzulpen etnozentrikoa eta exozentrikoa

Aipatu ditugun Alemania erromantikoko itzultzaile eta pentsalarien ekarpenak kritikoki aztertzetik abiatuz, Antoine Berman traduktologo frantsesa izan da seguraski itzulpen etnozentrikoa kritika zehatz eta zorrotzena eskaini duena. 1984ean, *Collège International de Philosophie*-n zuzenduriko mintegi batean azaldu eta gerora *Les Tours de Babel* talde-obran argitaratu zuenez¹³, itzulpen etnozentrikoaren sehaska Erroman kokatzen du. Hasieratik beretik, erromatar kultura itzulpenaren kultura da. Grekoz idazten duten autore latinoen ondoren, testu grekoak itzultzen direneko aroa dator eta lur horretan errotzen da literatura latinoa. Era sinkretiko batez burutzen da kultura grekoaren formak eta hitzak latineratze hori. Zizeron eta Horazio dira itzulpen anexionista horren teorigileak lehen unean, eta Hieronimo aro kristauan bere Vulgataren itzulpena eta Pammakiori idatziriko gutunarekin. Guztiak bat datoz «zentzua» atzematea dela itzulpenaren egiteko nagusia (*sensum exprimere de sensu*).

Platonismoan oinarritzkoa den materia eta izpirituaren bereizketaren ildotik, «zentzua» atzemate hori etnozentrikoa dela aitortzen du Bermanek. Itzulpenaren helburua zentzua atzematzea dela esateak berau letratik, bere gorputz hilkorretik, zerrautsetik jaregitea dela esan nahi du. Zentzuarekiko fideltasuna letrarekiko fideltasunari kontrajartzen zaio. Letra arrotzarekiko infideltasuna norbere letrarekiko fideltasuna da. Horregatik dio traduktologo frantsesak, zentzua atzemateak beti hizkuntza baten lehentasuna adierazten duela. Bermanen iritzian, itzulpen etnozentrikoaren funtsa nork bere hizkuntza izaki ukiezin eta nagusitzat hartzean datza, zentzuaren lehentasuna oinarritzat harturik. Halako eran etxeratu eta girotu behar da zentzu arrotza, non obra arrotza norbere hizkuntzaren fruitu bezala agertu behar duen. Hortik datoz itzulpen etnozentrikoaren bi abiaburu nagusiak: obra arrotza itzulpena dela ez «sentitzeko» eran itzuli behar da; eta obrak hizkuntza hartzaileko irakurlearengan jatorrizkoak bere irakurlearengan eragiten zuen efektu berbera eragin behar du. Ondorioz itzulitako obraren «literarizazioa» sortzen da, horrela itzulpen etnozentrikoaren ondorioz obraren bertsio «hipertestuala» egiten delarik.

Antoine Bermanentzat era honetara buruturiko itzulpena auzitan jarri beharra dago. Hala ere, itzulpen etnozentriko eta hipertestuala auzitan jartzeak ez du esan nahi itzulpenak inolako elementu etnozentriko edo hipertestualik ez duenik. Hain zuzen, itzulpen orok ezinbestekoa duen alderdi etnozentriko eta hipertestuala mugatzea da egin behar dena, hau da, bertan zentzua atzemateak eta eraldakuntza literarioak zer parte duten finkatzea.

Ikuspegi horrekiko leialtasunean testuen deformazio-sistema aztertzen ahalegintzen eta «itzulpenaren analitika» deitzen duena eskainiz. Tradiziozko itzulpen literario eta filosofikoetan gertatzen den deformazioaren kritika horren ondorioz, analitika «negatiboaren» parez-pare analitika «positibo» bat ezar daitekeen ustea agertzen du, itzulpen etikora eramaten gaituena. Horrela buruturiko itzulpenak eskatzen duen egintza etikoa Bestea Beste den heinean ezagutzean eta onartzean datza, Goetheren humanismoaren eta Bildung garaiko alemaniar erromantikoen erara. Itzulpen etnozentriko ez-dialogiko, ez-etikoaren kontra **Arrotza** den hori norbere hizkuntzaren espaziora irekitzean datza, itzulpena «manifestazio baten manifestazio» bihurtuz. Bermanentzat «izpirituarekiko» fideltasuna kontraesan bat da bere baitan eta egiazko fideltasun eta zehaztasuna (*Genauigkeit*) testuaren literaltasun haragizkoarekiko bakarrik bete daitezke, Mendebaldean inoiz eta inon ez bezala Alemania erromantikoak eta Schleiermacherrek erakutsi zuten itzulpengintza etnozentrikoaren kritika errotikoa burutuz.

Errusiar itzulpengintzaren historiari begiratu bat emanez gero, XVIII mendean eta XIX mendearen hasieran garbi ikusten da nola itzulpen etnozentrikoak, Sergej Gončarenkok «*usvaivajuščij perevod*»¹⁴ deritzona — Žukovskij erabili zuen lehen aldiz *usvoit'* (ekandutu, girotu) aditza aurreko itzulpen-mota izendatzeko— bere eginbeharra —errusiera mundu-literaturaren korrontean sartzea— burutu eta piskanaka galduz joan zen. Berregituratze hori ez zen bat-batean gertatu, aitzitik, denboraldi batez luzatu zen eta 1844 urte aldera V. G. Belinskij bezalako itzultzaile eta teorigile batek polemikatan sartu behar izan zuen artean *les belles infidèles* erara itzultzearen aldekoekin. Belinskijrentzat argi eta garbi zegoen ikuspegi exozen-

triko batetik aurrez-aurre zegoen lan eskerga: mundu guztiko poesia errusieraz berreraiki beharra zegoen, baina autorearen eta jatorrizko naziotasunaren ezaugarriak errespetatuz.

Sergej Gončarenkoren iritzian, hain zuzen ere, une horretan hasten da itzulpenari buruzko teoria eta praktika egituratu eta sistematikoa Errusian, baliokidetasun semantiko eta estilistikozko eskakizunak planteiatuz eta sarritan, aurreko garaietako itzultzaileen disziplinarik ezarengatik eta sortzen ziren eztabaida gartsuengatik kontrako jarreraren aldekoak berak muturreraegi ere joaten zirelarik. Vjazemskijk zorrotz formulatu zituen «itzulpen menderatuaren» (*podcennij perevod*) abiaburu edo legeak.

Azken ondorio gisa

Edozein hizkuntzako itzulpengintzaren historia bi polo edo fidel-tasunen arteko tiranduran garatu izan da: leinu edo tribuaren «hizketako» hizkuntza «on», «umo», «goxoaren» eta poliseko premia berrietarako eskolak eta komunikabideek landutako hizkuntza berri, landu eta espezialduaren artekoan¹⁵. Polartasun hori etxekoa eta kanpooka, etnozentrikoa eta exozentrikoaren arteko tiranduran ere mami-tu da. Izan ere, hizkuntza gehienentzat ia beti leinutik poliserako bidea arrotzak zaizkion balio eta teknikak asimilatzetik igarotzen bait da.

Euskarari dagokionez, gure itzulpenak, XVI mendean, Leizarra-garen Itun Berriaren itzulpenarekin, Ljudskanov (18) traduktologo bulgariarrak aipatzen duen «hitzez hitzeko» jitearekin egiten du salto plazara, testu erlijiosoei normalean hasieratan izaten zitzaien begirune fetitxistarekin. Joera hori berori ageri zaigu XIX mendeko katexi-metan eta purismoaren garaiko testuen euskarapen kalkoz beterikoe-tan; eta 1936ko gerrate aurre eta osteko itzulpengintzan nagusitzen da «zentzuzkoa» deritzon joera, exozentrikoegitza jotzen ziren au-rreko ereduen kontrako erreakzioz.

Azken hamarkada honetako itzulpengintzak, aurrekoengan etno-zentrismoa bereziki azpimarratzeak ekarri zuen joera erredukzionis-ta gainditu, eta joera integralago baten ildotik aurrera egin nahi izan

du, azken urteotako egoera politiko berriak ekarri dituen testu pragmatiko eta informatiboen uholdea irentsiz eta literarioekin orekatu nahiz. Itzultzaile-Eskola eta SENEZ aldizkariaren eragina ezinbestekoa izan dira traduktologiazko lehen nozioak gure artean zabaltzeari dagokionez eta testu itzulien azterketara terminologia amankomunago batez hurbiltzeko.

Hala ere, oraindik urrats ugari eman beharrean gaude geure itzulpengintzaren gogoeta sistematiko bat taiutzeko, horrek eskatzen digun tradizio aintzinakoa eta hurbilekoa egosiz, dagozkien lekuak historian izendatuz, gaur esku artean ditugun arazoei zentzu kritiko orekatuz erantzun eta etorkizunari behar bezala aurpegi emateko. Herabeti bada ere euskal itzulpenaz arduratzen hasi den Unibertsitatearen laguntza ezinbestekoa izango da horretarako.

Nolanahi ere, zalantzarik gabe aitor daiteke, gure belaunaldi honi egokitu zaiola bete-betean euskal itzulpengintza «leinutik» «polisera» egokitzea eta inguruneko hizkuntza garatuekin elkarriketan bekoz beko hastea, tradizioa eta modernitatea, etnozentrismoa eta exozentrismoaren arteko tirandurek zenbaitetan kezkagarri bihurtzeraino, tradizio alemaniar, errusiar eta beste zenbait hizkuntzarenean ere gertatu izan denez. Badirudi hazteak berekin dakartzan ezinbesteko tiradura eta minak direla eta horregatik kezkagarri bihur daitezkeen arren, inoiz ez lukete alarmagarri izan behar barne kritika baten bidez oreka lortzeko mekanismoak ere sortzen ditugun heinean.

Oharrak

- 1) «Entweder der Uebersetzer lässt den Schriftsteller möglichst in Ruhe, und bewegt den Leser ihm entgegen; oder er lässt den Leser möglichst in Ruhe, und bewegt den Schriftsteller ihm entgegen». Aip. in Störig, Hans Joachim, *Das Problem des Übersetzens*, Wissenschaftliche Buchgesellschaft, Darmstadt, 1969, 47 or.
- 2) «Übersetzen heisst zwei Herren dienen». Störig, op. cit., 194 or.
- 3) Berman, Antoine; *L'Epreuve de L'Etranger. Culture et Traduction dans l'Allemagne romantique*, Gallimard, Paris, 1984, 15 or.

- 4) Berman, op. cit, 17 or.
- 5) Lefevere, André; *Translating literature: the German tradition from Luther to Rosenzweig*, Approaches to Translation Studies, nº 4, Van Gorcum, Amsterdam, 1977, 1 or.
- 6) Lefevere, op. cit., 7 or.
- 7) Lefevere, op. cit., 22 or.
- 8) Lefevere, op. cit., 27 or.
- 9) Störig, op. cit. , 35 or.
- 10) «Ironically this idea has become a reality (or at the very least a near-reality in our century, but the languages are English and Russian, not German». Lefevere, op. cit., 46 or.
- 11) «...dieses mit Kunst und Mass zu thun, ohne eigenen Nachtheil der Sprache, dies is vielleicht die grösste Schwierigkeit die unser Uebersetzer zu überwinden hat». Aip. in Störig, op. cit., 55 or.
- 12) «It is eloquent proof of the strength of the tradition that the criticism of the disciples has, as far as I know, been limited to internal criticism only. No one writing in German has, to the present day, seriously proposed abandoning the tradition and replacing it with a new one». Lefevere, op. cit., 1 or.
- 13) Berman, Antoine; «La traduction et la lettre - ou, l'auberge du lointain», in *Les Tours de Babel*, T.E.R., Mauvezin, 1985.
- 14) Gončarenko, Sergej F.; *Ispanskaja poezija v russkich perevodach*, Progress, Moskva, 1978, 939 or.
- 15) Mallafre, Joaquim; *Llengua de tribu i llengua de polis: bases d'una traducció literaria*, Quaderns Crema, Assaig, Barcelona, 1991.
- 18) Ljudskanov, A.; *Traduction humaine eta traduction mécanique*, Dunod, Fasc. I, Documents de Linguistique quantitative, 2, 4, Paris, 1969.

SINTESIS

La tradición de la traducción alemana

Uno de los problemas que han sido mayor objeto de discusión a lo largo de la historia de la teoría de la traducción ha sido precisamente el de los dos polos o fidelidades entre los que debe moverse el traductor -la obra original y la lengua de llegada-. Difícilmente puede encontrarse una tradición tan larga y rica como la alemana que haya debatido este problema y que haya buscado denodadamente sus posibles soluciones. Este artículo hace un repaso a esta tradición, y muestra hasta qué punto elaboró una conciencia de las tensiones y realidades creadas por el debate entre etnocentrismo y exocentrismo.

Pero en este artículo, el autor se vale de la tradición alemana para analizar la situación actual de la traducción en lengua vasca. Así, comienza señalando cómo nuestra tradición comienza en el s. XVI con un apego literal al texto y a la lengua de partida, tendencia ésta que no se romperá hasta los años anteriores y posteriores a la guerra civil española; es entonces cuando como reacción contra los antiguos modelos exocéntricos se impulsará la traducción según el sentido, cayendo no pocas veces en la tentación etnocentrista. Durante estos últimos años, en cambio, se ha ido desarrollando un tipo de traducción más equilibrada entre ambos polos, pero no sin grandes dificultades, ya que las generaciones actuales de traductores vascos se han visto en la necesidad de dar el salto de la «tribu» a la «polis» -salto que otros pueblos dieron con bastante anterioridad- en lo que se refiere a la adaptación de la traducción y al propio desarrollo de la lengua vasca, situada entre lenguas muy evolucionadas. En este proceso siguen saliendo a la luz tiranteces entre la tradición y la modernidad, entre el etnocentrismo y el exocentrismo, al igual que sucedió en su momento en otras lenguas. Pero, como señala el autor, dichas tiranteces no son más que el dolor que conlleva el crecimiento, y aunque podrían ser motivo de preocupación, nunca deberían alarmarnos en la medida en que creemos los mecanismos adecuados para mantener el equilibrio necesario por medio de la crítica.

ABSTRACT

The Tradition of German Translation

One of the most important topics for discussion throughout the history of the theory of translation has been the faithfulness of the translator to the original work and the target language. It would indeed be difficult to find a tradition as long and rich as the German, which has debated this problem and which has searched resolutely for possible solutions. This article reviews this tradition and shows to what extent it developed an awareness of the tensions and realities created by the debate between ethnocentrism and exocentrism.

But in this article, the author uses the German tradition to analyze the present situation of translations in the Basque language. He starts by indicating how our tradition began in the XVI century with a literal rendering of the text and the source language, a tendency which would not be broken until the years before and after the Spanish Civil War. It was then that, as a reaction against the old exocentric models, encouragement would be given to translating according to the sense, succumbing on various occasions to the temptations of ethnocentrism. During recent years, on the other hand, a more balanced type of translation has been developed between these opposing ideas, but not without some difficulties, as present generations of Basque translators have been obliged to make that jump from the «tribe» to the «polis» -a jump which other peoples made quite some time ago- with regard to the adaptation of the translation and to the development of the Basque language itself, which is placed among highly-evolved languages. Within this process, there continues to be strain between tradition and modernity, between ethnocentrism and exocentrism, as happened previously with other languages. But, as the author points out, these strained relations are no more than growing pains and, although they might be a reason for preoccupation, they should never alarm us to the extent of creating the adequate mechanisms for maintaining the necessary equilibrium by means of criticism.

Joxe Austin Arrietarekin solasean

Lurdes Auzmendi

Joxe Austin Arrieta donostiarra da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak urtero ematen dituen Euskadi Sarien barruan aurten itzulpenarena irabazi duena. William Golding-en *Eulien ugazaba* itzultzeagatik eman diote saria. Gure zorionik beroenak beraz.

Filologia Erromanikoan lizentziatua, 42 urte ditu eta 1982tik Gipuzkoa Kutzako itzultzailea da. Hor egiten duen lanaren fruituen artean UZEIrekin batera argitaratutako *Aurrezki-Kutzak* hiztegia aipatu behar da. EUTG eta Deustuko unibertsitatean irakaslea izana, bere idazle eta itzultzaile lanagatik da ezaguna gure artean.

1978an *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* liburua argitaratu zuen eta 87an *Manu militari*. Hiru poema liburu ere argitaratuak ditu: *Arrotzarena eta neurtitz neurgabeak* (1983). *Bertso paper printzatuak* (1986) eta *Mintzoen Mintzak* (1989). Literatur itzulpenak berriz bi: Marguerite Yourcenar-en *Hadrianoren oroitzapenak* (1985), eta orain saritua izan dena, Golding-en *Eulien ugazaba* (1990). Azken itzulpen honegatik ere, iaz Bizkaiko Foru Diputazioak itzulpen saria eman zion.

Saritutako liburuaz eta itzulpenaz orohar galdera sorta bat egin diogu Joxe Austin Arrietari.

* * *

– Zergatik aukeratu zenuen obra hau, hala lehenik autorea jo zenuen begiz?

Obra bera aukeratu nuen, eta neurri batean, gainera, kasualitatez. Alde batetik, nere ingeles kaskarra nahi nuen landu, hizkuntza pasibo bezala -irakurtzeko soilik erabili dudana hizkuntza hau jorratu nahi nuen-. Lagun bati galdetu, eta berak irakurri berria zuen liburu hau gomendatu zidan. Joxe Antonio Azpiroz da lagun hori, geroztik ere asko lagundu didana itzulpenarekin, nik lana egin ahala berari erakutsi, berak jatorrizkoarekin zorrotz alderatu, eta horrela ikaragarri lagundu bait dit.

Liburua irakurri eta asko gustatu zitzaidan; nahiko pesimista eta gogorra da, baina atentzioa deitu zidan bere literatur balioengatik eta duen maila sinbolikoarengatik. Metafora isil baten gisara edo, Euskal Herriaren isolamendu etniko-sozio-politikoarekiko lotura ezkonziente antzeko bat sortu zitzaidan, eta beraz interes handiarekin irakurri nuen, bai maila pertsonalean eta behar bada baita kolektiboan ere.

Bestalde, literatur itzulpengintzan, Marguerite Yourcenarenarekin konparatuz, estilo erabat diferenteko zerbaiti ekin nahi nion, neure burua, edo neure luma deskribapen zehatzagoko eta periodo sintaktiko motzagoko estilo batean trebatuz.

– Zenbat denbora eraman zizun itzulpenak orotara?

Hasi, uste dut 88an hasi nintzela, eta bukatu iaz, korrika eta presaka bukatu ere. Anekdotak bezala ez da kontatzeko itsusia: ELKAR argitaletxeak eskatu zituen itzulpen eskubideak, eta pare bat urteko epea eman zieten liburua argitaratzeko. Epea pasatu eta erreklamazioa etorri zitzaion liburua argitaratu gabe zegoelako. Lehenbailehen bukatu egin beharko nuela esan zidaten, beraz. Akuilu polita, ikusten duzunez. Orduak ezin ditut kalkulatu, nolanahi ere ehundaka ordu

asko sartu nituen eta kolpe diferenteetan gainera. Hasieran, ohi de-
nez, berotasunaren garrarekin hiru bat kapitulu egin nituen, gero li-
burua utzi eta luzaroan ez nuen ikutu ere egin, beste hamaika egin-
kizunetan sartuta. Guztira, hiru epe edo fase diferentetan burutu nuen
lana.

- Eta epeka egiteari arazorik aurkitu al diozu?

Bai, aldika egindako lan horietan, etenaldi luzeegi bat gertatu baldin
bada, zerorrek ere ez dituzu erizpide berberak erabiltzen, kontraesa-
netan erortzen zara askotan hiztegiaren aldetik, etab. Ondorioz,
orrazketa lana zaildu egiten da, zeren agian lehen kapitulu hitz bat
erabili baduzu, baliteke zazpigarrenean hitz bera erabili ordez beste
sinomino baten bitartez ordaina ematea. Desorekarako arrisku dextente
dago, beraz.

Marguerite Yourcenarena uste dut jarraituago egin nuela, eta bere
akats edo bertuteekin, zuzenketa lanak egiterakoan ez nuen hainbes-
terainoko arazorik izan, hiztegiaren aldetik, behinik-behin. Goldin-
gen liburu honetan, hiztegia, deskribapenen aldetik, bihurriagoa eta
puntillistagoa da, kontzeptu abstraktoak ez dira hain ugari, baina bai
adibidez *erliebe* geografikoari edota pertsonaien mugimendu eta kei-
nuei, edo argiaren paisaiaren gaineko efektuei dagozkienak.

Gainerako arazoen artean, betikoa bada ere, aditz trinkoen buru-
hauste eternoa aipatuko nuke, endemas ingelesa den bezalakoa izaki.
Dena den euskarak baditu bere baliapideak horretan: partizipio hu-
tsen erabilera, laguntzailea elidituz, eta abar. Hain zuzen ere, poztu
egin nintzen, sari hau eman zidatenean prentsan azaldu zen aipame-
nean hori azpimarratzen zutelako, narrazioaren erritmoari eusten niola,
alegia, bizitasun hori senez jaso eta gauzak ahal dela laburtzen saia-
tua nintzela.

Literaturtasun fonikoa zaintzen ere saiatu naiz: adibidez, *landareria*
astindu zen jarri beharrean *landareria iharrotsi* zen jarri dut, jato-
rizko *shake* delakoaren antzekoagoa, nire eritziz; hau da, mimetis-
mo foniko horiek, Goldingek nire ustez oso ongi zainduta dauzka-

nak, nik neuk ere nolabait jasotzen saiatu naiz, narrazio bat izan arren, eta ez poesia: jakina denez, poesian askoz ere gehiago zaindu behar dira horrelako gauzak, baina prosan ere bai, ahal den neurrian, nik uste.

– Itzulpenean aurkitutako arazo batzuk, lexikoarena adibidez, aipatu dituzu, baina zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

Uste dut euskal itzultzaileok badugula arazo oinarritzko eta ia-ia estruktural bat: hiztegiz hiztegi saltoka ibili beharra. Orain badago ingeles-euskara hiztegi bat, baina artean ez zegoen halakorik; oraingoa ere ez dakit zein neurritan izango ote den literatur itzulpenerako erabilgarri, ez dut oraindik probarik egin. Orain arte behintzat, hauxe da euskal itzultzaileoi dagokigun patua: irakurtzen duzu jatorrizko testuan halako hitz bat, bere esanahia edo adiera zehatza ez dakizuna —*cliff*, demagun—, begiratzen duzu ingeles-gaztelera hiztegian —*acantilado* azaltzen zaizu—, eta azkenik Placido Mujikarenean edo bilatu behar duzu euskarazko ordaina... Lan nekoso da.

Hiztegien artean saltoka ibili behar horrek luzatu eta zaildu egiten du prozesua, eta askotan gaztelera-euskara hiztegiek ere badakigu zer nolako zehatzgabetasuna izan ohi duten. Nik neuk, behintzat, berme bila beti jotzen dut Azkuerengana, edo Ibonen hiztegiara, baina Ibonen hiztegia ere oraindik amaitu gabe dago... Kuestioa da, liburua bukatu ondoren konturatzen zarela beharbada hitz hori gaizki erabili duzula; adibidearekin jarraituz, *cliff* uste dut *troka* bezala itzuli dudala liburu osoan, *labar* beharko zukeela konturatu gabe. Hiztegiaren joritasun hori izan dut buruhausterik handiena lan honetan. Yourcenarrenean agian gehiago erreparatu nion esaldien taiukerari, sintaxiari, erritmoari; baina Goldingen honetan, aldiz, hiztegia izan da, dudarik gabe, Diogenesen kriseiluarekin bila ibili behar izan dudana, eta batzutan, noski, zalantza frankorekin.

Adibidez titulua dela eta, batek baino gehiagok esan dit ea *ugazaba* nondik atera dudana, ingelesezko *lord* adierazteko. Kurioso da, frantsesez *Sa majesté des mouches* du izenburua, gaztelera eta katalanez ere *El señor/senyor*. Eta esaten didate, nola jarri duk ugaza-

ba? Ugazaba gaur egungo euskaran, badakigu «nagusia» dela, baina nere ingeles filologia pittinaren arabera, *lord* hitzaren etimologia zera da, «ogi banatzailea», jaun feudala, klaneko burua; eta gure «ugazaba» halakoxe zerbait omen zen, Mitxelenak zioenez, ahaide nagusia, euskal klan zaharretako «padrinoa». Horregatik, itzulpenean, Jainkoaren genesi sozialaren nolabaiteko mitologiaren adierazgarri denez gero, *ugazaba* egokiagoa iruditu zitzaidan.

– Itzulpenari egindako kritikaren batek lexikoaren zailtasuna azpimarratzen zuen hain zuzen. Hiztegia edo hiztegiak erabili beharrik gabe irakur daitekeen liburua ez da izango askorentzat, baina egin al daiteke liburu horren itzulpen on bat lexikoan hainbeste murgildu gabe?

ELKAREkoek zer planteatu zidaten, orri azpiko oharra jartzeko kontua, edo eraskin gisara hiztegitxo bat antolatzea. Buelta asko eman ondoren horrelakorik ez ateratzea erabaki genuen. Izan ere, ze kulpadugu *reef* edo *arrecife* delakorik Euskal Herrian ez baldin badugu... Egia da katramilak pasatzen dituzula euskaraz hori nola den jakiteko, baina Plazido Mujikak *baizadia* jartzen badizu, hamar aldiz irakurri ondoren, uste dut irakurlea testuinguruagatik konturatzen dela azkenean *koralezko baizadia* «arrecife de coral» izango dela, eta jabetzen ez bada, ba kontsultatu egin beharko hiztegia, ze erremedio.

Dena den, kritika batzu aipatu dituzunez, gauza bat behintzat garbi utzi nahi nuke: liburu hau ez da zenbaitek esan duenez umeez irakurtzeko moduko liburu «erraxa»; inola ere ez. Bertako protagonistak haurrak eta mutil koskorrak dira, baina ez da inondik ere liburu irakurterraza.

– Eta esperientzia hau idazle batentzat, nolakoa da?

Nik uste dut, «atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu» esaldia-ren parodia bat eginaz nahi baduzu, itzulpenak erakusten duela idazketa nola egin, neurri handi batean behintzat. Itzulpenak jartzen digun listoi horri aurrez-aurre ekin artean askotan ez gara konturatzen zein erregistro mugatuz mugitzen garen euskarazko literatur sorkuntza egiterakoan. Nik bi literatur itzulpen hauen bitartez ikaragarri ikasi

dut, euskara bera ere bai, noski. Ez naiz damutzen lan horiek egin izanaz, eta uste dut euskal literaturgintzan aritu naizela hori egitean.

Nere orain arteko esperientziak, bai literatura itzultzean eta baita Kutxan egunero-egunero egin behar izaten dudan lanean ere —gehienetan testu juridiko-ekonomiko edo eskutitz erabat komertzialak itzultzeak, honek ere egunero ematen dizu halako erritmo edo ohitura bat, eta ez nuke gutxietsi nahi—, baina bereziki literatur itzulpenak sortze lanaren ezinbesteko osagarri bezala ikusten ditut. Esate baterako *Bertso paper printzatuak* liburua ez nukeen hala idatziko aurretixe Yourcenarren itzulpena egin izan ez banu. Itzulpenek emandako trebeziak eta haietan sintagmak trinkotzen egindako entrenamenduak zuzeneko islada izan du nere ondorengo sortze-lanetan. Literatur sorkuntza eta itzulpengintza elkar elikatzen duten bi lan osagarri dira erabat, eta literaturtasunaren ikuspuntutik balio berekoizat jotzen ditut.

– Eta idaztea ala itzultzea, zer zaizu errazagoa?

Nik uste dut sortze lanak desgaste psikiko handiagoa dakarrela, baina errazagoa da aspektu zehatz batean, alegia, gure ohizko erreferentzia kultural eta linguistikoetatik abiatzen garelako eta baita gure literatur tradizioaren mailatik ere. Aldiz, horrelako liburuak itzuli beharrak izugarrizko entrenamendua egitera behartzen zaitu, eta diziplina handiagoa ere eskatzen dizu, beharbada.

– Lehen esan duzu jatorrizko testuaz gain beste hiru itzulpen ere erabili dituzula zure lanean. Zer iruditu zaizkizu beste hizkuntzetara egindako itzulpen horiek?

Konturatu nintzen, harridura dextenterekin gainera, hizkuntza normalizatu eta guztiz finkatu horietan itzultzaileek oso askatasun handia darabiltela itzultzean; frantses itzulpenarena oso kasu nabarmena da, titulutik hasita; ez da errespetatzen ezta puntuazioa ere, esaldiak berak askoz era anpuloosoagoan itzulita daude, eta erabat libre. Honekin ez dut ez ezer eta ez inor justifikatu nahi, baina agian guk egiten duguna ez da hain txarra; baliteke gu zenbaitetan aitasantua baino santuago izatea, hiperkritikoak, alegia.

– Azken urte hauetan salto handia eman da literatur itzulpenean; gero eta gehiago itzultzen da, baina kalitatea kanti-tatearen pare al dago?

Nik azkeneko hiru urte hauetan hurbiletik ezagutu dudana literatur itzulpenaren lagin bat hemengo «Orixe» sarira aurkezten diren proiektuak dira. Urtero irakurtzen ditut eta alde handiak nabaritzen dira; berehala nabaritzen zaio esperientzia duen eskuari eta zirriparraka ari den hasi berriari edo euskara behar bezala menderatzen ez duenari. Baina nik esango nuke dozena bat literatur itzultzaile oso onak baditugula Euskal Herrian, eta produzio aldetik ere horiek dira gehien argitaratzen dutenak.

– Administrazio, irakaskuntza eta beste alor batzutarako erizpide finkaketa ahalegin bat dagoen bezala, literatur itzulpenarako ere erizpideak hurbiltzeko premiarik ikusten al duzu?

Administrazio mailan egiten ari den hizkuntza ereduen finkaketa, nik ez dakit zein neurritan den kontrolatua eta erizpide finkatuen bitartez egindakoa; neurtu beharko litzateke zenbateraino IVAPetik edo beste erakundeetatik ematen diren erizpide bateratu horiek. Nik hemengo (Kutxako) esperientziagatik diot, frankotiradore gisara gabiltzalako neurri handi batean. Eskerrak UZEI hor dagoen, zeren hizkuntza teknikoaren alorrean nik behintzat aitortzen dut UZEIren kumea naizela, UZEIk markatutako erizpide terminologikoen arabera funtzionatu izan dudala. Baina hori terminologiari dagokionean bakarrik, hizkuntza askoz zabalagoa da ordea, eta hor daude adibidez sintaxi problemak, eta horietan ahal duenak ahal duena egiten du, bere kasa. Dudarik gabe beharko litzateke halako estruktura bat, borborrean eta han-hemenka egiten diren esperientzia guzti horiek bateratuko lituzkeena. Adostasun batera iritsiko litzatekeen erakunderen bat. Hori nere ustez Unibertsitatean edo Itzultzaile Eskolan —goian bego— edo antzeko erakunde ofizialki aintzat hartutako eta hornitutako batean egin beharko litzateke, esperientzia guztien mintegia izango litzatekeen leku batean, eta noski bedeinkazio guztiekin, Euskaltzaindiatik hasita. Horrelakorik ez dagoen bitartean, ahal du-

gun bezala jarraitu beharko dugu. Funtzio sozial nahi baduzu landuagoetan beraietan ere, ikastoletako testugintzan adibidez, askotan hizkuntza oso txepela, oso pobrea erabiltzen bait da. Mailaz-maila eta alorrez-alor ikusi beharko genuke, eta batuketarako saio eraginkorragoak egin. Baita literatur itzulpenaren alorrean ere, nahiz eta hor, literatur hizkeraren berezitasunak halakoak izaki, seguraski barreriadura, sakabanaketa edo eritzi aniztasuna beharbada ugariagoa izango litzatekeen, baina saiatu egin beharko ginateke.

* * *

Itultzaile-idazle ziklikoa da Joxe Austin Arrieta, beti tartekatu ditu literatur itzulpenak eta sormen lanak. Berak adierazi digunez, orain sormen lanari ekitea tokatzen omen zaio.

SINTESIS

Entrevista a Joxe Austin Arrieta

El escritor y traductor donostiarra Joxe Austin Arrieta ha sido galardonado este año con el Premio Euskadi de traducción, otorgado por el Gobierno Vasco, por su traducción de la obra «The Lord of the flies», de William Golding. Aprovechando este acontecimiento, hemos querido conversar con él sobre dicha obra, y sobre la traducción en general.

Sobre la obra galardonada, Arrieta comenta que se decidió a traducir dicha novela por sus valores literarios y también porque inconscientemente estableció un paralelismo entre la narración y el aislamiento étnico-socio-político del País Vasco, pero también por el deseo de traducir una obra estilística y sintácticamente diferente a las traducciones literarias que hasta el momento había realizado. La tarea emprendida no fue fácil, debido, entre otros motivos, a la gran riqueza léxica que encierra y a las dificultades con que se enfrentan inevitablemente los traductores vascos, al carecer -al menos en aquel momento- de diccionarios inglés-euskara.

La experiencia, no obstante, ha sido enriquecedora, según afirma Arrieta, incluso desde el punto de vista del literato que es, ya que la traducción literaria supone un necesario complemento del trabajo de creación, una especie de entrenamiento basado en una gran disciplina.

En cuanto a la traducción en general que se realiza en lengua vasca, Arrieta opina que existen en nuestro país una docena de excelentes traductores literarios, que son precisamente los que suelen publicar con asiduidad. La situación de este tipo de labor literaria en el País Vasco hace que no exista quizás una aproximación de criterios entre los propios traductores, que podría ser beneficiosa, como se ha demostrado en el caso de la traducción administrativa. Para Arrieta, en la traducción literaria existe una mayor y lógica dispersión o pluralidad de criterios, aunque considera que siempre sería interesante hacer un esfuerzo para acercar los modelos lingüísticos utilizados por los diferentes profesionales.

Finalmente, Joxe Austin Arrieta comenta que es un escritor-traductor cíclico, y que después de traducir a Golding tiene en mente dedicarse a la labor de creación literaria.

ABSTRACT

Interview with Joxe Austin Arrieta

The writer and translator from San Sebastian, Joxe Austin Arrieta, has been awarded this year's Price for Basque Translation by the Basque Government for his translation of the book «The Lord of the Flies» by William Golding. On the occasion of this award, we wished to talk to him about this work and the subject of translation in general.

Concerning the award-winning translation, Arrieta comments that he decided to translate this novel due to its value as literature and also because, unconsciously, it established a parallelism between the narration and the ethnical-social-political isolation of the Basque Country, but also because of his desire to translate a novel which is stylistically and syntactically different from the translations of literature which were made before then. The work embarked upon was not easy due, among other reasons, to the high lexical wealth of its contents and to the difficulties encountered, inevitably, by Basque translators, in view of the non-existence, at least at this time, of English-Basque dictionaries.

Nevertheless, Arrieta states that the experience has been enriching, even from his point of view as a writer, in view of the fact that the translation of literature represents a necessary, complementary activity to the work of creation, a kind of training based on high discipline.

Regarding translations which are generally made into the Basque language, Arrieta believes that there are a dozen excellent translators of literature in our country and these are the people, precisely, who publish on a regular basis. The situation of this type of literary work in the Basque Country is the reason, perhaps,

for the diversity of criteria which exists between translators themselves, who might benefit from a greater level of cohesion, as has been demonstrated in the case of administrative translation. Arrieta believes that, logically, there is a higher dispersion or plurality of criteria in the translation of literary texts, although he considers that it would always be interesting to make an effort to bring together the linguistic model used by different professionals.

Finally, Joxe Austin Arrieta comments that he alternates his activities between writing and translating and that after translating Golding he is planning to dedicate himself to the work of literary creation.

Txekieratik euskaratzeak sortzen dituen hainbat buruhauste

Karlos Cid Abasolo

Bohemia eta Euskalerrriaren arteko kultur harremanik eza historikoa dela-eta, txekiera euskaratzeko metodologia ez dago batere landurik, gutxi baitira bi hizkuntzok nola edo hala ezagutzen dituztenak: txekiarren artean, Norbert, Tauer, Prahako unibertsitateko irakasle zena, eta Bohumil Zavadil, gaurregun unibertsitate horretan euskara irakasten diharduena. Euskaldunon artean, nik dakidala, ni nerau, Prahari bi urte bizi izanari esker. Azken bolada honetan, Tauerrek urratutako bideari ekin nahi eta txekiar testuren bat euskaratzen jarri naiz. Jardun horretan aurkitu ditudan zenbait oztopo (eta, batzutan, baita balizko irtenbideak ere) erakusten saiatuko naiz segidako lerroetan, txekierari buruz esanak beste hizkuntza eslaviarrei ere aplikatu dakizkiekeelakoan.

Artikuluska hau egiterakoan hiru dira erabili izan ditudan liburuak: Jaroslav Hašek-en *Osudy dobrého vojáka Švejka za světové války* 'Šveik soldadu onaren menturak munduko gerran', Bohumil Hrabalen *Já jsem obsluhoval anglického krále* 'Nik Ingalaterrako erregea zerbitzatu nuen', eta Milan Kunderaren *Žert* 'Txantxa'.

1.- Txekiera mintzatua eta txekiera idatzia (literarioa)

Txekiar literatura edozein hizkuntzataraz itzultzerakoan, aintzakotzat hartu behar da, ahal den neurrian, txekiar hizkera eta idazkeraren

arteko «amildegia», hizkuntzaren arlo guztietan somagarri: lexikoan (geroago ikusiko dugun bezala), morfo-fonologian, sintaxian, etab. Idazle bakoitzak badu bere idazkera, eta, esate baterako, esan dezakegu Hrabalek oso gustukoa duela herri-hizkera (hizkuntzaren arlo guztietan) erabiltzea, eta Kunderak, aitzitik, literatur-ereduari eusten diola. Bestalde, idazlerik gehienei dagokienez, oso ohizkoa da narraztailearen ahotsean txekiera literarioa erabiltzea, eta elkarriketetan herri txekiera. Isladatu behar al du itzulpenak halako amildegia? Bai horixe. Hrabalen testu baten itzulpena oso borobildua bada, garbia, gramatika-okerrik gabea, eta joskera konposatuaren legeak goitik behera eta txitean-pitean errespetatzen dituen, itzulpen kaxkarra izango da oso. Hrabalen gurpil zoro eta, gehienetan, hordituan sartu beharrean kanpotik begiratzen badugu bere literaturgintza (eta kanpotik itzultze-lanetan ihardun), gureak egin du.

Lexikoa

Lehenengo eta behin, hiztegi-kontuak aipatu behar. Oker ez bana-go, Euskaltzaindiako liburutegian Tauerren hiztegi bat dago, txekiera-euskara, argitaratu gabea. Ez dut oraindik eskuhar eduki, eta beraz ezin horretaz eritzirik eman. Erabili izan ditudan hiztegiak txekiera-espainierazko bat (Josef Dubský-rena, oraingoz dagoen bakarra), eta txekiera-txekierazko hiru izan dira, bata zein besteak Txekoslovakian eginak. Txekiar literatura espainierara itzuli dutenek txekiera-espainierazko hiztegi hori besterik erabili ez badute, nahiko zalan-tzazkoak izan behar hortik ateratako itzulpenak. Nik neuk bi hiztegi-mota horiek erabili ohi ditut: lehendabizi, txekiera-txekierazko hiztegi-tara jotzen dut, eta definizioarekin bat letorkeen euskal hitza aukeratu. Bestela, txekiera-espainierazko hiztegia erabili behar, txekiar hitzaren baliokide espainiarra euskaratuz.

Harrigarria da, bene-benetan, txekierak lexiko aldetik duen aberastasun aparta, jatorri askotarikoa: eslaviarra, alemandarra, latindarra, grekoa, frantsesa (ohar gaitezen frantses kulturak Txekoslovakia-ko lehenengo Errepublikan erdietsi zuen garrantzi ikaragarriaz) eta, azken urteotan batipat, baita ingelesa ere. Halaber, badu aberastasun honekin

zerikusirik aipatutako txekiera mintzatua eta idatziaren arteko «amildegiak». Txekiar idazle batek, bere garaiak edo bere nahiak eraginda, honelako edo horrelako hiztegia erabiltzen duenean, batez ere erabilera hori berariazkoa denean, edozein itzultzailek senperrenak egin behar ditu jatorrizko testuaren hitz-aukeraketa hori itzulpenean isladatzeko. Ikus ditzagun, adibide-gisa, ondoko hitz pareak:

kino - biograf 'zinea'
 deštník - paraple 'euritakoa'
 nunvář - zvěrokleštic 'zikiratzailea'
 dům - barák 'etxea'
 dívka - holka 'neska'

Pareetako hitz bata edo bestea aukeratzeak badu ñabardura berezirik:

	mailegua	indarrean	arrunta
kino	+	+	
biograf	+	-	
deštník	-	+	
paraple	+	-	
nunvář	+	-	
zvěrokleštic	-	+	
dům	-	+	-
barák	-	+	+
dívka	-	+	-
holka	-	+	+

Maileguon jatorriak hauexek dira: alemaniera (**kino**), grekoa (**biograf**), eta frantsesa (**paraple**). Pareetako hitzen artean beti egoten da ezberdintasunik; indarrean egotea ala ez (**kino-biograf**, **deštník-paraple**), mailegua izatea ala ez (**deštník-paraple**), edo txekiera idatziarena ala mintzatuarena izatea (**dům-barák**, **dívka-holka**).

Hemen aztergai diren Hašek eta Hrabalen liburuetan, adibidez, parra-parra aurki daitezke alemanieratiko maileguak, elaberriro istorioen garaiaren hizkera eta idazlearen idazkera bat etor daitezen, zer kontatzen den eta nola kontatzen denaren artean behar adinako bata-

sunu egon dadin. *Šveik*-eko pasadizoak Bohemiak Austriaren menpe segitzen zueneko garaian gertatzen dira, Txekoslovakia sortu aurreko bosturtekoan hain zuzen ere. *Šveik*-en, kargu militarrek aipatzekoan, pareetako hitzen artean aukeratzekotan, alemandar kutsuko hitza aukeratzen da: «lugarteniente» esateko ez da *místodržitel* esango, *obrlajtnant* baizik: izan ere, Hašek-ek Austriaren alde burukatu ziren soldadu txekiarren ahotan ez du txekiera «garbia» jartzen, baizik eta soldaduok, errealtatean, erabiltzen zuten txekiera mordoilo hori. Hrabalen liburuarekin beste horrenbeste gertatzen da, eta horrexegatik lepora dakioke espainierazko itzulpenari «lauegia» izatea, gaurrengo espainierari estuegi loturik egotea: *biograf* «cine» itzultzen da («cinematógrafo» egokiagoa bide litzateke), eta *štamgast* «cliente habitual» edo «habitual». Aitortu behar da itzulpenetan ezinezkoa dela lexikoaren *ñabardura* guztiak isladatzea (batez ere hitz-pare horiek baliokiderik ez dutenean), baina ahal den guztietan nabaritu behar da itzultzailearen ahalegin hori. Euskaraz ere konponbideak ez dira aise aurkitzen, batipat hizkera mintzatu eta idatziaren amildegi lexikoaren aldetik. Euskaraz, amildegi hori gehiago antze-man daiteke laburduretan edo sintaxi kontuetan, baina ez txekieran bezala, hitz-pareen bidez. Hiztegi aldetik, euskaraz ez da herri hizkera txekieraz beste bilakatu, eta *dům* zein *barák* esateko, hitz bakarra dugu: «etxea»; *dívka* zein *holka* esateko ere, hitz bakarra: «neska». Beste zenbait hitz-pareri dagokionez, ordea, euskarak badu aukera bikoitza, hots, euskal hitza eta erdaratiko mailegua, «euritako»/»guardasol» pareia kasu. Esan genezake *děštník* (*děšt* 'euri' + *ík* 'gailu') «euritako» dela, eta *paraple* «guardasol».

Fonetika eta Morfologia

- a) txekiera mintzatuan ondoko lege fonetikoa aurkitzen dugu: hitzaren lehenengo hizkia (o) bokala denean, aurrean (v) agertzen zaio.

okno 'leiho' → vokno

- b) hizkera mintzatua (h.m.) eta idatzia (h.i.) ez datoz bat izen, izen-lagun eta aditzaren deklinabidearen aldetik.

knihami (h.i.) **knihamá** (h.m.) 'liburuez'

kupuji (h.i.) **kupuju** (h.m.) 'erosten dut'

pěkny (h.i.) **pěkněj** (h.m.) 'eder' (nom., sing., gizonezk.)

- d) «Gizon» eta «emakume» esateko, h.i.-ak forma substantiboak hartzen ditu: h.m.-ak, ordea, substantibootatik eratorritako adjetibozko formak («gizonezko» eta «emakumezko»), izen-lagunek h.m.-an daukaten paradigmari jarraikiz.

muž (h.i.) **mužskej** (h.m.) 'gizon'

mužský (h.i.) 'gizonezko'

- e) -ák atzizkia hizkera mintzatuari dagokio. Atzizki horrekin hitz-piloa sortu da.

magnetofon (h.i.) **kazet'ák** (h.m.) 'cassette'

listonoš (h.i.) **post'ák** (h.m.) 'postari'

Txekiar hizkera mintzatuak eta idatziak fonetikan eta morfologian erakusten dituzten aldeok ere nolabait isladatu behar euskarazko itzulpenetan. Gorago esan bezala, euskaraz, «amildegi» hori laburduretan eta syntaxian ikusten da batipat. Txekiar literaturan hizkera mintzatua besterik gabe ematen da (batez ere elkarriketetan), inolako egokitasunik gabe, hizkuntz-maila guztietan (fonetikan, morfologian, lexikoan...). Euskaraz ez dago, dirudenez, bide horri eusterik, literatur tradizioari begira froga daitekeenez. Egia da literatura zaharrean halako joera aurki daitekeela, baina euskal literatura berrian ez da halako joerarik nabaritzen: elkarriketetan ez da, kasu, bokal arteko [g] edo [r] inoiz galtzen, eta deklinabidean oso bakankakoak izaten dira euskara batutik kanpoko formak, bai aditzean, bai izenean. Euskal idazleek muzin egiten diete «ezautzeittut» eta halako laburdura ahozkoiei. Hortxe dago, hortaz, gakoa: «amildegia» euskaraz isladatu, baina euskal tradiziotik urrundu gabe. Ikus dezagun ondoko adibidea (Hašek:III):

- Je vozralej.

Esaldi honek badu ahozko hizkuntza mintzatuko hiru ezaugarri, lehenengoa lexiko mailakoa eta azkenengo biak morfologi mailakoak direlarik: 1/ **ozrat se** aditz itsusia da, 'mozkortu' esan nahi duena; 2/ gorago aipatutako lege fonetikoa aplikatu zaio; 3/ kasu-morfema, **-ej** alegia. Adibide honi dagokionez, zilegi da euskaraz ere hiru ezaugarriok aplikatzea, emaitza (besteak beste) ondoko hauxe litzatekeelarik:

- Total eñie do.

Kontua da, lehenago esanak garen bezala, euskara mintzatuaren berezitasun morfologikoak arras baztertuak izan direla euskara idatziaren tradizioetik. Beharturik gaude, beraz, alderdi lexikora mugatzera.

- Total egina dago.

2.- Izen sintagma.

Jakina denez, euskaraz, izen-laguna adjetiboa denean, izenaren eskuinean agertu ohi da. Txekieraz, ordea, ezkerrean. Bestalde, txekieraren adjetibo-sintagmak aditz-lagun itxurako osagarriak eduki dezake, esaterako (Kundera: 38):

(...) *dívka* (...), *duvě řivě prostoduchá*kk

'(...) *neska* (...), *fidatuki xaloa*'

Adibide honetan, **duvě řivě prostoduchá**-ren osagarria da, eta **prostoduchá**, bere aldetik, **dívka**-rena.

duvě řivě → *prostoduchá*

prostoduchá' → *dívka*

Euskaraz, ordea, gehienetan arrotz xamar gelditzen da, salbuespenak salbuespen, aditz-laguna adjetiboaren osagarri jartzea («neska (...), fidatuki xaloa»). Puntu honetan, naturaltasunaren onerako, jatorrizko testuarekiko fideltasunari ihes egiteak dirudi egokiena, «fidatuki» «neska»ren adjetibo bihurtuz («neska (...), xaloa eta fidatua»). Irtenbide hau erabiltzea izan dugu, zeren «xaloa» eta «fidatuki»ren arteko lotura ez baitzen estuegia, eta antzeko lotura sor baitzitekeen «neska»

eta «fidatu»ren artean. Alderantziz, adjetibo eta aditz-lagunaren arteko lotura hori oso markatua denean, beste era batera itzuli behar (Hrabal:15):

(...) bylo to tak zakázaně krásné (...)

‘(...) izan zen hori hain debekatuki ederra (...)’

Izan ere, «hori hain debekatua eta ederra izan zen» itzultzeak zeharo desegokia dirudi, eta bideren bat bilatu beharra somatzen da, aipatu lotura hori euskaraz nolabait mantentzeko. Esate baterako: «hori, debekatua-ren debekatuaz, hain izan zen ederra».

Beraz, hemen ondo ikusten den bezala, kasu bakoitzari egokitu behar.

3.- Morfologia: aditz-aurrizkiak.

Txekierak gozatzen duen aberastasun morfologikoa aditzean nabarmentzen da bereziki: izan ere, aditz bati honako edo horrako aurrizkia erantsirik, honako edo horrako esangura lortzen dugu, **jít** ‘joan’ aditza erakusgarri:

prejít ‘zeharkatu’

obejít ‘inguratu’

dojít ‘agortu’ ‘iritsi’

sejít ‘jaitsi’; **sejít se** ‘bildu’, ‘elkartu’

zajít ‘ikustera joan’, ‘-ren bila joan’, ‘-renetik pasatu’

projít ‘pasatu’, ‘korritu’, ‘ibili’

najít ‘aurkitu’

vejít ‘sartu’

vyjít ‘atera’

Ikusten denez, txekieraz morfologiaren bidez markatutako alde semantikoak lexikoki adierazten dira euskaraz, hitz-hautaketaren bidez.

4.- Aditza

Txekiar aditzak bi forma besterik ez ditu, hots, burutua eta burutugabea. Burutugabea orainaldia ezezik, geroaldi eta lehenaldi burutugabeak ere adierazteko erabiltzen da; forma burutua, ordea, geroaldi eta lehenaldi burutuak adierazteko. Ad.:

dělám 'dagit'

budu dělát 'egiten egongo naiz'

dělal jsem 'negien', 'egiten nuen'

udělám 'egingo dut'

udělal jsem 'egin nuen'

Forma burutugabeari **-áv-** atzizkia tartekatzen zaionean, «maiztasuna» adierazten da:

dělávám 'egin ohi dut'

dělával jsem 'egin ohi nuen'

Teorian zailtasunik gabea eta euskararenaren parekoa dirudien banaketa honek, haatik, saltsa asko sortzen du: **dělal jsem/udělal jsem** banaketa ez da beti bat etortzen «egiten nuen»/»egin nuen» banaketarekin (txekiar lehenaldi burutu gabea, askotan, euskal lehenaldi burutuarekin itzuli behar da, etab.): txekiar geroaldi burutugabea, batzutan, euskal orainaldiarekin itzuli behar: txekiar lehenaldi burutua (jarraian ikusiko dugun bezala), euskal lehenaldiarekin; etab. Txekieraz, askotan, salbuespenak gehiengo izaten dira aditz kontuetan, eta ezinezkoa da, antza bai, sistematizapenik erdiestea.

Txekieraz, lehenaldiko kontakizun batean, estilo zuzenaren «esan» eta esannahi bereko aditz nagusiak lehenaldian zein orainaldian ager daitezke inolako problemarik gabe.

(...) ale ten penzista asi špatně videl, a tak dlaní t'apal v prachu, povídám, copak hledáte, tatínku, copak? (Hrabal:18-19)

'... baina pentsionista hark ikusmen txarra bide zuen eta ahurraz hautsa aztaka zebilen, eta esan nuen, zeren bila zabiltza, aitona, zeren bila?'

Ikusten denez, txekierazko povídám 'diot', orainaldikoa izanda ere, lehenaldian euskaratu behar da.

Beste batzutan, lehenalditik orainaldirako jauziak ez dira «esan» aditzean bakarrik ematen, pasarte oso-oso batean baizik. Itzultzean, beraz, adi-adi ibili behar, eta pasarte osoa lehenaldian jarri.

Txekierak badu beste ezaugarri bat, aditz-sintagmaren oinarrian datzana: aditza lehengo pertsona pluralekoa denean eta aditz-sintagman osagarri elatibo singularra denean, bi interpretapen litezke zilegi:

- 1/ ekintzan bi partaide baino gehiago egotea (euskaraz gertatzen den bezala); aditzean adierazitako «gu» hori (bi partaide gutxienez), eta sintagma elatiboan ageri den bestea.
- 2/ ekintzan bi partaide baino gehiago egotea (euskaraz ez bezala); «ni», eta sintagma elatiboan ageri dena.

Beraz, egitura hau duen txekiar esaldi bakoitza aztertu behar da, eta bietarik zein interpretapen den benetakoa nola edo hala asmatu (gehienetan testuingurua lagungarri).

Espainierak, puntu honetan, irtenbide bikoitza eskaintzen du: Espainiako espainierarena eta Ameriketakoarena. Espainiakoarenak lehenengo interpretapena besterik ez du onartzen; Ameriketakoarenak, txekieraren pare, biak (batipat bigarrena). Euskarak lehenegoa besterik ez duenez, txekiar egiturak bigarrena duenean, euskaraz ondoko bi aldaketa estrukturetako bat (kasu bakoitzean egokien deritzaguna) egin behar da:

x-rekin ADITZA (l. plurala) —> x eta biok ADITZA (l. plurala)

—> x-rekin

ADITZA (l. singularra)

Egitura berri hau da, euskaraz, ekintzaren egileak (subjektu edo agenteak, segun aditza intransitibo edo transitiboa den) bi izatea posible egiten duen bakarra. Ikus dezagun, argigarri, ondoko adibidea (Kundera; 151), non Jaroslav eta Vlastaren eztei-gaua kontatzen zaigun Jaroslaven ikuspuntutik.

Ulehli jsme pak s Vlastou do vysoko nastlané postele (...)

Oheratu ginen gero Vlastarekin goian jarritako ohera

(Gero Vlastarekin etzan nintzen goian jarritako ohean)

Txekiar esaldiari lehengo interpretapena eman izan bagenio, azpi-marratzekoa litzateke Jaroslavek andrea erdi-banatzeari amore ematea. Harrigarria, benetan, eztei-gauean bederen.

5. Sintaxia

a) Perpaus sinplea:

Harritzekoa da txekieran aurkitzen dugun perpaus inbertsonalen ugaritasuna. Perpausok, gehien bat, **byt** «izan» eta **jít** «joan» aditzez sortuak dira, subjektua, **it** ingelesaren parekoa den **to** izenorde neutroa izaten delarik. Euskaraz, ordea, askoz urriagoak dira halako perpausak, eta hitzez hitz itzul ez daitezkeenez, nekez da lokuzio bakoitzerako euska-
l baliokidea aurkitzen.

jde mi do smíchu (hitzez hitz, «irrira doakit»): irrigura naiz

to neslo (hitzez hitz, «hau ez zen joan»): ez zebilen, ezin zitekeen.

to je ono (hitzez hitz, «hau hori da»): hori da!, ederki!.

Azken lokuzio hau da, hain zuzen ere, Coca-Cola entpresak Txekoslovakian egiten duen publizitatean erabiltzen duen leloa.

b) Perpaus konposatua:

Leheniketa behin, puntu bat aztertuko dut, osagarritzko perpausena. Esango direnek perpaus enuntziatibo zein galderazkoetarako balio dute.

Perpaus menperatuaren aditzaren denbora «erlatiboa» da, hots, haren balioa aditz nagusiaren denboraren menpean dago: Bestela esanda, aditz menperatua «orainaldikoa» izateak ez du esan nahi orainaldiko gertaera edo ekintza bat adierazten duenik, aditz nagusiarekiko bateratasuna baizik. Era berean, aditz menperatua «lehenaldikoa» izateak aditz nagusiarekiko lehenagotasuna adierazten du; eta azkenik, aditz menperatua «geroaldikoa» izateak, aditz nagusiarekiko gerokotasuna. Esaterako:

Petr mi napsal, že ...

Kepak idatzi zidan ...

1.- je v Bilbao na dovolené je 'da'

2.- byl v Bilbao na dovolené byl 'izan zen'

3.- bude v Bilbao na dovolené bude 'izango da'

1.- Bilbon zela oporretan.

2.- Bilbon izana zela oporretan.

3.- Bilbon izango zela oporretan.

Dakusagun bezala, txekieraz, zeharkako estiloa estilo zuzenetik gertuago dago euskaraz baino. Eta aditzean ezezik, osagarritzko perpausaren lekuzko eta denborazko sintagmetan ere; zeharkako estiloan, txekieraz **ted** 'orain' edo **tu** 'hemen' euskaraz, 'une hartan' eta 'han' bilakatzaren dira. Bestela, bat letozke kontakizunaren denbora eta lekua kontakizunaren idazketaren denbora eta lekuarekin.

Hemen aditzaren balio erlatiboaren denboraz esan direnek badute, haatik, kontraexenplu bat, ondoko adibideari dagokiona.

Petr mi napsal, že Bilbao je hlavní město Biskajská

'Kepak idatzi zidan Bilbo Bizkaiko hiriburua dela'

Izan ere, osagarritzko perpausaren kontatzen dena ekintza edo gertaera iraunkorra denean (baita kontakizuna irakurtzen deneko unean ere), bere hartan utz daiteke aditz menperatuaren orainaldia.

Sintaxian, ohizko problemekin egiten dugu topo joskera korapilotsuko testu bat euskaratzerakoan. Zer egin, kasu, txekiar testuan bi, hiru, lau edo bost perpaus erlatiboren segida euskaratzeko? Zer egin, bada, Hrabalen malabarismo sintaktiko-ekin? (Hrabal: 28).

Nejradši jsem měl tlustého agenta, který když přišel

maiteen nuen lodi merkatari zeina -enean iritsi zen

poprvně, tak jsem běžel přímo pro pana šéfa (...)

lehengoz orduan AUX korrika egin zuzen bila jaun nagusi

(Merkatari lodia nuen maiteena, zeina, lehengo aldiz iritsi zenean, orduan zuzen-zuzen joan nintzen nagusiaren bila).

Txekierazko testua txit onargarria gertatzen da, hizkera mintzatuan batipat. Euskal itzulpen hitz-hitzezko honi, ordea, trakets xamarra deritzot. Askoz egokia dirudi sintaxia errazteak, erlatiboa kenduz:

«Merkatari lodia nuen maiteena. Lehengo aldiz ailegatu zenean, orduan zuzen-zuzen joan nintzen nagusiaren bila»

Hemen, ahozko hizkeraren kutsua ez galtzeko, bi gauza egin ditugu; «iritsi»ren ordez «ailegatu» jarri, eta «orduan» hitza mantentzea. Izan ere, «orduan» esaldi denboral baten atze-atzean agertzea euskararen hizkera mintzatuari dagozkion erredundantzieta bat da.

6. Leku eta pertsonen izenak

Txekieraz badira hiru hizki, *ž*, *č*, eta *š* (grafia fonetikoekin bat egiten dutenez, erraza da zein soinuri dagozkien jakitea), azken biek euskal hizki baliokide bana dutelarik, «tx» eta «x» alegia. Bestalde, *ch* hizkia [x] da, eta *j*, bere aldetik, [j].

Hasteko, zer egin *ž*, *č*, eta *š*-rekin? Espainierazko itzulpenetan bi bide erabiltzen dira: zeinu diakritikoak kendu, edo mantendu. Badira itzulpenak, ordea, axolagabekeriaren axolagabekeriaz, erdiko bidean gelditzen direnak, batzutan kendu eta batzutan mantentzeko joera arbitrarioa antzeman baitaiteke. Neronek, euskarari dagokionez, txekiar hizkiak albora utzi eta euskal hizki baliokideak erabiltzearen alde nago, irakurleak izenon ahoskera jakin dezan (begira bestela nola telebistako aurkezleek «Baklaf Jabel» deitzen dioten **Václav Hável**-i ([vátslaf hável], fonetikoki). Euskaldunok «Txekoslovakia» esaten dugun bezalaxe, berdin esan beharko genituzke hain ezagunak ez zaizkigun beste txekiar izen batzu ere. Guretzat *č*-k ezer adierazten ez badu (zeinu diakritikoak mantenduz), are gutxiago *c*-k, diakritikorik gabe.

Kale-izenei dagokienez, nik erabaki ezberdinak hartu izan ditut, kasu bakoitzaren arabera. Kale eta plaza-izenek, txekieraz, substan-

tiboaren («kale» edo «plaza», alegia) araberako kasua dute, hala nola, substantiboaren osagarri izaki, adjetiboaren morfologia. Esaterako:

-**Nerudova** (Neruda+adj.morf+nom.,sing.,emak. -zeren **ulice** «kale» emakumezkoa baita-).

-**Pařížská** (Parise+adj.morf+nom,sing.emak)

Ene ustez, askoz egokiagoa da jatorrizko izena baztertu eta euskal itxura ematea, hau da «Nerudova kalea» eta «Pařížská kalea» ren ordeaz, «Neruda kalea» eta «Parise kalea» esatea. Izan ere, literatura itzultzea ez da Prahako gida bat itzultzearen parekoa, eta egokitu beharra bortitzagoa da.

Auzoei dagokienez, bada, ezin erabaki baturik hartu. **Staré Město** «Hiri Zaharra» da, **Staroměstské náměstí**, «Hiri Zaharreko enparantza», eta **Malá Strana**, bere aldetik, «Alde Txikia». Lehenego bi kasuetan euskaratzea bide da egokien: hirugarrenean, ordea, txekiar adiera, zeren auzo hori, mundu osoan, izen horrekin ezaguna baita. Beraz, kasu bakoitzari berebiziko konponbidea eman behar diogu, gainontzeko hizkuntzetan erabiltzen den ereduari jarraikiz.

Kale-izenak substantibo baten esannahia baldin badu, hori euskaratzearen alde gaude, edozein kasutan egonda are, kasu absolutiboan jarritz. Honela, bada, **Na příkopě-ri** ('hobian') Hobia kalea esango diogu. Azken adibide honetan ikusten den bezala, leku-izenek lekuzko kasuak eransteke joera nabaria du txekierak. Kale-izenetan ezezik, etxe eta taberna-izenetan ere antzeman daiteke holakorik: halatan, Bohumil Hrabal egunero garagardotan aurki dezakeguneko tabernak **U zlatého tygra** du izena ('Urrezko tigrearenean'). Euskaraz, ordea, esan bezala, lekuzko kasua kendu eta «Urrezko tigrea taberna» (eta, behin taberna dela jakinda, «Urrezko tigrea», besterik gabe) esango dugu.

7.- Deiturak

Txekierazko deiturarik gehienek badute jatorrizko esanahirik, gehienetan aditz edo izen-lagun gisa: **Tichý** 'ixila', **Nejedlý** 'jangaitz',

Pokorný 'umil', **Navratil** 'itzuli zen', **Hrabal** 'arrastelatu zuen'. Deiturak beren hartan uzteari deritzogu egokiena, baita deituraren batekin idazleak hitz-joko bat egin nahi duenean ere: hala ere, kasu honetan, ezinbestekoa izan liteke itzultzailearen oharra. Ikus, beste-la, ondoko adibidea (Hrabal: 166):

(...) a nechal si (...) slyset hanopisy na moje přjmení Dítě, ale tady jsem byl Herr Ditie, pro Nemce se z toho mého jména vytratilo decko, jiste to spojovali s necím docela jinacím.

(...) eta barre egiten zioten nire deiturari, Díte, baina ni han Herr Ditie nintzen, alemandarrentzat haurrena nonbait galdua zen, seguruenik zer bait zeharo ezberdinarekin erlazionatzen zuten.

Ene ustez, txekieraz *dítě*-k haurra esan nahi duela jakin ezean, ozta-ozta ulertuko da pasarte hau.

8.- Realia

Txekoslovakiako «realia»ren kontzeptuak, jakina, ez ditu bertoko idazle batek azalduko bere nobeletan. Baina itzultzaile atzerritarrek bere hizkuntzara dauden-daudenean pasatzen baditu, inolako oharrik gabe, irakurleak ezer gutxi ulertuko duelakoan nago: ez zaio ezer graberik gertatuko **babovka**, **knedlíky**, **slivovice** eta holakoak irakurri eta zertsu esan nahi duten ez badaki (testuinguruagatik erraz asmatuko du lehengo biak jatekoak direla eta hirugarrena edatekoa), baina tira. Badira sintagmak, ordeak, euskarazko bertsioan txekiar itxuran besterik gabe utz ezin daitezkeenak: auskalo nola euskara daitekeen, esaterako, **kádrový posudek** (Kundera:36). **Posudek** «txostena» da, eta **kádrový** «kuadro»-tik dator, zentzu politikoan. Txekierazko **kádrový posudek**-en bidez, langile bakoitzari buruz lantoki guztietan zegoen txosten politikoa adierazten da. Nola uler dezake kontzeptu hori Europako ekialde komunistaohian bizi izan ez denak? Edo, bestela esanda, zein euskal esamolde erabil genezake kontzeptu hori euskaldunei ulergarri suertatzeko?

9.- Gibelsolasa

Ikusi dugunez, txekiera euskaratzea (eta, zehazkiago mintzatuz, txekiar literatura euskaratzea) ez da inondik inora ahuntzaren gauerdiko eztula, zailtasun horren funtsak hiru direlarik:

- genetikoa. Jatorri desberdinekoak dira: txekiera, indoeuropar hizkuntzatik etorria: euskara, auskalo;
- historikoa. Testuinguru historiko ezberdina izan dute: mendetan zehar beste hizkuntza baten menpe egonda ere, txekiera XIX.mendearen bukaeran atera zen, Bohemiako Pizkunde eredugarriari esker, putzu sakonetik (ia-ia desagertzeko arriskutik), eta gaurregun hizkuntza zeharo normalizatua da. Euskarari buruz, zoritxarrez, ezin holakorik esan;
- itzulpengintzan bertan sustraitutakoa: txekiera euskaratzeko eredurik eza.

10.- Bibliografia erabilia

HÁŠEK, Jaroslav. *Osudy dobrého vojáka Švejka za světové války*, 35. argitalpena, Československý Spisovatel, Praha, 1990.

HRABAL, Bohumil. *Já jsem obsluhoval anglického krále*, Jazz Sails, Praha, 1982.

KUNDERA, Milan. *Žert* (5. argitalpena), Atlantis, Brno, 1991, (1. argitalpena: Československý Spisovatel, Praha, 1967).

SINTESIS

Problemas de traducción del checo al euskara

Debido a la histórica inexistencia de relaciones entre Bohemia y el País Vasco, y a la escasez de personas conocedoras de ambos idiomas, así como de traducciones realizadas entre una y otra lenguas, no hay ningún estudio metodológico para la traducción del checo al euskara. Sin embargo, en este artículo, Karlos Cid Abasolo, traductor al euskara de «Los amores ridículos», de Milan Kundera (no publicado aún), de poemas de varios autores, y también traductor al castellano de poemas de Miroslav Holub, trata de diversas dificultades encontradas en sus traducciones, basándose en textos de Jaroslav Hašek, Bohumil Hrabal y Milan Kundera.

Comienza hablando del «abismo» existente entre la lengua checa hablada y la escrita y el reflejo de ambas en la literatura, en términos no traspasables a la literatura vasca, donde la lengua hablada apenas tiene reflejo en la literatura. Para ello, el autor analiza este fenómeno, deteniéndose en el léxico, fonética y morfología, el uso del sintagma nominal, prefijos verbales, sistema verbal, sintaxis, nombres propios y de lugar, apellidos, etc.

A modo de conclusión señala que las dificultades existentes en la traducción del checo al euskara son de carácter genético (debido a la lejanía estructural de ambas), histórico, y debidas también a la inexistencia hasta bien poco de traducciones y a la falta consiguiente de un modelo de traducción para ambos idiomas.

ABSTRACT

Problems in translating from Czech to Euskera

Due to the non-existence, historically, of relations between Bohemia and the Basque Country, and to the lack of people with knowledge of both languages and translations made between one language and another, there is no basic methodology for translating Czech into Euskera. Nevertheless, in this article, Karlos Cid Abasolo, Translator into Euskera of «The ridiculous loves» by Milan Kundera (still unpublished) and of poems by several authors and who has also translated poems by Miroslav Holub into Spanish, deals with several of the difficulties he has encountered in his translations of the works of Jaroslav Hasek, Bohumil Hrabal and Milan Kundera.

He begins by speaking of the «abysm» which exists between the Czech language in its spoken and written forms and the way in which both are reflected in literature, in terms which have no bearing on the Basque case, in which the spoken language has had little influence on literature. To do this, the author analyzes this phenomenon, focusing his attention on vocabulary, phonetics and morphology, the use on nominal syntagma, verbal prefixes, verb system, syntax, proper and place names, surnames, etc.

To sum up, he points out that the difficulties which exist in translating Czech to Euskera are of a generic (due to vast structural differences between both) and historical nature, and are also due to the non-existence, until a short time ago, of translations and to the consequent lack of a translation model for both languages.

Noiz sentituko dira merak gure alkateak? Euskal administrazio izkribu zahar batzuk

Gotzon Egia Goienetxea

Sarrera

Hemen aurkeztuko ditugun izkribu guztiak euskaraz idatzitako administrazio testuak dira.

Guztira 14 dira, zaharrena 1683ko eta berriena 1876koa. Denak han-hemenkako aldizkari eta liburuetan argitaratuak daude (ikus bibliografi oharra), eta gure iturria argitarapen horietan egon da beti. Esan nahi bait da ez dugula jatorrizko dokumentua eskuataratu.

Hemen jasotako idazketa transkribatzaileak argitaratutako berbera da. Alabaina, zenbait dokumentutan papera hondatuta dago, eta lerro edo pasarte batzuk irakurgaitzak dira. Horietan parentesi arteko puntuak «(...)» jarri ditugu, askotan irakurri ezin dena asmatzen zaila ez bada ere.

Testuei zenbakia jarri diegu, eta lerroak ere bosnaka zenbatu ditugu. Horrela, aipamenak egiterakoan errazagoa izango da beren lekua aurkitzen: «12.25» aipamenak hamabigarren testuaren hogeitaboskarren lerroa adierazten du; testu batek dokumentu anitz baditu, lehenengo zifrak testua, bigarrenak dokumentua eta hirugarrenak lerroa adieraziko du (adibidez, «10.1.17»).

Testuen aurkezpena

Hamalau testuon zerrenda hau da:

- 1 . Fermín de Basauiibasok Bilbotik Joanes de Callo-ri Donibane Lohitzunera 1683an bidalitako gutuna.
- 2 . Hernaniko burniola baten konponketa beharrei buruz zurgin ezezagun batek 1726an idatzitako gutuna.
- 3 . Sarako Udalak Baztangoari ezkur debekuari buruz 1769an bidalitako gutuna.
- 4 . Sarako Udalak Baztangoari azienden bazkari buruz 1773an bidalitako gutuna.
- 5 . Ezkabarteko Udalaren 1773ko akta, auzoko harmei buruzkoa.
- 6 . Sarako Udalak Baztangoari ezkur debekuari buruz 1776an bidalitako gutuna.
- 7 . Arizkungo andre batek 1777an Nafarroako Erregeordearen administratzaileari bidalitako ordainagiria.
- 8 . Sarako Udalak Baztangoari azienden bazkari buruz 1780an bidalitako gutuna.
- 9 . Sarako Udalak Baztangoari azienden bazkari buruz 1781ean bidalitako gutuna.
10. Donibane Lohitzungo Udalak Berakoari 1788an bidalitako bost gutun, lapurketa bat dela eta.
11. Orzaizeko andre batek bertako alkateari 1792an bidalitako gutuna, hark egin nahi zuen errotari buruz.
12. Itsasuko auzapezak Baztango alkateari azienden bazkari buruz 1807an bidalitako gutuna.
13. Urruñako merak Pasaiaikoari 1815ean bidalitako gutuna lapurtutako idi bati buruz.
14. Bidarraiko alkateak Baztangoari azienden bazkari buruz 1876an bidalitako gutuna.

Ikusten denez lau gai nagusi dira izkribu guzti hauetan:

– azienden larreratze eta bazkak udal mugakideen artean piztutako arazoak

- lapurretak eragindako ikerkuntza judizialak
- salerosketa eta diru kontuak
- administrazioari aurkeztutako eskabideak.

Esan bezala, XVII mendean hasi eta XIX mende bitartekoak dira. Horrenbeste urtetako aldea, noski, ez da alferrikakoa, eta idazkera nahiz grafia asko samar aldatzen da batetik bestera. Hona aldatu dugun testua, erran gabe doa, transkripzio hutsa da.

Euskaraz mintzatu, erdaraz idatzi

Bada begibistako beste kontu bat ere: hamalau testu hauetatik gehienak, hamar xuxen-xuxen, lapurtarrek eginak dira; beste hiru, berriz, nafarrek. Bakar bat da (Fermín de Basaibilbasorena) Bidasoaz hegoaldeko euskaldun batek idatzia, eta horixe, Alfonso Irigoieni (1962) jaramon egiten badiogu, lapurtarren eragin garbia jasotako bilbotarrak idatzia. Oso gutxi, beraz, hegoaldetik, nahiz ugari samar diren tartean alde horretako udalak harrapatzen dituzten arazo eta gora-beherak (larre kontuak, lapurretak...).

Zergatik erantzuten zieten Baztango edo Pasaiako alkateek gazte-leraz Sarako edo Urruñako auzapezek behin eta berriz euskaraz bidalitako gutunei? Erdaraz ere jakingo al zuten orduko hartako Baztango edo Pasaiako alkateek? Ez gehiegi, segur asko. Hala ere, gaztele-raz nork idatziko bilatuko zuten...

Ifarraldekoen eta hegoaldekoen jokabide guztiz alderantzizko honen arrazoi bakarra ematen ez da erraz. Baina ziurrenik euskal literaturaren tradizioan Ifarraldeak XIX mendea ondo aurreratu artean emandako uzta oparoa ez da lapurtarren idatz-joera honetatik oso aparte egongo.

Hegoaldeko euskaldunek urte luzetan erdaraz idazteko izan duten usadioaz ez dugu inor nekatuko, hainbeste eta hainbeste begibistako adibide ditugu eta. Eskuarteko hau, gehiagoko bat.

Ohar labur batzuk

Asmo soila dugu oraingo argitarapen honetan: izkribuok ikerketa filologikoaren zoko-bazter ezezagunagoetatik atera, eta administrazio alorreko euskaraz lan egiten dutenen begipe hurbilagora ekartzea. Ez bila, beraz, azterketa terminologiko nahiz estilistiko zorrotzik segidan datozen lerro hauetan: horretarako adimena eta prestakuntza hainbat duenak egin bitza.

Ezin utzi hala ere ohar-printza labur batzuk egin gabe. Begi-bela-riak egun administrazioan egiten den euskaraz ohitu samarrean dauzkan batek erreparatzeko moduko gauzak direlakoan gaude.

Hiru zatitan banatu ditugu oharrok:

- hiztegia
- baliabide estilistikoak
- agur esaldiak.

* Hiztegia

1.10 *abisanasasu ser ba lio duen sardinac eta egorri co duct onic badator*

Fermin de Basaulbasok arrain kargamendu bat bidaltzeko eskatzen dio Joanes de Callo-ri. Esaldi honetan, kargamendu horren baliola zer den jakineraz diezaiola esaten dio, eta *onic badator* ordainduko diola. Argi dago hemen *onic* adberbioa dela, egun oso gutxitan erabiltzen den bezalakoa, hitz honekin behintzat.

3.3 *escribatcen darotçuet presenteco carta hau*

6.2 *presenteco carta huntaz*

Hegoaldekoontzat ez da batere harritzekoa *carta* hitza; baina ifarraldekoek ere erabilia da nonbait. Ez da behintzat izkribu hauetan «gutun» hitza ageri, baina beste batzuetan *let(t)ra* azaltzen da (ikus adibidez 12.5 eta 13.5).

3.9 *badaquiçue Gure Faceriac hillac dagocila*

Hemen adierazten diren *Faceriac* herri edo auzo mugakideen artean azienden bazka kontuetan egindako tratuak dira. Beraz, *Faceriac hillac dagocila* dioenean tratu horien balio-indarra amaitua dela dio.

5.5 *Alziñeco urte zenbaites*

Argi dago *Alziñeco* hori gaur «aitzineko» edo «antzineko» idatzi beharko genukeela. Apat-Etxebarnek (1971) gazteleraz «algunos años pasados» itzultzen du, eta ez dirudi oso oker dagoenik.

5.7 *uztenduenean Rejidoretasuna escatuco zaizquio entreguatu zizaizquion gauzac*

Karguaren izendapena (auzoko erregidore izatea, alegia) gaur egun horretarako nekez erabili ohi den «-tasun» atzizkiaz egina dago hemen: «alkatetza» arrunta dugu, baina «alkatetasuna»?

6.14 *ezguendezaque hainbertce ardi eta bildox escas atceman gure artaldetan*

Hemen *escas atceman* zer den garbi ulertzen da: zerbaiten falta nabarmendu. Zenbat bider ez ote dugu burua nekatu gazt. «echar en falta» edo fr. «manquer» baten bila? Horra irtenbide polita.

7.10 *ecarzeco penarentzat*

Izkribu hau ordainagiri bat da; emandako oilo, oilar eta txitoen balioaren ondotik, 2 pezeta gehitzen ditu *ecarzeco penarentzat*. Hemengo «pena» hau gehiago da nekea, izpirituaren oinazea baino.

7.13 *pausatu dut ene liburuan quito eta libre*

Ordainagiri beraren bukaeran diru ordainketa jaso izanaren egiaztapena egiten du, eta kontu-liburuan jaso dela esateko erabiltzen du *pausatu*.

8.3 *Baztango valle nobleco alcate Jaunari eta carguduney*

Frantsesezko «élu, élue» hitzaren ordain zuzena «hautetsi» darabilte Ifarraldean. Hala ere, hegoaldekoontzat arruntagoa den «kargudun» hitza ageri da hemen, Sarako auzapezak erabilia.

8.11 *bahicunza Choillarentzat 60 Erreal eta Bazcasariarenzat 13 Erreal*

Azienden bazkak sortutako afera da izkribu honen gaia: behi baztuk besteren larrera ihes egin omen zuten, eta bertan harrapatu auzoek; aziendak atzera eskuratzeko ordaindu behar izandakoak dira hemen aipatzen direnak. Batetik, *bahicunza* dago: guk estuegi lotzen dugu gaur gazt. «secuestro» edo fr. «séquestration, détournement» adierari; hemen abereen harrapatze-isuna besterik ez du esan nahi. Bestetik, *Bascasaria* ageri da (ikus baita ere 12.12 *belharraren saria* eta 12.37 *basca saritçat*); hitza bera ez da inola ere ezezagun edo harrigarria, baina honetan ere «saria» ia erabat gazt. «premio» eta fr. «prix» hitzen ordainzat besterik ez dugu erabiltzen.

10.1.40 *ets cirela accordatu*

Zilarrezko katilu baten lapurretaz ari da izkribu hau: lapurra joana dan nonbait judu batengana katilua erosiko ote dion, baina ez dira prezioan bat etorri. Horixe esan nahi du hemen. Satrustegik hasieran (1986:143) nahasi egiten du adiera eta hala dio: «ACCORDATU, oroitu; *bainen ets cirela accordatu*, pero que no se acordaron». Bistan da hemen «bat etorri» esan nahi duela. Geroago zuzendu egingo du (1987:333): «ACCORDA(TU). Hitzartu, konpondu».

11.30 *Bertce Errotta Garrocoa Deitcen denari Ere hoben handia, Eguinen daco*

Ezaguna da *hoben* hitza (baita «ogen» sinonimoa ere) gazt. «falta, culpa» edo fr. «faute, culpabilité» hitzen adieraz. Hemen ordea garbi dago «kalte» adierazten duela.

11.32 *neure partetic deffendiatuco naiz neure ahallaz*

Hemen ageri den *ahalla* hitzak «indarra, kementa» esan nahi du. Gaztelerazko itzulpenak «de mi parte me defenderé hasta donde pueda» dio.

12.8 *determinatione hunec içanen dituien Seguida gaiztoac*

Kexu da izkribu honetan Itsasuko auzapeza, Baztango Udalak hartu berria duen bazka-debekuak ekar ditzakeen istiluen beldur. Garbi dago

hemen *Seguida* hitzak «ondorio» esan nahi duela; «segi» hitz jator-tzat dugu hegoaldeko euskaldunek, baina egun oso gutxi erabiltzen da idatziz, ez aditza («jarrai» aditzak kendu dio lekua), ez eratorrita.

12.36 *arçainac présentatuco dira çure etchera, çoinec desirat-cen baitute çurequin antolamendu-eguitea*

Hemengo *antolamendu-eguiteak* «elkar hartu, bat etorri» esan nahi du argi eta garbi. Gehiegi lerratu dugu «antolatu» hitza gazt. «orga-nizar» edo fr. «organiser» hitzek duten adierara. Euskara jatorrean «antolamendua» gehiago da konponbidea, adostasuna.

13.19 *lettra hura eratuqui erremetituba içatu citçaitçun eta ene erreclamationia legitimoa cen arren ichiltassuna gardatu duçu*

Gutun honetan Urruñako mera kexu du Pasaiaiko alkateak: larru-gile pasaitar batzuk idi bat lapurtu omen zuten Urruñan, eta hil ondoren Pasaian saldu. Balanqué merak justizi eske behin eta berriz idatzita ere, pasaitarren alkateak ez omen zion erantzuten. Horixe da pasarte honetan aurpegiaritzen diona: azken gutuna *eratuqui* bidali bazion ere, ez duela erantzunik jaso. Argi dago horrek «behar den bezalako molde eta bide ofizialez» esan nahi duela.

14.15 *Gracia hori escatcendut urthebaten ikusteco*

Hemengo gutun honetan, berriz, Bidarraiko alkateak nolabaiteko tratua eskaintzen dio Baztangoari azienden bazka kontuetan. Hi-tzarmen hori *urthebaten ikusteco* proposatzen dio. Argi dago hemen «ikusi» ez dela «begiez so egin», gazt. «revisar» edo fr. «réviser» baizik. Zertarako, beraz, egun hainbeste ugaldutako den «berrikusi» eta gisakoak?

*** Baliabide estilistikoak**

5.13-19 *Dirade Erregua eta (...) eta zanca bat.*

Ezkaibarteko Udalaren akta honek auzoko harmak zein diren azal-tzen du. Zortzi lerroko pasarte honetan hemeretzi aldiz ageri da «eta»

lokailua. Azalpena aditzaz hasten da: *Eta orai esplica dechagun zer diraden gauza ebec: Dirade... Hortik aurrera halako urratsak segitzen ditu: Dirade... eta... eta... eta...; eta Alaver dirade... eta... eta...; eta alaber dirade... Eta... eta... dirade, ...eta... eta... eta... eta... Eta yaguo... Eta alaber dirade... eta... eta... eta... Guztira hogeitabat gauza aipatzen dira. Lerro hauek idatzi zituenak ez zion, alajaina, errepikakortasunari bildur handirik!*

14.8-14 1.^o *Mugatic acinda bera utz (...) erranahidut soldobaten plaçan sei sos paga.*

Bidarraiko alkateak Baztangoari proposatutako tratua dago pasarte honetan. Aditz nagusi guztiak edo aditz laguntzailerik gabe daude edo eliptikoak dira; guztira sei aditz nagusi dira halakoak segidan. Hitzarmen baten estipulazioak egiteko estilo eliptiko eta labur honetatik balegoke zer ikasi, gure ustez.

*** Agur esaldiak**

Dokumentu hauen bukaeran ageri diren agur esaldi guztiak jarriko ditugu segidan:

- 1.16 *sure seruisari orayn eta beti*
- 2.22 *bere mesedearen cerbizaria ni beti ere*
- 3.15 *Etanaiz Errespiturequin Yaunac çuen cerbitzaria*
- 4.17 *naiz, Jauna çure Serbitzary humila Eta obedienta*
- 6.17 *Errespetu handirequin çuen Cerbitzary*
- 8.22 *Içanen gara bethy çuen cerbitzari. Bihotz onez*
- 9.15 *guelditcen gare considerationerequin Cuen Cerbitzary humillac.*
- 10.2.22 *Jauna, guelditcen çure betico lejal*
- 10.3.11 *eta goraintçi ene partes(...) guelditçen nais betico, j(...) çure cerbitçari leja(...)*
- 10.4.15 *Jauna guelditçen nais betiereco ç(...) Serbitçari lejal*
- 11.36 *Guelditcen nicalaric çure Cerbitçaria(...)*
- 12.40 *Guelditcen-niz considerationné Parfetenarequin, eta errespetagarrienarequin çure çerbitçary*
- 13.57 *salutatcen çaitut consideratione perfet batequin.*
- 14.18 *Salutatcen çaitut beharden Errespandez.*

Hamalau esaldiotatik hamaikatan gutunaren jasotzailearen «zer-bitzari» izateko eskaintza da adio esateko era. Inork erabiliko ote luke halakorik egun?

Amaiera

Administrazioan tradizio gutxikoa da euskara: Nafarroako errege zaharrek ere nahiago ukan zuten beren gortean erdara, eta euskarak ez zuen «paperezko jauregietan» oinik jarri. Gutxi dira beraz, zinez gutxi, euskarazko administrazio testuak.

Horrexegatik hain zuzen ditugun testu apur horiek urre gorriaren balioa behar lukete izan. Sobera dagoenean zilegi da hautatzea, baina eskas dagoenean dena da baliozko, ez dago deus, demendrenik ere, bazter uzterik.

Eliza, udal eta ganbara zokoetan gorderik leudekeen euskarazko administrazio testu apurrak bildu, katalogatu, aztertu eta argitaratzeko garaia inoiz helduko ahal da.

-1-

Fermín de Basauiluasok Bilbotik Joanes de Callo-ri Donibane Lohitzunera 1683an bidalitako gutuna (cfr. Irigoyen 1962).

- Vilua y noble. (...) de 1683
Juanes de Callo. Or bidalsen dugo
Jonac eta bioc 60 millar sardina eta
enea da erdia etac suri comenda
5 sen di sut daguisula salseco deli
encia albaitic lasterre ena eta bi
dalesadasu orren Balioa aguardien
ta eta 10 opil brea eta abisanasasu
ser ba lio duen sardinac eta egorri
10 co duct onic badator. esta etorri bate
ereuna. falta dela diote. ori frescoa da
Bañan garestia da. pagatu dugu emen
Bere lisensiarequin 16 real sillar eta

- 15 eguisu eguinala eta egor Bereala
sure seruísari orayn eta beti.
Fermin de Basauiluaso.
Juanes yauna fletaren erdia pagatuco duso 13 rrel sillar.
A Juanes de Callo g.
20 Dios ms. ańs. Abitante
San. Ju. duluz
Con amigo y sseńor

Oharrak

Fermin de Basauiluaso bizkaitarra omen zen sortzez eta bizitzez, baina bistan denez ez zuen bere gutuna bizkaieraz idatzi.

Dirudienez, oinarritzko bizkaiera batez gain («s» eta «z» nahasi egiten ditu, adibidez) beste euskalkien eragina jaso zuen, bereziki lapurterarena. Bilbon garai hartan merkataritza lanetan ziharduten Joanes de Callo, Guillen eta Lane eta beste hainbat lapurtarrekiko harremanetan bilatu behar ote da eragin horren arrazoia? Hala dirudi.

Lapurtarrek kutsatuko zioten, halaber, bere gutunak euskaraz idazteko ohitura, jakina bait da garai hartako bizkaitarrek, nahiz gaztelera oso gaizki egin, idatzi beti ere gaztelera egiten zutela.

-2-

Hernaniko burniola baten konponketa beharrei buruz zurgin ezezagun batek 1726an idatzitako gutuna (cfr. Carrión 1985).

- Seńor Antonio de Aierdi Segeretario
Jauna
Fagolagaco ollaren estanca-
ren aldean behar da pareta guzi
5 bat arriz eta sarras arriac behar
dira andiac luzean gutien dena
besso bat eta erdi luze 1
Eta behar dira bi zur bata
luze behar da hemeretzi besso 19
10 eta berzea behar da luze besso 16
eta berze bi uztari
zazpina besso luze 07
Essan den zurrac obraren
oinean erriac emaiten dituela

- 15 materialla bildu eta obra ongui
 eguiten duela behar da hogoui eta borz escutu.
 Eta bigarren partida bat dada luze
 hamalur bessu arriz eta sarraz
 eguin beharra behar du hogoui
20 ezcutu. Burrullaren 3 de 1726.
 Señor Antonio de Aierdi Segeretario
 Jauna bere mesedearen cerbizaria ni beti ere
 Gracian de Fagalde.

Oharrak

Gutun hau Hernaniko udal artxibategian dago gordeta, Fagollagako burniolaren alokairuaren paperen artean.

Fagollagako burniola (1649-1806) Hernaniko Udalarena zenez alokatu egin ohi zen. 1725ean Juan de Caminos eta bere emazte Manuela de Belaunzarani alokatu zien Udalak.

Gutunak burniolan egin behar ziren konponketen berri ematen du. Garbi dago idazlea ez zela hernaniarra; Gracian de Fagalde ziurrenik bertan lanean arituko zen hargin lapurtarra izango zen.

-3-

Sarako Udalak Baztangoari ezkur debekuari buruz 1769an bidalitako gutuna (cfr. Donostia 1934).

- Saran buruilaren 25an 1769
Yaunac
escribatcen darotçuet presenteco carta hau çuey
aditcerat emaiteco nola Ezcurra debecatu du
5 gun, eta hortaracotz çuen aciendac Yçanen
 duçue borondatea erretiratceco helduden hilaren
 hirureco gue gureac eguinen Tugun beçala
 Bertce alde badaquiçue Gure Faceriac
 hillac dagocila eta nahy guinducque har
10 Beceneçaté egunbat helduden hilaren
 hogoya bizquitartean berrien eguiteco,
 hortaracotz Yçanen duçue borondatea
 Yaunac marquatceco Eguna Elgharren
 artean vnioné on bat Yçaiteco, Lehen costu

- 15 matcen dugun Leqhuan; Etanaiz
Errespiturequin Yaunac Çuen cerbitzaria
Piarres Lahetjuzan Saraco alcatea.

Oharrak

Garai batean, eta oraindik orain ere, aldameneko herrien arteko sesioak maiz gertatzen ziren, azienden bazka, ezkur debekua, eta gisa horretako arazoak zirela medio.

Halakoetan, Sarako Udalak Baztangoari bidaltzen zizkion gutunak euskaraz idatziak egon ohi ziren, Elizondoko udal artxibategian dauden agirien arabera.

Gure zerrenda honetan halako bost azaldu ditugu (honez gain, 4, 6, 8, eta 9). Ohar labur honek, beraz, hurrengo lau horietarako ere balio du.

Baztango Udalaren erantzunak, berriz, beti gazteleraz izaten omen ziren. Ez dago behintzat euskarazko alerik inon gordेरik.

-4-

Sarako Udalak Baztangoari azienden bazkari buruz 1773an bidalitako gutuna (cfr. Zudaire 1968, Satrustegi 1986).

- Jauna
Aspilcuetaco Guizon Bat aguertu çaicu hunat
Erraiten darocularic Badela asienda adardun
Mulzubat Bahituac aspilcoetaco herrian.
- 5 Eta nola Baitaquizu Çuc eta nic Estugula
Maite disputaric, othoy Bada Jauna Idy
Behy aratche eta Berce gainerateco asiendaric
Balinba Esperanza dut, noblequy Libraracico dituzu-
la guciac, eta Emanen diozutela Çure
- 10 Sembait aBizuan Çuen Baleco alcate
Jaunarequin Batean Guerta Estadien
amoreac gatic herri hauquien arthean gauza
destra ordenarioric Çu eta ny fiador garen arthe
huntan Esperanzadut Eguinen dituzula Behar

- 15 diren deliquenziac. naiz,
 Jauna
 Çure Serbitzary humila
 Eta obedienta
 Juan Dop Garat
20 Sara de 11 de Julio 1773

-5-

Ezkabarteko Udalaren 1773ko akta, auzoko harmei buruzkoa (cfr. Apat-Echebarne 1971).

- Milla eta zazpitan eun eta yrutan oguei eta amairu guaren vrtean;
celarik Rejidore Juan de Suescun.
Gostumbrazen zen bezala entreguatu zizaizquio vrte beri egunarequi
Auzoco Armac; eta artuzitue por Ynmentario;
5 Zerenguatic Alziñeco urte zenbaites faltatu ziren zenbait paper;
 Eta alaber uztenduenean Rejidoretasuna escatuco zaizquio entreguatu
 zizaizquion gauzac, eta lomismo Berze gaiñaraco vrtetan Rejidore
 denari entreguatuco zaizquio gauzac eta
10 lomismo escatu.
 Eta orai esplica dechagun zer diraden gauza ebec:
 Dirade Erregua eta Erregu erdia eta gaizurua eta Almotea; eta Alaver
 dirade Pinta eta Pinterdia eta quartilloa; eta alaber dirare Pisu rro-
 manoac.
15 Eta pisu balanzac Ganchodunac eta Pisu Arriac dirade, Sei libracoa
 eta Iru Libracoa eta bi Libracoa eta Liberacoa eta Libera erdia eta
 quartrona. Eta yaguo zartagui bat.
 Eta alaber dirare escopeta bat eta yru cañon suelto eta pica bat eta
 zanca bat.

Oharrak

Ezkabarteko harana Iruñerrian dago. Agiri hau dirudienez haran horretako Zildoz herrikoa da, Iruñe ondoko San Kristobal menditik oso gertu.

Ohitura zenez, auzoko erregidoreak gordetzen zituen auzoko pisu-neurri ofizialak eta armak. Akta hau gauza horien nolabaiteko emate-agiri bat da.

-6-

Sarako Udalak Baztangoari ezkur debekuari buruz 1776an bidalitako gutuna (cfr. Zudaire 1968, Satrustegi 1986).

- Jaunac
presenteco carta huntaz aditcerat emaiten darozuet
nola herri hunec Ezcurra defendatcen duen bere
oyhanetan jçanen duçue Jaunac agradable
- 5 Çuen Valle nobleco Vecinoen avissaceco.
Berce alde Jaunac çuec eguin duzen
Etchea gure muguen Inguruan olhassurgo
partean Ceinetan herri huny eta Ingurucœi
ezbaitiote on handiric eguiten eta Eguinen
- 10 asco yende condicione gaichtocœn lhes lecu
beçala baita desiratcen guindue jaunac
emaiten bacindute Maister bat, alamenos
ezguendezaque hainbertce ardi eta bildox
escas atceman gure artaldetan.
- 15 Esperanza dugu Jaunac ordena ona
emanen duzuela horren gainean eta gare
Errespetu handirequin Çuen Cerbitzary.
Darroquy
Saraco Grefiera
- 20 Sara y 20 Sbre. 1776
Presentaco carta hau erreme
tituco çayo Baztango valle nobleco Jaun alcateary. Baztan.

-7-

Arizkungo andre batek 1777an Nafarroako Erregerdearen administratzaileari bidalitako ordainagiria (cfr. Donostia 1934).

Señor Don Juan Alejandro	
ene Adisquide maitea egorzen	
darozut lehenbizico poleriaren contua	
6. Yndiolar eta Capon bat	15 Pezeta
5 8 Yndi oilo	14 Pezeta
1 Yndiolo bat	03 Pezeta
11 oilo	10 Pezeta
8 cito	03 Pezeta
3 laca arto	01 Pezeta
10 ecarzeco penarentzat	02 Pezeta
48 Pezeta	

- Abostuaren 11an nola
guelditu garen Cu eta ni pausatu
dut ene liburuan quito eta libre
15 cure Cervitzari Arizcunen
Abostuaren 14-1777
Dominica de Larrondo

Oharrak

Gaez heldu omen zen 1777ko abuztuaren 18an Baztanera Nafarroako erregeorde Francisco Bucareli. Txango honek eralgitako diruen kontuetan, Dominica de Larrondok Juan Alejandro de Echeberz, erregeordeak Ariskunen zuen administratzaileari bidalitako zenbait ohar ageri dira.

Horien artean hau da euskarazko bakarra.

Aita Donostiak dioenez, ikusgarria da zenbaterainoko xehetasunez egin ziren dirukontu hauek. Erregeordeak ez zuen deusik falta izan. Besteak beste, abuztuaren 21ean (!) zaldizko bi atera ziren Orreagaruntz, «por haber espresado su Ex^a hallarse acostumbrado a beber agua emfriada con nieve». Bucareliren irakurzaletasunaz ere ohar polita dago.

-8-

Sarako Udalak Baztangoari azienden bazkari buruz 1780an bidalitako gutuna (cfr. Zudaire 1968, Satrustegi 1986).

- Sara y 26 xbre. 1780
Baztango valle nobleco
alcate Jaunari eta carguduney
Jaunac
5 Badaquizue azqueneco facerietan nola herri
huntaco particular bat plenitucen bere acienda
Belzac Vtzamoco Escurrerat çaramatçila
escapatu citzaizcola Belateko harlucetk eta
pagaracy ciotela Bederatcy buruenzat,
10 ceinetan baitziren lau hilcecoac eta Bortz bicitacoentzat
bahicunza Choillarentzat 60 Erreal
eta Bazcasariarenzat 13 Erreal. Senticen ahal duçe
Jaunac Bahicunza hori gogorra
dela particular pobre batenzat ceinetan obligatu

- 15 Içan baitcen lau aciendaburuen Salcerat bertce
gaineracoen libratceco. Seguratuac beçala gara
Jaunac Içanen duçuen Indulgencia, guizon
miserable horren alderat Ceinetan baita
presenteco Carta ekharcen duena.
20 Baldin bada yeusic çuen dispositioneary
offrey ditaqueyenic herry huntan disposa
çaçue jaunac Içanen gara bethy Çuen cerbitzari.
Bihotz onez, facheria yurat, Etchebery yurat.
Darroquy
25 Greffier Secretarioa.

—9—

Sarako Udalak Baztangoari azienden bazkari buruz 1781ean bi-
dalitako gutuna (cfr. Zudaire 1968, Satrustegi 1986).

Sara y 19 de set_. 1781

Jaunac:

- Othoizten çaituztegu Abissu emaitiaz çuen Valle
Nobleco unaiey attentcione eman dezaten aciendaric
5 Sar ez dadin herri huntaco oihan barnetan, ezcur
debecua emana dugu: bertce herrietarat orobat
escribattu dugu daquigun arren ez dezaquegula deffen-
daric eman San Miguel ondoraino: bainan Icousten
10 duzue nasquy Çuen herrietan ere bertze urthetan
Baino aurthen Sassoinac goizago direla. Cassua
guerthatcen baliz Jaunac çuen partetic guc
cembait ordena berry errecibitcea guztu handire-
quin conforma quintazque çuen ordenanzary:
15 Esperanza dugu abissua emanaracico duzuela
çuen Vallean; eta guelditcen gare considerationere-
quin Cuen Cerbitzary humillac.
Bernardo Etchetto, Alcatea.

—10—

Donibane Lohitzungo Udalak Berakoari 1788an bidalitako bost
gutun, lapurketa bat dela eta (cfr. Irigaray 1972, Satrustegi 1986).

(1)

Egun martchuaren hogoy eta bederatcian m(...)
Saspi heun larogoy eta Sortcian, gure aintcinean (...)
Baile eta juratu Donibanen, aguertu da maistria
Ramos Sortces Espagnola, hogoy eta hamabi

- 5 urthetacoa, Donibaneco Barran lau urthe huntan
travaillatcen dena, ceñia egoten baita Ciburun
pierres Bereret, Barraco Entreprenuraren baratce
cañia baitan.
Declaratu daucu nola asteasquen Sandus travaillat(...)
- 10 celaric andre Duranen harrubian, Miguel Corbeñia
Espagnol batec, ceñia orobat travaillatcen baita
hemengo Barran eta egoten urrugnaco herrian suhia(...)
deitcen den giçon baten etchean, erran cioela pier(...)
Belasteguy Espagnolac, ceñia hiru urthe huntan
- 15 Barran travaillatcen baita eta egoten Echeverri
Ciburuco organistaren ama-guinarraren baitan
(...)uela (...)hanits, cer(...) erremu(...)
Dio nola harrubian lanean aicelaric astea (...)
Sandus aitu çuben travaillari guciei erraten o(...)
- 20 icendatu tugun borts giçon horiec eguin çuten
ohointça: erran du oraiño nola Belasteguy
bere lagunari eman dioen Valancieune deitcen (...)
estoffa bat galtça parebaten eguiteco, eta
hortaric Juanillo besta bat eguiñaraci du
- 25 Victoriano deitcen den dendari Espagnol ba(...)
egoten baita donibanen Maria Espagnola
harismendy Sariantaren etchiaren guibelian
emendatcen du Miguel Corbeñac Ba(...)
hunat ohointças Suspitchatuac diren giçon(...)
- 30 direla herri huntaric, Juanilloc hetaric
erran dubela Sanguessarat soassilla
Aguertu da gure aintcinean Victor(...)
eta erran daucu Juanilloc bere etcherat er(...)
dubela, eta erran den estoffatic yadan b(...)
- 35 (...)eguin dube(...)
baitio tassa Silharresco bat bi guiderreta(...)
erraten çubelaric cussina batec eman ci(...)
emaste hau entçayatu cela tassa harren
Saltcerat, chede hortan yudu bati offreitu
- 40 cioela, bainen ets cirela accordatu; ondoan
separatu cirela; esdaquiela yeussic guehiago.
Maria Joseph Otchoteco Ceñias mintçatu
baicare, presentian gure pressondeguian da accusu
hau dela caussa; interrogatu dugu eta declaratu d(...)
- 45 nola astelehen Sandus Verrarat gantcela confessatcer(...)
eta bidian bassa batian caussitu çubela tassa erran
dena, Bayonan eman dubela emastequi bati
Saltceco ceñiac Salduric Remettitu baitiotça
hamabi libera; estubela essagutcen emastequi hur(...)

- 50 eta haren icena esdaquiela; ignoratcen dubela
orobat nori tassa saldu dioen.
(...) egunian

(2)

- Jauna
Çuk galdeguiten duçun arguia pablo
Sarraten Sujetian, eçin pressentian eman
deçaquet Satifationeric çeren Barbera
5 egun goician donostiarat gana baita, hirur
egunençat, handic etortçen den pontutic
içanen dut çuri escribatçeco ohorea.
hemen presso dugun emastequi hunec
aitortu daut nola tassa cilar salduduben
10 hura, magdalen eraten dioten espagnol
Vrrugnan Elisalde baitan egoten den
batec eman çioela Baionan ostatu(...)
Salçeco, guihiago dena nola athorra(...)
haren aintçinian, emancioen bere (...)
15 Baionan nescato dagoenari eta h(...)
çen Belasteguy eraten dioten Bera(...)
eguin duben guiçon hetaric bat(...)
hogoibat Sujet gaisto presso quitug(...)
esda batere borts ohoin hetaric, esp(...)
20 dut oraiño hartuco tustela çeinbat.
Luretan balire Segura çintçaquet
Jauna, guelditcen çure betico
lejal Tausin maire
Donibanen apirilaren 1er. 1788

(3)

- Jauna Echalaren presso dagoen guiçon gaste hori da hemen dagon
cascon harguin bat, Andres hartchabaitan egoten çen Cofesatçerat
eliçarat gan eta buruba nahasiçajo, penetan guinen horen Sortias,
uste guinduben itsasorat ithotçerat
5 gançen, horen casuban esdugu aditu nihori bidegaberice eguin dioela,
ausarqui libra ahal desaquete; placer dugu jaquitias hor dela deitçen
da paul Sarrat, berac eran duben beçala.
Segura desasuque Juan Co(...)
10 nic escribatçen tudanac egui(...)
eta goraintçi ene partes(...)
guelditçen nais betico, j(...)
çure cerbitçari leja(...)
Donibanen apirilaren 2 an 1788.Tausin, alcalde.

(4)

Jauna Emastequi hemen presso dugun hunec declaratu daut tassa çilaresco bajonan salduba dena, Magdalen eraten dioten espagnol vrruñan dagoen batec emancioela salceco belasteguy deitçen den espagnol batequin çela bajonaco ostatu batian,

5

guihiago dena nola Magdalen diodan horec eman çioela atorabat, hunen ainçinian, bere alaba bajonan dagoenari. Segura da beraco ohointça eguin dutenac Vrrugnan direla, jaun Marquis de Caupenac emantu ordenac arrastaçeco, eçin oraino atçeman detçacete, baiñan ustedut atçemanac itçaten

10

direla.

(...)

eguiten diotça, eta ordena dugu castcec(...)

esbalinbadugu guihiagoco declarationeric

hargatic çuri Satifatione emateco atç(...) dut oraifio cembait egun.

15

Jauna guelditçen nais betiereco ç(...) Serbitçari lejal.

Tausin alcalde Donibanen 12 avril 1788.

(5)

Jauna. maribaitaco borda miratudut andre horequin Eta eçagutuditu bere oyaletic Eguinac bi

attora eta declaratuda hango guicona andre horec bere oyala eçagutu dubenean pepitac Saldu dubela oyal ori eta guicon hori preso hartu

5

dugu eta hatorac alchatu hartuco tuçu pipitaren ganic declarationeac eta gastiatuco (...) daroquçu cer Eguin guicon hortas andre horec berac gauça guciac eranen darosquitçu presa du Erretiraceco. Vrrugnan 27'an 1788. prialle yurat.

Oharrak

Bost gutun hauek Donibane Lohitzungo alkateak Berako ezkribau Martin Leguiari bidalitakoak dira.

Bertan ikus daitekeenez, zilarrezko katilu baten eta oihal zati baten lapurretaz egindako ikerketa judizialen berri ematen du.

Nahiz dokumentuok zenbait lekutan puskatuta egon, Irigaraik nahiz Satrustegik aitortzen duten eran, ikerketaren joan-etorriak erraz samar uler daitezke.

-11-

Orzaizeko andre batek bertako alkateari 1792an bidalitako gutuna, hark egin nahi zuen errotari buruz (cfr. Donostia 1934).

Orçaicen Emanan aboztuaren 25an(...)

1792:

- Yauna aspaldico Bottua complitcera doha(...)
gure Yaun meraren edo alcaldiaren partetic(...)
5 ama Birgina Biharamounian has-araciditu
Languilliac naça berri baten Eguiten aspaldy
danic famaturicaco Errotaberry baten Eguin(...)
arazteco, Çoines Eguinen Baitu hainitz perjudicio
10 Gure Eyharei edo Errotei, hora Certaco(...) parte
Eguiten dautçudan presentaco Lettra(..) huntaz
amoricatic Egon Citen prebenitua
Entrepresa berri-huntaz, Lehen Ere duellaric
asco vrthe hasi Cuten Errotta Berribat oraicoaren
Lekhutic vrrunago gure Errotatic, Bainan(...)
15 deffensac amanic Guelditu-ciren, Eta dembora(...) harc
Iraun-du orai arteraino Gu Batere(...) Intorrompitu
gabe, Bizquitartean oraico aldi(...) huntan hasten
dute errota Gorphutza, hirour Ehun vrhax Bederen
hurbilago Gure(...) 20 Errotari, Iduri Luque guisa hortaz
Ezdela(...) arraçoïn Gutiago Causitcen orain Ere deffensen(...)
orobat Emaiteco, noiz-eta Ere hasten Baitira(...) vraren
Barnian pressaren Eguiten Eta orduan, harismendico
Errotta deitcen denetic, Errotta(...) 25 Berri horren
Toquiraino, Esda secular İçanen(...) hirour Ehun vrrax
baino hambat Guehiago, (...) Ikhusaçou Erdiaren
hirour laurdenac Nausiarenac dire, Erdia Enia, Eta
Cortci-garren partia(...) particular Batena, Bertce
Errotta Garroco Deitcen denari Ere hoben handia,
30 Eguinen daco, Beraz Egonen Niz Çure respustaren
Beguir, nic neure partetic deffendiatuco naiz neure
ahallaz, (...) desiratcen nuque passaya Bat Eguin
Bacindeça(...) Toquiaren Gainera Localaren Bisitatcera,
dembora(...) 35 berean Bainuque placera Çuri neure
Salutacionia Eguiteco, Guelditcen nicalaric Çure Cerbitçaria(...)
Gracianne D'arrabit, Yn Lissagaren alhargouna;
Berceren Escuz; (...) Ene memoriaoc othoy
placer Baduçu andere(...) 40 Etchebertcy,
Bessarcitcen ditudalaric haur(...) chiquitchoac.

Oharrak

Ikus daitekeenez, Ortzaizeko Udalak egin asmo zuen errota berri baten aurka altxatzen da Gracianne d'Arrabit andrea. Itxuraz, errota berria beretik horren gertu egiteak kalte haundia sortuko zion.

Gutun honek badu, bestalde, beste berezitasunik: euskarazko testuak gaztelerazko itzulpena du, nolabaiteko itzulpen «ofiziala». Hauxe da:

dada en orzaiz a 25 de Agosto de 1792
Señor. El votto de aora tiempo ba a cumplirse de parte de ntro Alcalde: Al otro dia de nuestra Sra. ha hecho empezar alos Peones una Acequia nueva p^a el molino que havia fama de hacerse, quien hara mucho perjuicio a nuestro Molino, p^a lo que doy parte a vmd porla presente cartta paraq. estè prevenido de esta cosa nueva: ANtes ttamen. aora muchos años empezaron un Molino nuevo mas lexos del nuestro que el que se intenta aora, pero echas defensas seles hizo parar desu Construcccion, y aquel ttiempo ha durado hasta aora sin haverseos molesttado, y ès quando empiezan a hacer Molino nuevo, cuio cuerpo estara lo menos trescientos pasos mas cerca al nuestro. Parecia p^a eso quenose halla menos razon aora para defenderse lo mismo, quando empezasen dentro dela agua a hacer la Presa, pues enttonces desde el Molino quese llama de Arizmendi hasta el paraxe del Molino nuevo, proiecttado no habra 300 pasos. Vea vmd sobre estto què ordenes me quiere dar: De ocho parttes las [tres
son del Amo de este Palacio: la mittad dettado el Molino mia, y la octtaba parte, de un particular: Al otro Molino quese llama de Garro ttamen. le hara mucho perjuicio, y asi esperarè ala respuesta devmd, yo de mi parte me defenderè hasta donde pueda: desearia que vmd hiciese un biaje y ttendria mucho Placer desaludar a vmd. Quedando p^a servirle. Graciana de Arrabitt viuda de Juan de Elizaga
Por mano agena.

-12-

Itsasuko auzapezak Baztango alkateari azienden bazkari buruz
1807an bidalitako gutuna (cfr. Donostia 1934).

- Ixasun eguina Eraieroaren 22an 1807an
Ixasuco auçapeçac
Bastango Vailleco Alcate jaunari
- 5 Errecibitu-dut alcate jauna, halabethe hune 15an isribatu-dautaçun
letra, icustendut bailleac hartuduien determinationea errespetarazteco
bere lurrac, defendio-egunez franciaco acinder cuen mendietan bascacea
eta sesituz hetan harrapatuco-diren guciac.
- 10 icusten dut penarequin determinatione hunec içanen dituien Seguida
gaiztoac, çuc ere senticen-ahal tutçu çure partetic; badaquit
herri-huntaco habitant batçuen acinda bazquatcen dela çuen
mendietan, eta motivo hori dela medio pagatcen-dute çuen
mutillerri, belharraren saria; defendio horren medioz içanen
guira privatuac çuen mendietaco bazquaz, bainan acinda ecin
çainducoda, gureac iuanen dira çuenera, eta horcoac ienendira hunat
- 15 sesituco-tutçe gureac, eta hemengo guardec sesituco-tuzte çuenac, cer
içanenda gauca hauien seguida, injusticia garraitcia eta ohoingua;
othoisten-citut erreflezione eguiteaz casu hunen gainean, eta
esparança-içanendut moderationearequin gobernatuco-cirela.
Badaquçu herri-huntaco habitantec desiratu-dutela bethi çuequin
[adisquide
- 20 guisa eta baquian bicitcea, eta oraico ocasionc huntan ere, ez guinucque
bercela desiratcen;
Sentitcen duzu ez dela gure ganic dependitu decissione horren harcea,
guc gure partetic eguin-ditugu gure enseiu onac, bainan ez bada
gauça arribatu-guc desiratcen guinuien beçala ez dela gure falta.
- 25 Çuec eguin duçuen memoria-ez da présentatua içan çuen
embachadoriaz
franciaco ministroari, bada galdea sostengatua ez dela flacoada, eta
franciaco duanaco directurrac galdeguin duena minostroaz aprobatua.
egui-a-badere çuen acinda guti sarcenda herri-huntaco lurrean, bai
bainan-baitutçe auço herribatçu coinetaco acinda guehiago sartcen
- 30 baita gure auçotaco berce herri batçutaco lurretan, icusten dugu
diferencia horrec emaiten citustela necessitatean conformatceco
erran den decisionearen formalitatez, eta hori dela medio hartu duçuela
oraico determinationea.
- 35 Herri-huntaco habitant batçu intresatuac direnac edo hauien
arçainac présentatuco dira çure etchera, çoinec desiratcen baitute
çurequin antolamendu-eguitea, eta baldin hala beharbada ere
conbenitcea cer pagatu-bear-duten-çuen basca saritçat.
Esperança dut ungui errecibituco ditutçula, eta eguinen maneras
guciac bici-gaitecin unione onean.

- 40 Guelditcen-niz considerationné Parfete-
narequin, eta errespetagarrienarequin
Çure Çerbitçary
LUIS DAVID
Maire
- 45 Bastango Bailleco... Alcate Jaunari... Errazun.

Oharrak

Aurretik Sarako Udalak bidalitako gutunen tankerakoa dugu hau, hots, azienden bazka kontuetan sortutako arazoen ingurukoa.

Berriz ere, berezitasun bakarra euskaraz izatea du.

-13-

Urruñako merak Psaiakoari 1815ean bidalitako gutuna lapurtutako idi bati buruz (cfr. Arocena 1958).

Urugnen Marchoaren 11an, 1815an

Urugnaco Mairac

Passayaco Yaun alcatiari

Yauna

- 5 Errecibitu nuben bere demboran gauden Urtharrillaren seyian
escribatzeco ohoria eguin cinnautan letra, ceinna baitcen
nic orobat gauden abendoaren 28an escribatu cintudanaren
errepusta, idi ebaxi baten suyetian herri huntan Aguerreco
yabiari, ceina içatu baitcen hilla eta saldua çure hirico
- 10 fornidores eta (...) arguitan emana dioçu çure erran
lettran entretenitu ondoan affera hortaz çure aintcinneco
alcate yaunarequin ordena emana içatu cela erran den
fornidorrei aguertceco idi haren contuba eta pagatceco
haren montanta ceinna passatu behar baitcinduben M.
- 15 Ciprienen escubetarat nic othoistu cintudan beçala
icussiric ez cindubela çure promessa bethetcen, yaun
alcatia (...) idiaren yabiar(...) escribatu nautçun
berriz galdeguiteco çure autoritatia behar den justicia
holaco cassuban, letra hura eratuqui erremetituba içatu
- 20 citçaitçun eta ene erreclamationia legitimoo cen arren
ichiltassuna gardatu duçu ceinnac eguiasqui suprenitu
bainau eta ceinna secular ez bainuben eguinnen holaco
cassuban edo bertce cein nahi denetan ceinnetan ene
laguntça baliatuco ahal baitciçaitçun Gauçac estatu hortan

- 25 cirelaric Aguerreco jaunac suffritcen çuben çor
citçaisenaren escartias idiarentçat eta bertce alde hortan
sartu gabe çure ganat ethortceco eguin tuben biyayetaco
despendiac alcate jauna nola Jose Vitorio eta franciscu
Goicoechia çure hirico fornidorrac ohoinça hortaco cohentac
30 precio apalian erossi dutelaeran eta saldu questione den
idia nola diot gauden asteasquenian hemengo mercatuban
causitcen baitciren aguer araci nituben ene aintcinerat
pagamendubaren galdeguiteco, bainnan arroçoin funti gabe
(...) batçuben gainnian ceinnen gatic pretenitcen baitute
35 errecura içatia idia saldu diotenaren ganat, galde eguin
diotet eta contentatu nais pausa arastias M. Levaillant
herri huntaco habitantaren escutan berrehun pezetaco suma
bat ide ebaxiac balio çuben arren hañitz guchiago dembora
hartan, diru hori bere toquian egonen da Jaunalcatia, çuc
40 erreguelatcen eta ordenatcen duçuinno cer pagatu behar
duten salbo hequien errecura ohoinnaren contra eta
eguiasqui ungui urus bere burubac estimatu behar litu(...)
ceren ez dituzten perseguitcen eta ceren contentatcen diren
hequien paga arastias batçubec eta bertciac merecitcen
45 duten demboraren crimaren handitassunaren arabera eta gure
leguien arabera galerac.
Orain Jaun alcatia, galdeguiten dut çure justiciatic ceinna
billatcen baitut dubela aspaldi erreguela deçaçun eta
ordena Vitorio eta Goycoetchiari pagatciaz beriala nahiago
50 ezbadute justician sar nadin hequin contra eta has deçadan
affera bat ceinnac obligatuco bainau hequin guida arastias
Bayonnarat erregueren Jaun Procuradoriaren aintcinerat
ceinna ecin debecatuco baita hequien condemnatcetic gaztu
handitarat eta dembora bateco pressondeguirat çure ganic
55 dependitcen da hequiei desagradamendia ori evitactia.
Offreitcen dazusquitçut Jaun alcatia, ene serbitçubac parte
huntan eta salutatcen çaitut consideratione perfet batequin.
Balanqué - Maire.

Oharrak

Gutun honetan beste ikerketa judizial baten berri ematen da, pa-saitar batzuek Urruñian lapurtutako idi bat zela eta.

Argi ikusten da hau ez dela arazo honetan Urruñako alkateak egindako lehen gutuna, eta Pasaiakoaren isiltasunak haserre bizian jarri duela.

-14-

Bidarraiko alkateak Baztangoari azienden bazkari buruz 1876an bidalitako gutuna (cfr. Satrustegi 1986).

Commune de Bidarray
monsieur la Maire de Bastan

Fagorebat galdacendut Bastango Juntary; herri hau mugacenda Termino pochibates Erraçu eta Hariscunequin badu faceria

- 5 termino pochibat içendatua ardi bacarra bortz sos erranahidut bouruco soldobat pagatus. Orai artean galdatcen dudan diferencia: 1.- Mugatic acinda bera utz eta arcainic ez libro ardien tratacera Espaigniaco lurrian eta gau etzatez Erretiratcera

- 10 libro arcaina. Halahala frances ardiac sarçen badira nic. Orai usthe dudan baino Espaigniaco Territorian barnago Espagnola guibelerat bultatçera libro eta ardi bacarra paga buruco Orai baino sos bat guehiau erranahidut soldobaten plaçan sei sos paga.

- 15 Gracia hori escatcendut urthebaten ikusteco eta nihory Macurric écartcen badu dretcho duen beçela bastanec asquidu quençea berce urthean.

Salutacen çaitut beharden Errespetuez.

Bidarray le 5 Juin 1876. Le maire Cévarry.

Oharrak

Arreko Sarako eta Itsasuko alkateen gisako gutuna dugu hau ere, azienden bazkak sortutako arazoez alegia.

Alabaina, oraingo honek badu halako hitzarmen proposamen baten itxura: adostasunean jartzeko baldintzak eskaintzen dizkio Baztango alkateari.

Bibliografia

Apat-Echebarne A. (1971), *Noticias y viejos textos de la «Lingua navarrorum»*. Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.

Arocena F. (1958), «Paper zaarretan begira», EGAN XIII: 145-146. Donostia, RSVAP.

Carrión I. (1985), «Una carta de 1726 escrita en euskera procedente del Archivo Municipal de Hernani», BAP XLI, 1-2:372-374. Donostia, RSVAP.

Donostia P. Jose Antonio (1934), «Textos euskéricos del siglo XVIII», RIEV XXV, 4:688-695. Donostia, Eusko Ikaskuntza.

Irigarai A. (1972), «Cinco cartas eusquéricas del Ayuntamiento de S.J. de Luz al de Vera (de 1788)», FONTES LINGUÆ VASCONUM 12:345-351. Iruñea, Insitución Príncipe de Viana.

Irigoyen A. (1962), «Carta en lengua vasca dirigida en 1683 desde Bilbao por Fermin de Basautiluaso a Joanes de Callo, a San Juan de Luz», EUSKERA VII:259-269. Bilbao, Euskaltzaindia.

Satrustegi J.M. (1986), «Correspondencia vasca oficial del siglo XVIII», FONTES LINGUÆ VASCONUM 47:125-149. Iruñea, Institución Príncipe de Viana.

— (1987), *Euskal testu zaharrak*. Iruñea, Euskaltzaindia.

Zudaire E. (1968), «Correspondencia epistolar facera», BAP XXIV, 3-4:377-383. Donostia, RSVAP.

PUNTUZ PUNTU

Itzultzaileen Nazioarteko Federazioak munduko kultura ministroei eginiko deia

Ministro jaun/andreak,

XXI mendearen atalaurrian, itzulpengintzaren egitekoa izugarri hedatzen ikusten ari gara, kultura nazionalen garapenean, munduko prozesu kulturalean, eta baita herrien arteko komunikazioan ere. Itzulpena eta informazio itzulia ez dira sekula honen ezinbestekoak izan zientzia, literatura, kultura eta nazioarteko harremanen aurrerapenerako. Itzulpengintzak lehenago ez bezalako hedapena du, itzul-tzaileen funtzio soziala gero eta garrantzitsuagoa da, eta berauen lanak izugarritzko oihartzun zabala du.

Joera hauek, sekula baino gehiago, eskatzen dute itzulpengintza serioski hartu eta itzultzaileen estatus sozial, kultural eta profesionala orokorki hobetzea. Itzultzaile eta argitaratzaileen arteko harremanak, itzultzaileen heziketa, ordainketa, eskubideen babesa, eta beraien izen soziala eta kulturala hobetzea ere, etorkizunera begira aztertu beharreko arazoak dira.

Kontestu honetan, Itzultzaileen Nazioarteko Federazioaren (FIT) papera, itzultzaile elkarte nazionalen erakunde onegile gisa, gero eta handiagoa da. FITek 62 elkarte nazional biltzen ditu, eta UNESCOren aholkulari estatus gorena du, «A» kategoriako elkarte ez gubernamental gisa. FITeko sare eta aktibitateak kontinente guztietara zabaltzen dira, eta helburua dute, munduko edozein lurraldetan itzulpenak eta itzultzaileek dituzten arazoak konpontzea.

Itzultzaileen Nazioarteko Federazioak zuen laguntza eta bitartekotza eskatzen ditu, honoko arlo hauetan:

Lehenengo, uste dugu garaia dela azterketa orokor eta zehatza egiteko nazio bakoitzeko itzulpen arazoez, egoera ebaluatu eta berehalako erantzuna eskatzen duten arazoei heltzeko. Gure errespetu guztiarekin eskatzen dizuegu ekiteko azterketa horri zuen nazioko itzultzaile elkarteekin, beraien esperientzia eta konpetentziaren laguntzarekin. Oraindik itzultzaile elkarerik ez badago zuen nazioan, itzultzaile ospetsuengana jotzea litzateke zuzenena.

Oharterazi nahi dizuegu, gainera, itzultzaile profesionalen elkarrekin beharraz, eta eskatzen dizuegu ahalegina egiteko sortu eta gara daitezen. Konturatu gara mundu zabalean zehar ezin direla itzulpen arazoak konpondu nazio barruko eta nazioarteko itzultzaile eta interpretarien ahalegin konkretua, konpetentzia profesionala eta iharduera antolatuaekin ez bada. Beraz, zuen aldetik harrera positiboa espero dugu, eta euskarri zintzoa, itzultzaileen elkarreentzat.

Bigarren, gonbidatu nahi zaituztegu zuen herrian aztertzeraz zein mailatan aplikatzen den «Itzultzaile eta itzulpenen babes juridikoaren gomendioa, eta itzultzailearen egoera hobetzeko bideak», UNESCOren Konferentzia Orokorrean onartutakoa, 1976ko azaroaren 17an, Nairobin. Eskaera honen arrazoiak dira, bai aipatu dokumentuak duen garrantzia bera eta baita zenbait naziotatik jaso dugun informazioa ere, non adierazten zaigun, Gomendioan erabakitako itzultzailearen estatus juridiko eta sozialaren oinarritzko hobekuntzak ez direla betetzen, dokumentu horretan aurrikusten ziren neurri konkretuak UNESCOren 143 nazio kideek onartuak izan arren.

Gure *azken puntua*, baina ez garrantzi gutxienekoa, heziketa da. Gure eritziz, benetan, arreta berezia eskaini behar zaio itzultzaileen heziketari, perfektionamenduari eta aurrerapen profesionalari, batez ere belaunaldi gazteko itzultzaileei. Gure ustez, beharrezkoa litzateke bi mailatan heltzea arazo hauei; nazio mailan, herri bakoitzean neurri egokiak hartuz, eta nazioarte mailan, gomendio konkretuak egin eta onartuz, heziketa, promozio profesionala eta itzultzaileen eskubideen

babesari dagozkien nazioarteko laguntzak arautzeko. Kontu hauek ez dute merezi duten arretarik jaso nazio askotan.

Horregatik, FITek deialdia egiten dizue kontuotan aurreratuen dauden nazioekin trukaketak eta laguntzak bultza ditzazuen eta, etorkizunera begira, arazo hauetan har ditzazuen beharrezko neurriak.

Zalantzarik ez daukagu, gure deialdia adituko duzuela, gure federazioaren asmoa bait da, gaurko munduko itzulpengintzari laguntzea, eta sinetsi nahi dugu ez zaretela geratuko beharrezko neurriak hartu gabe.

Eta besterik ezean, Ministro jaun/andreak, honekin batera adierazten dizugu gure begirunerik zintzoena duzuela.

Itzultzaileen Nazioarteko Federazioaren izenean,

Anna Lilova, Lehendakariak

René Haeseryn, Idazkari Nagusiak

(Beatriz Zabalandok itzulua)

IUVAN XESTALOVEN GUTUNA

Eva Thót

Ondoan datorren manifestu edo dei hau Iuvan Xestalov idazle mansi edo bogultarrak egin du. Hungarieraz lau liburu argitaratuta dituen poeta eta narratzaile honek jakin erazi zidan nola bere herriko 7-8 mila lagunetatik erdiek bakarrik hitzegiten duten gurasoen hizkuntza; bakarra dagoela sokazko musika tresna tradizionala jotzen dakiena; mansi herriaren batazbesteko adina, 42-47 urtekoa dela; biztanlegoaren erdiak tuberkulosia duela; bogultarren hileko soldata batazbestekoa 26 errublokoa dela, beren herrian bertan petrolioa ateratzen lan egiten duten langile errusiarrek milana irabazten duten bitartean.

* * *

Jaun agintariak, buruzagiak!

Entzun, belarriak dituzuenok!

Ulertu, aditzen duzuenok!

Orain gauza bakarraz baino ez naizela arduratzen, ulertu dut hil behar dugula ez bakarrik fisikoki, baizik eta izpiritualki ere bai.

Orain arte, inozoa izanik, ipar herrietako gehientsuenak bezala, uste nuen herri txikiak, izpiritualki bederen, biziko zirela, arima ez bait dago herri bateko bizilagun kopuruaren menpe.

Nola liteke, abestu eta kontatu egiten duen herri txiki baten arima eta energia artistikoa, jende kopuruaren arabera egotea, eta gizar-tearentzat balio gutxikoa izatea?

Ez al daude herri txikietan balio paregabekoak, herri handiek galtzera eraman dituztenak? Esaterako, memoria historikoa: hiz-kuntza, folklorea, sendabideak, tradizioak... milaka urtetan landu-tako oroitzapenak...

Zenbatu al liteke gizonarengan metatutako guztia? Naturaren konputagailu handi horrengan metatutako guztia?

Zeren, badoazenez esatekorik asko dute. Historiaren kapritxoak, patuarenak, Iparraldera eraman ditu, mendietara eta mendietatik harantzago, zingiretatik harantzago, izotzetan harrapatutako uretatik harantzago... Eta Lurreko hozkailu natural honetan gorde dugu gure hizkuntzan, gure kulturen, aintzinako zibilizazioen jakituria.

Zeinek jakin, lurralde artikoetako herri txikiek, mendi garaitezi-netakoek, ozeanoetako irla misteriotsuetakoek, aintzinako zibiliza-zioetako azken hondarrak diren hauek ez ote duten iraun, herri han-diek gogoan izan dezaten, beraiek ere antzeko etorkizuna izango dutela, ulerkorragoak izan ezean.

Herri handietako seme-alabak, zeinen gorak zareten! Handike-riaren mozkor-itsuak ez dizue uzten ez entzuten ez eta ikusten, herri txikien ez erregu, ez eskari ez eta negarrik. Lastima!

Gaur zuengana ekarri nauena da, herri fino-ugriarren organua izango den STERJ aldizkariaren sorrera; BELI ZHURAVL [«kurrilo zuria»] egunkariaren argitaratzea eta herri txikietako idazle eta ikertzaileek idatzitako liburuen kaleratzea. Ez dadila gertatu hitz sakon eta jakite handikook jatorrizkoentzako altxor hutsean geratzea. Guzti honetatik argitaratzen den gutxia urruti egiten da, gehienetan atze-rrian. Liburu mila argitara litezke balio paregabekoak. Baina esaten dute ez dagoela paperik. Inprimategiak ez dira gureak. Loraldi iz-piritual baten itxaropena ernarazi zuten komunistek onartu egin dute beren ezintasuna. Gainontzekoek, dirudienez, pozik diraute beren

business-etan. Txikien arazoak eta eskaerak huskeriak irudituko zaizkie, nahiz eta arimaren salbazioa ahulenari laguntzean dagoen.

Posible ote da Lur eder honetan inor ez egotea inspirazio guran? Homo Sapiensaren gizatasuna arimaren hondoraino iritsi ote da, Naturaren azkeneraino?

Azkenekoz eskatuko dizuet:

Entzun iezadazue, lagun iezaguzue!

Budapest, 1991ko ekainaren 17an.

(Beatriz Zabalondok itzulia)

Oker ez banago

Gotzon Egia Goienetxea

Itzulpen eta terminologiazko aldizkari batean, gezurra badirudi ere, itxuraz besteko gauza anitz topatzen ditu irakurle xehezaleak (ikus SENEZ 5:1-2; aurrerakoan orrialdea besterik ez dut adieraziko). Adibidez: akatsak. Hara sorta eder bat.

Aldizkaria zabaldu, eta inora baino lehenago, aurkibidera. Bertan (7 or.) argitzen da, ondo argitu gero, «Koldo Izagirre» pasaitar idazlea *Koldo Izagirre* bera dela. Eskertzekoa da gaur egun nortasun arazorik batere ez izatea.

Itzulpenaz ari den aldizkariak baditu gero bere, nolabait esateko, itzulpenak. Adibidez, «Hego haizea eta euskal literaturan dituen ondorioak» (101 or.), agian hego haizeak berak eraginda, edo guztiz jota, «Translation among the languages of Spain: Present» (108 or.) gelditzen da, halaxe, ingelesez.

Jakina, ez nau oso harritzen hurrengo lerroan «The Basque speaker is afraid» (108 or.) aitortzeak: ni ere halakoetan arrunt beldurrruta egoten naiz.

Baina, urrutira gabe, itzulpen aldizkari honek argituko digu tajuz zer den «itzulpengintza» (155 or.): horrek «lingüística y traducción» (169 or.) esan nahi du, inork ez baleki.

Neroni ere konturatua naiz itzultzaileak ondo zorroztua behar duela bere ezpata, gainera datorkion zamari aurre nahi badio egin: izan ere, hain dira hitzak astunak, hain «terminolodiak» (155 or.).

Adibide bat jarriko dizuet: «japonieraren berezitasunak eta zailtasunak itultzeko orduan» (192 or.). Neronek, garbi asko esango dut, ez neke halakorik egiten, ez japonieraz ez eta txineraz ere, jakina.

Jatorriz «itzultzaile es den» (112 or.) bati «hiskuntza berez oso urrutikoa gertatzen» (192 or.) zaio, «itzultzaileak hispuntza guztien aurrean duen jakinminagatik» (192 or.).

Zergatik ote da? Euskal itultzaileak baditu, izan ere, oso berezitasun bereziak: «another peculiarity of the Basque translator es related to his knowledge of Basque» (60 or.). Ulertu ez duenak zabal bitza belarriak: «it is eho must create the terminology» (60 or.).

Baina ez sobera larritu. Euskal itultzaileak ba omen ditu laguntzaileak, esate baterako hiztegiak. Zahar askoak batzuk: «el diccionario de Silvain Pouvreau (s. XII)» (169 or.), nahiz hogeitabost lerro beranduago 105 mendetan gaztetzen bada hiztegi pobre hau: «the dictionary by Silvain Povreau (c. 117), for its modern approach» (170 or.), ezin bestela izan.

Laguntza gehiagorik nahi al duzue? Ikasi. Non? «Kanadako Unibertsitatean» (194 or.). Zer? «Enseignement de la terminologie» (194 or.). Kito.

Hain urrutira gabe, badira gertuagoko ikasketak: «Interpretaritzari buruzko ikastaroak Gasteizen» (215-219 or.). Etxe honetako zuzendari berri-berriak apailaturik, artikulo honek lau paragrafoto mardul eta trinko bezain sendotan laburtzen digu han esandakoa. Hitz bitan, bigarren paragrafoak 61 lerro eta laugarrenak 57 harrapatzen ditu. Bada, beraz, non murgildu.

Edonola ere, ezin dut azken aitorten hau gordean utzi: «ez dakit munduan beste herririk dagoen praktikan hizkuntz zuzentasuna hain axola gutxi zaionik (...) zuzentzailearen figura errebindikatzeko dut berriro lerrootatik» (233 or.). Gatzeko irudi bihur nadin gezurrik badiot: hitz hauek ez ditut nereak, aldizkari batetik hartuak baizik. Itzulpen eta terminologia aldizkari batetik.

«Caleco biarguiñac basarricueri elesiñuen gañian» edo eguneroko kontuak euskaraz eman ezina gezurtatzen duen testua

Begoña Azpiri

Edo agian, «geure burua engainatu nahian ibiltze horrek dakartz-kigun duda-mudak egunerokotasun arruntenaren aurrean» behar luke izan ez-saio honen izenpuru. Hala edo nola -hiperkritiko xamarrak izanda, hobe «edonola»-, izan badugu nolabaiteko itzul-testuak moldatzeko, baina mendi ibilaldirik ximpleenaren deskripzioa egiterakoan, panfleto politikorik arruntena geureratzean edonon topatzen dugu makina bat traba eta oztopo: holako hitz horrek halako beste ulerkera ere baduenetz sartu ezina dela, hurrengoak maileguegia dirudiela, beste puntako esaldi hark juxtu esan nahi denaren kontrako itxura duela...

Askok dira eguneroko gauzak sarritan horren zailak suertatzearen arazoak, baina inguruko euskararenganako hurbiltasun ezak eta itzultzailearen urruntze-desio inkonszienteak dirateke bere eginbeharraren etsairik nagusienak, gauzarik xumeenak hain artifizial izate horren faktoreak.

Aspaldi batean, Eibarko sozialisten alderdiak argitara ematen zuen *Adelante* aldizkariaren orriken artean, 1902. urteko orrialdeen artean zuzenki, «Caleco biarguiñac Basarricueri Elesiñuen» izeneko manifestua agertu da Pablo Iglesias Fundazioan, norbaitek, egunen batean deskuido zuten han utzi izan balu bezala. Zein urtetakoa den zehazteko klabe batzuk ageri dira bertan: «biarguiñen soziedadiak» mende haserakoak ziren, *Truck-system* ingelesezkoa «trukian» ei-

barreratu zuten garai hartakoak. «Guere artian apartautaco guisonac... eruatia gueure votuequin Ayuntamentura» esaldiak 1931ko apirilaren 12rako biargin edo langile haiek egin nahi zutenaren berri ematen digu, eta guretzat garrantzi handiagokoa dena: gizartearen arlo guztietan euskaraz ederto asko mintzo zen gizon baten eskua daku-sakegu izkutuan lerrootan, Aquilino Amuateguirena.

Historia kontuak historiagileentzat direnez, gu, hasierakoaren haritik berrabiatuko gara, «Caleco»-an, eguneroko kontuak euskaraz emateko bideak eta erreferentziak, oratzeko modukoak eta kontuan hartzekoak direlakoan gaude eta. Freskotasuna dariolako, esateko modu arina baina ez edozelako euskara arinean egina delako, horra doakizue adibide gisa SENEZera.

Caleco biarguiñac Basarricuери Elesiñuen gañian

Elesiñuetaco demporan icustendosue bastarra gustiac comprometitzen sela ibiltzen diran votua quentzeco, eta gueyena gusurra, jaunchuac voto batzallien bitartes darabiena; eta onegaichic pentzaudogu caleco biarguiñoc basarricuери, aitzen ematia serbait ser pasatzendan calian.

Urte guchi dala biarguiñoc guengosen, ascomodutaco ugasaben gusurrequin biarreco presiuaс galduta, alcarren beserueri campuan mercatzen etzen armia, eta bearguiñen lepora jausten sen erresultaua; merqueta ondo sela esifi lei-quian eifi biarric, escopetia desacreditauas oian egunetic egunera, eta orregatic biarra guichitzen, ala eta gusti ere basarrico mutilles betetzen tallar gustiac eta gentia sobratzen san, gueuc ere lenas gañiera alcarren contra mercatzenraño, eta gueldituguifian criauric ere mantenidu

esifi eta atzera euren echetara bialtcen guendusela.

Eta biarric charrenac eguiten situen ugasabac, errico biarra desacreditatzen sutenac, amar valio suen gausegachic iru aintzen suenac, eta erria osticopian artzen se biltzanac, gure desgrasiac aprovechauta dirua aurreraterá llegalausiran, eta gaur dirua daucana sela dan jauna, nais eta edoser isan, pentsaisu selaco jaunchuac diran batzuec, ichu ichuan votua emoteco.

Piscabac mejoratzeco pentzau guenduan biarguiñen Sosedadia eichia; presio obiac ipiñi gueure biarrieri, gueuc probauta biarra entregau ugasaberi acreditaudeiñ escopetia, eta criau larregui es artu, euroc eta gueu sobrau es gaichian barriro, esta beste onelaco errian comenisiran gausa on batzuec eicheco.

¿Uste dosue aintzallec, uguesaba audic, edo jaunchoc lagunduescunic?

Ona sala ori danac esaten escuen, baña iñoc ere es lagundu; eta gueuc biarguiñ guisajuoc maquiñabat gau eta dempora galduta, eta pauso emonda conseguidu guenduan ofisiuetaco Sosiedadiac eichia, eta desio guendusen gausa asco conseguitzia; eta gaur dagos Eibarren Sosiedadiac presiuc jaso eta jateco beste irabastendabela len irabasten es eban asco; biarra obia eichenda eta gente guchiago sobratzenda oraifi, biarran creditua gueichu da, eta errira dator asco diru gueyago; eta calia sembat obeto dabillen basarria ere obeto ibiltzendana danac daquigu; eta gura dogu ejempluau erri gustian sabaldu, biarguiñ gustiac gueu besala obeto jarri deichian, eta dano bat eiñda iñdar gueyago daucagulaco, eusteco conseguidu dichugun gauseri eta aurrerá juateco asi garan birian.

Dabiltzas oraifi jauncguac nundic gure sosiedade ederrac apurtuco, eta nundic biarguiñoc benderago artuco, eta nundic lagun batibe biarguiñan aldeari Ayuntamentura juaten es lagaco; eurac nai daben moduan erria manejatze; eta aspertugará osticopian euquigura gai-chuen guisonac gueure votuequiñ gueuc aintzen ipinches.

Orregaichic lenguan batuguñan saloyan biarguiñ daneri deichuta, eta pentzatu guenduan gueure artian apartautaco guisonac Sosiedadiequiñ eta biarguiñequiñ ondo beti portau diranac eruatia gueure votuequiñ Ayuntamentura, biarguiña defenditze.

Sobre larregui desgracias icusi dogu, goicharrac eta betarrocc biarguiñen mejoren contrariuac dirana, eta gueuc apartauta cuac gueure votuequiñ ataratzes badichugu contrariua besteric aintzen euquico estoguna.

Caleco biarguiñac eiñgo dogu aleguiña biarguiñari triunfua emoten; emen votua voto dala, seguru daucagu triunfua; baña basarricucri besela amenasuac emoten descues, vоторic votatzen es badogu contrariuan favore, echetic quentze aintzeraño.

Baña votua sela dan norberac naidabenari votatze, votantiac nai dabena aintzen ipiñicheco, es edoseiñ guisonec iñori quendutaco votuequiñ berari conveni jacosen guisonac aintzen ipiñicheco: leguian debecauta dago iñori votua quentzia amenasuequiñ eta compromisuequiñ; nai saltzia eta nais erostia, nais aintzia voto truque edoser gausa, nais venetan, nais gusurrarequiñ generalian eichen daben moduan.

Eta guc biarguiñoc gura dogu votua voto isandeilla, Ayuntamentuco eiñ deichian erriac nai dichuan guisonac, eta es comprometedorienac eta tramosuenac. Orregachic quejauc gara biardan lecura, votua biar estan moduan quentzen dabeneigaichic, eta justicia billa juan gausia isandeñ biardan moduan, eta topatzen es badogu es daualaco biarguiñari norc entzun arrosairic; gueu obligauco gará eichera. Eta uste dogu suer ere lagunduco descusuna gausa guichibat biarguiñan favorecuac ataratzes.

Biarguiñen parteco comisñaua.

IRUZKINAK

Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea.

BABEL. Revue Internationale de la Traduction. Publié pour la Fédération Internationale des Traducteurs avec le concours de l'UNESCO. Revue trimestrielle, consacrée aux informations, aux progrès et aux recherches dans le domaine de la traduction et de l'interprétation. International Journal of Translation. Published for the International Federation of Translators with the assistance of UNESCO. Quarterly journal devoted to information, development and research in the field of translation and interpreting. Vol. 36. No. 1/1990.

Sommaire — Contents

Articles

BISTRA ALEXIEVA: Creativity in simultaneous interpretation.

J.K. DICKINSON: Ernst Bloch's 'the Principle of Hope': a review of and comment on the English translation.

GYÖRGY RADO: Hungarian literature in translation: a historical survey.

HENRI VAN HOOF: Traduction biblique et genèse linguistique.

Le monde de la Traduction — The World of Translation

La vie de la FIT — The life of FIT.

Conseil — Council.

Commissions et comités — Commissions and committees.

Publications de la FIT — FIT publications.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives — UNESCO Collection of Representative Works.

Agostinho Neto: *Sacred Hope* (Willem Bossier)

Informations bibliographiques et lexicographiques — Bibliographical and Lexicographical Information

Gerhard Helbig: *Lexicon deutscher Partikeln* (Ad Foolen) — Richard A. Strehlow: *Standardization of technical terminology: principles and practices* (Rita Temmerman).

Forum

J.C. SAGER: Professional examinations for professional translators.

From our readers

BISTRA ALEXIEVAren artikuluan, aldi bereko interpretaritzaren (AI) kreatibitatea aztertzen da, beti ere A. Lutzkanov-ek prozesu kreatiboaz ematen duen definizioaren arabera, alegia, arauz kanpoko aukeraketa oinarritzen denaz. Arauen barruan aztertzen da justifika ezina den aukeraketa noiz egiten duen interpretariak, eta zentzuk dituen aukeraketa hori egiteko arrazoiak: a) kontestu falta, eta b) aukeraketa egokia eragozten duten komunikazio egoeraren elementuen berezitasunak.

Bigarren artikuluan, Ernst Bloch filosofo alemana (1885-1977) eta beronen lanaren garrantzia azpimarratzen dira, batez ere, *Das Prinzip Hoffnung* obrakoa. JOHN K. DICKINSONen ustez, bai gizona eta bai obra, Estatu Batuetan erbestean zela idatzia izaki puska handi bat, hobeto ezagutarazi behar lirateke herri horretan. Baina Blochen *magnum opus*-aren ingelesezko itzulpenari txukundade minimo batekin ekitera, exigentzia minimo batzuk ere planteatu behar dira. Eta autorearen iritziz, Knight eta Plaice-k eginiko itzulpenak (1985), ez die erantzuten beharrei, nahiz eta ahalegin handiko lana egin duten. Dickinson luze aritu da artikulua honetan eta azterketa sakona egin du testuaren gainean adibide eta guzti, bere epaia frogatzeko.

BABEL. Revue Internationale de la Traduction. Publié pour la Fédération Internationale des Traducteurs avec le concours de l'UNESCO. Revue trimestrielle, consacrée aux informations, aux progrès et aux recherches dans le domaine de la traduction et de l'interprétation. International Journal of Translation. Published for the International Federation of Translators with the assistance of UNESCO. Quarterly journal devoted to information, development and research in the field of translation and interpreting. Vol. 36. No. 2/1990.

Sommaire — Contents

Articles

MARSHA BENSOUSSAN & JUDITH ROSENHOUSE: Evaluating student translations by discourse analysis.

HUG GENSHEN: An exploration into sci-tech interpretations: Abstract interpreting approach.

FAN ZHONGYING: Some remarks on the criteria of translation.

Le monde de la Traduction — The World of Translation

La vie de la FIT — The life of FIT.

Sociétés membres de la FIT — FIT member societies.

Sociétés membres associées — Associate member societies.

Publications de la FIT — FIT publications.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives — UNESCO Collection of Representative Works.

Gyula Krúdy: *Sindbad ou la nostalgie* (György Radó).

Informations bibliographiques et lexicographiques

Bibliographical and Lexicographical Information

Henri Van Hoof: *Traduire l'anglais. Théorie et pratique* (John D. Gallagher) — G.G. King: *Elsevier's Dictionari of Electronics* (John Cairns) — Matysek Heinz: *Handbuch der Notizentechnik für Dolmetscher, ein Weg zur sprachunabhängigen Notation* (Liese Katschinka).

Ez da lehenengo aldia, BABELen itzulpen kasetako ikasleekin egindako lanen berri ematen dutena. Oraingoan, M. BENSOUSSAN eta J. ROSENHOUSEK Haifako Unibertsitatean, lehenengo mailako ikasleekin izandako esperientziaz hitzegiten digute. 530 hitzeko ingelesezko testua itzuli behar izan zuten ikasleek, bakoitzak bere ama hizkuntzara: 31k hebraierara eta beste 31ek arabierara.

Itzulpenetan jatorrizkoarekiko fidelotasuna aztertu zen, bi mailatan: mikro-mailan (hitzak, esaldiak, perpausak) eta makro-mailan (proposizioak; funtzio komunikatiboak, inplizito eta esplizitoak; hiztegia eta espresioak; aditz denborak; egokiera gramatikala izen eta izenordeen artean; kohesioa; estilo onargarria).

Bi taldetako emaitzek erakutsi zuten, testuaren ulertzea ez zegokiola akats kopuruari, baizik eta akatsok egin diren mailari: Adierazgarriagoak ziren makro-mailako hutsegiteak, batez ere funtzio komunikatibo inplizitokoak ulermen faltan, mikro-mailako akatsak baino (hiztegikoak, esaterako).

HU GENGSHENek interpretaritzari buruzko lana eskaini digu bigarren artikuluan; zehazki esateko, interpretaritzatza tekniko-zientifikoari dagokiona. Autorearen iritziz, komunikazio zientifiko eta teknikoetako interpretari lanak, modu abstraktu edo sinplifikatuan egin daitezke, beste arlo batzuetakoa ez bezala; kontuan hartuz beti ere, interpretatu behar den gaia bera, parteartzaileak, egoera eta beste zenbait faktore. Lan egiteko modu honi deitzen zaio "Interpretari lanaren hurbilketa abstraktoa" (Abstract Interpreting Approach). Txino-inglesezko eta alderantzizko adibidez lagunduta, hamar egoera eta baldintza aztertzen dira interpretari lanaren hurbilketa abstraktoa modu praktikoan egiteko. Hauek dira probetxu atera behar zaien faktoreak: 1) parteartzaileek duten diskurtsoko hizkeraren ezaguera sakona; 2) bi talde lingusitikoen arteko kooperazioa; 3) interbentzioetan erabilitako zifra eta taulak; 4) mezuaren redundantzia jatorrizko diskurtsuan; 5) hitzaldietan erabilitako ikusentzutezko laguntzaileak; 6) pertsona tekniko-zientifikoek erabiltzen dituzten "termino teknikoak"; 7) aldian behin kontrakzio formako hitz eta terminoen erabilera; 8) bietako talde linguistikoko batek edota biek duten informazio kopurua; 9) jatorrizko diskurtsuan errepikatzen diren espresioen laburtzapen eta fusioak; eta 10) zenbait egoera eta baldintza berezi. Autorearen ikerketaren ondorioa da, interpretari lanaren hurbilketa abstraktoa, egingarria dela eta oso aproposa nazioarteko komunikazio eta interkanbion.

FAN ZHONGYINGek dio, gaur itzulpen lanari buruz dauden irizpideak arazoak planteatzen dituztela, eta beharrezkotzat jotzen du irizpide ideal eta praktikoa erabakitzea.

Berak proposatzen duena da, itzulpenaren kalitatea epaitzea sortzen duen efektuagatik, edo mezuak hartzailearengan eragiten duenagatik. Beste modu batera esanda, eragina, jatorrizko mezuak bere hartzailearengan sortzen duen inpresioaren antzerakoa bada, itzulpena ona izango da, nahiko ona behintzat. Horrela izan ezean, itzulpenak ez du ematen espero zitekeen mailarik.

BABEL. Revue Internationale de la Traduction. Publié pour la Fédération Internationale des Traducteurs avec le concours de l'UNESCO. Revue trimestrielle, consacrée aux informations, aux progrès et aux recherches dans le domaine de la traduction et de l'interprétation. International Journal of Translation. Published for the International Federation of Translators with the assistance of UNESCO. Quarterly journal devoted to information, development and research in the field of translation and interpreting. Vol. 36. No. 3/1990.

Sommaire — Contents

Articles

BEATE HERTING: Transformations lexico-pragmatiques dans la traduction: leur nécessité, justification, leurs classes et effets pour le texte traduit.

EUGENE A. NIDA: The role of rhetoric in verbal communications.

SUSAN SARCEVIC: Strategiebedingtes Übersetzen aus den kleineren Sprachen im Fachbereich Jura.

ASTRID SEELE: Die Hochzeit der Sprachen — Ein allegorischer Beitrag zur Geschichtsschreibung der Übersetzung.

Le monde de la Traduction — The World of Translation

La vie de la FIT — The life of FIT.

Conseil — Council.

Commissions et comités — Commissions and committees.

Publications de la FIT — FIT publications.

Collection UNESCO d'œuvres représentatives — UNESCO Collection of Representative Works.

Eça De Quiros: *Le cousin Basilio: épisode domestique* (Marie Claire Vromans)

Informations bibliographiques et lexicographiques

Bibliographical and Lexicographical Information

Mary Snell-Hornby (éd): *ZüriLEX'86 Proceedings. Papers read at the EURALEX International Congress, 9-14 September 1986* (Dr. F. Claes S.J.).

Forum

Appeal by FIT to the World's Ministers of Culture — Appel de la FIT aux ministres de la culture du monde.

BABEL. Revue Internationale de la Traduction. Publié pour la Fédération Internationale des Traducteurs avec le concours de l'UNESCO. Revue trimestrielle, consacrée aux informations, aux progrès et aux recherches dans le domaine de la traduction et de l'interprétation. International Journal of Translation. Published for the International Federation of Translators with the assistance of UNESCO. Quarterly journal devoted to information, development and research in the field of translation and interpreting. Vol. 36. No. 4/1990.

Sommaire — Contents

Articles

ARTHUR GODMAN & ROBERT VELTMAN: Language development and the translation of scientific texts.

MLADEN JOVANOVIĆ: On translating titles.

GYÖRGY RADÓ: A propos du bicentenaire de la Révolution Française. Trois poètes-traducteurs hongrois enthousiastes de la Révolution Française.

Le monde de la traduction — The world of translation

La vie de la FIT — The Life of FIT

Conseil — Council 1990-1993

Commissions et comités — Commissions and committees

Publications de la FIT — FIT publications

Collection UNESCO d'œuvres représentatives — UNESCO Collection of Representative Works.

Matsumoto Seichō: *Tokyo Express* — Ron D.K. Banerjee: *Poetry from Bengal* — Li Jianwu: *It's Only Spring and Thirteen Years* — Fernando Pessoa: *Message* (Marie Claire Vromans)

Informations bibliographiques et lexicographiques Bibliographical and Lexicographical Information

Christine Durieux: *Fondement didactique de la traduction technique* (John D. Gallagher) — P. Nagy & G. Tarján: *Elsevier's Dictionary of Microelectronics* (Carlita Mendes de Leon) — Rajmund Ohly: *Primary Technical Dictionary English-Swahili* (H.J.M. Mwansoko) — Mary Snell-Hornby: *Translation Studies: An Integrated Approach* (Ján Vilikovsky) — Aleksandr Svejcer: *Teorija perevoda. Status, problemy, aspekty* (Heidemaire Salevsky) — Julio Cesar Santoyo: *Versiones inglesas de clásicos españoles* (H. Van Hoof) — M. Ginguay: *Dictionnaire anglais-français d'informatique* (John Cairns).

TARGET. International Journal of Translation Studies. Editors: Gideon Toury (Tel Aviv University, Israel) and José Lambert (KU Leuven, Belgium) Vol. I. N° 1. 1989

Contents

Articles

ANNIE BRISSET: In Search of a Target Language: The Politics of Theatre Translation in Quebec.

CARL JAMES: Genre Analysis and the Translator.

WOLFGANG LORSCHER: Models of the Translation process: Claim and Reality.

DINDA L. GORLEE: Wittgenstein, Translation, and Semiotics.

L.G. KELLY: Plato, Bacon and the Puritan Apothecary: The case of Nicholas Culpeper.

Forum

MIRIAM SHLESINGER: Extending the Theory of Translation to Interpretation: Norms as a Case in Point.

Review Article

JOSE LAMBERT: Bibliographie: Traductions et Cultures.

Reviews

Paul Chavy. *Traducteurs d'autrefois. Moyen âge et Renaissance* (Theo Hermans); Mary Snell-Hornby (ed.) *ZüriLEX '86 Proceedings* (R.R.K. Hartmann)

TARGET. International Journal of Translation Studies. Editors: Gideon Toury (Tel Aviv University, Israel) and José Lambert (KU Leuven, Belgium) Vol. I. N° 2. 1989

Contents

Articles

WOLFRAM WILSS: Towards a Multi-facet Concept of Translation Behavior.

KITTY M. van LEUVEN-ZWART: Translation and Original: Similarities and Dissimilarities, I.

FRANCIS R. JONES: On Aboriginal Sufferance: A Process Model of Poetic Translating.

TIINA PUURTINEN: Assessing Acceptability in Translated Children's Books.

JOSE LAMBERT: La traduction, les langues et la communication de masse: Les ambiguïtés du discours international.

Review Article

GIDEON TOURY: verb Metaphors under Translation.

Reviews

James S. Holmes. *Translated!: Papers on Literary Translation and Translation Studies* (Hendrik van Gorp); Yishai Tobin and Edna Apehek. *Word Systems in Modern Hebrew: Implications and*

Applications (Hannah Amit-Kochavi); Paul Nekemann (ed.) *Actes du XIe Congrès mondial de la FIT: La Traduction, notre avenir* (Lieven D'hulst); Alan Duff. *Translation* (Francis R. Jones); *Revue de Littérature comparée*, numéro spécial: *Le Texte étranger. L'œuvre littéraire en traduction* (Clem Robyns)

TARGET. International Journal of Translation Studies. Editors: Gideon Toury (Tel Aviv University, Israel) and José Lambert (KU Leuven, Belgium) Vol. II. N° 1. 1990

Contents

Articles

GÖTZ WIENOLD: Typological Aspects of Translating Literary Japanese into German, I: Lexicon and Morfology.

CLEM ROBYNS: The Normative Model of Twentieth Century *Belles Infidèles*: detective Novels in French Translation.

SHOUYI FAN: A Statistical Method for Translation Quality Assessment.

KITTY M. VAN LEUVEN-ZWART: Translation and original: similarities and Dissimilarity, II.

FRANK G. KÖNIGS: 'Die Seefahrt an den Nagel hängen'? Metaphern beim Übersetzen und in der Übersetzungswissenschaft.

Forum

BRIAN HARRIS: Norms in Interpretation

Reviews

Albrecht Neubert. *Text and Translation* (Christina Schäffner); Erika Fischer-Lichte, Fritz Paul, Brigitte Schultze and Horst Turk, eds. *Soziale und theatralische Konventionen als problem der Dramenübersetzung* (Frank Peeters); Mary Snell-Hornby. *Translation Studies: An Integrated Approach* (Lieven D'hulst).

TARGET. International Journal of Translation Studies. Editors: Gideon Toury (Tel Aviv University, Israel) and José Lambert (KU Leuven, Belgium) Vol. II. Nº 2. 1990

Contents

Articles

ERNST-AUGUST GUTT: A Theoretical Account of Translation — Without a Translation Theory.

RACHEL WEISSBROD: Linguistic Interference in Literary Translations from English into hebrew of the 1960s and 1970s.

GÖTZ WIENOLD: Typological Aspects of Translating Literary Japanese into German, II: Syntax and Narrative Technique.

ELZBIETA TABAKOWSKA: Surely There Must Exist a Polish Equivalent: On the Inadequacy of Dictionary Explications.

HANS J. VERMEER: Texttheorie und Translatorisches Handeln.

Reviews

Harald Kittel, ed. *Die literarische Übersetzung: Stand und Perspektiven ihrer Erforschung* (Dirk De Geest); Reiner Arntz, ed. *Textlinguistik und Fachsprache: Akten des Internationalen Übersetzungswissenschaftlichen AILA-Symposiums Hildesheim, 13.-16. April 1987* (Wolfgang Lörcher); Valerie Worth. *Practising Translation in Renaissance France: The Example of Étienne Dolet* (Paul Chavy); Sherry Simon. *L'inscription sociale de la traduction au Québec* (Clem Robyns).

New Books at a Glance

Henry G. Schogt. *Linguistics, Literary Analysis, and Literary Translation* (Lieven D'hulst); Maarten Steenmeijer. *De Spaanse en Spaans-Amerikaanse literatuur in Nederland (1946-1985)* (Ilse Logie).

TRADUIRE. Revue Française de la Traduction. Information Linguistique et Culturelle. Société Française des Traducteurs. N° 144. Juillet 90.

Sommaire

In Memoriam Jean Darbelnet (1904-1988). *Jean-Maillot* .

La liberté en traduction. *Mauricette Gilant* .

La prononciation (de)figurée. *Jean-Maillot* .

Le chat et le pigeon voyageur. *Florence Herbulot* .

À propos de la NAATI. *David Lord* .

Ouvrages reçus. *Jean-Maillot* .

Revue des revues. *Jean-Maillot* .

Informations.

La vie de la SFT.

TRADUIRE. Revue Française de la Traduction. Information Linguistique et Culturelle. Société Française des Traducteurs. N° 145. Septembre 90.

Sommaire

La traduction, profession créatrice. *Florence Herbulot* .

Au pays de Saint-Jérôme. *Maurice Voituriez* .

À propos du Congrès de Belgrade 1990: Les ateliers. *Maurice Voituriez* .

The quality of translation in the U.S. . *Robert R. François* .

Terminologie économique et financière (français-allemand). *Jean-Michel Cicile (suite du N° 139)* .

Revue des revues. *Jean-Maillot* .

La vie de la SFT.

Bibliografia

BALLARD, Michel (Edit.); *La Traduction Plurielle*, Presses Universitaires de Lille, 1990.

Itzulpenak gure garaiotan lortu duen garrantzia azpimarratzen zuen Edmond Caryk, aldaketak etengabe gertatzen ari diren mundu batean duen nonnahikotasuna. George Mouninen tesia argitaratu zenetik, lan ugari sortu da alor berezi honetan. Iharduera proteiko hori dela-eta, egin litezkeen gogoeten aberastasuna gero eta ukaezinago bihurtzen ari da. Michel Ballardek zazpi adituren lanak eskaintzen dizkigu itzulpenaren alderdi ezberdinei buruz.

Jean-Louis CURTISek Shakespeare eta bere itzultzaile frantsesei buruz hitzegiten digu, Henriette LEVILLAINek Saint-John Perse bere obraren ingeles itzultzaile bezala aurkeztu digu, Danielle JACQUINek

poesiaren itzulpenaz zenbait gogoeta egiten dizkigu, Godeleine CARPENTIER nobelan eta poesian dialektoa ordezkatzearen funtzioaz mintzo zaigu, Françoise VRECK, dialektoak teatroan duen tokiaz eta bere itzulpen naz, Jean-Jacques POLLETEk itzulpen fantastikoa hartzen du gaitzat, Anne-Marie LOFFLER-LAURIANek itzulpen automatikoaren historia labur bat eskaintzen digu eta azkenik, Michel BALLARD berak adieraniztasuna eta itzulpenaz egiten dituen gogoeta batzuez ematen dio gailurra liburuari.

Fedorov sobietarraren tesien aurka, Edmond Caryk alderdi estralinguistikoa eta generoen askotarikotasuna kontutan hartuko duen itzulpen-teoria

bat egin beharraz mintzatu zen 1958an argitara eman zuen *Comment faut-il traduire?* bere obra sonatuan. Ballarden iritzian, hizkuntzalaritzak eta traduktologiak gerora hartu dituzten norabideek arrazoa eman diote neurri handi batean. Eta zera dio, Antoine Culioli bezalako batek hizkuntzaren heterogeneotasuna azpimarratzen duela eta hizkuntzalaritza mintzaira eta testugintza aztertzen dituzten zientziekiko artikulazioan jartzearen arazoa planteiatzen duela.

Parisko Eskolako traduktologoez, beren aldetik, itzultzaileen eta interpretariaren ezaguerara bagaia azpima-

rratzen dute zentzua landu eta birtransmititzeko orduan.

Traduktologiaren bilakaerak agerian jarri du, linguistikak eta testu-kritikak izan dutenarekin batera, «esateko» moduak daudela eta horiek egoera bati, solaskide batengan eraginari izan nahiari loturik daudela. Horregatik, traduktologiak bere baitan integratzen ditu komunikazio-teorien eta pragmatikaren datuak.

Abiapuntu eta ideia hauek gogoan dituela burutu du eskuetan daukagun liburua Ballardek zuzenduriko traduktologo taldeak.

GOUADEC, Daniel; *Le traducteur, la traduction et l'entreprise*, Afnor gestion, Paris, 1989.

Gero eta gehiago hitzegiten da herrialde industrialduetan «hizkuntz zerbitzuez», hots, itzultzailea, interpretaria, terminologoa, erredaktatzailea eta dokumentalista integratzen dituen eki-poaren zerbitzuez. D. Gouadec, itzultzaile, erredaktatzaile eta terminologoak Renneseo Unibertsitatean atzeritar hizkuntza aplikatuaren prestakuntza eta ikerketa unitatean irakasle denak tesi bat aurkeztu du itzulpen estrategiez eta itzultzaileen prestakuntzaz. Ottawako Unibertsitateko itzultzaile eta interpretari eskolan irakasle izana, pedagogi aholkulari-lanak egin ditu Ottawa-Hullen itzulpen bulegoaren prestakuntza zerbitzuan; bestalde, hizkuntz datuen automatizaziorako laborategi baten arduradun ere izaki, egoera ezinobean aurkitzen da liburu

honetan eskaintzen duen bezalako laburbilduma burutzeko.

Liburuak bost atal nagusi eta berorietan honako gaiak lantzen ditu:

I) Itzulpenaren ikuspegi orokorra: Itzulpena zer den, itzulpenaren izaera, ekintzan jartzen diren eragiketen ezberdintasuna, itzulpen-alorrak, itzulpenaren betekizun eta erronkak bezalako gaiak jorratzen ditu lehen kapituluak.

Bigarrenean, itzulpenaren unibertsuaren antolaketari lotzen zaio bete betean, itzultzaile isolatuak, taldekatuak edo itzulpen-zerbitzu edo bulegotan integratuak, hiru kategoria horiek aztertzeko.

Hirugarrenean, berriz, itzulpen-tipoen gaia jorratzen du.

II) Atal honetan **enplegatzailearen-tzako gidatxo bat** eskaintzen du, honako gaiak aztertzen dituelarik: Itzulpena eragitea, itzultzaile ona aurkitzea, baldintzak (ordainketa, atzerapena, kalitate-erizpideak) itzulpen-prozesuaren organigrama eta azpikontratazioa.

III) Atal hau erabat **itzultzaileari** buruzkoa da eta honako gaiak jorratzen ditu: Itzulpen-prozesuaren organigrama (itzultzailearen ikuspegitik), itzultzaile liberal edo norbere eskuko edo soldatapeko izateak edota itzulpen-bulego bat sortzeak dituen alde on eta txarren azterketa. Etorkizunari buruzko aurrikuspenak ere eskaintzen dira.

Amaitzeko, beste bi sail nagusi eskaintzen ditu liburuak, **Itzulpena testuinguruan** eta **ingurunea**: bietan aholku praktikoa ugari eta erreferentzia eta helbide baliagarri askoren berri ematen da, beti ere frantsesa eta Frantziaren inguruan eta azkenik, erakun-

de eta eskola sail baten helbideak eskaintzen dira.

Oso eskematikoa, batzutan ia telegrafikoa den liburu honek praktikotasuna eta argitasuna ditu ezaugarri nagusiak, alor berri samarra den honetaz laburbilduma baliagarri bat eskaintzearenaz gain. Teorizazio astun eta sistematikoen oso aldeko agertzen ez den azken traduktologia frantsesaren ildotik (Ladmiral, Berman) eguneroko praxian murgildurik zalan-tza eta galdera askori erantzuna aurkitu beharrean aurkitzen den itzultzailearentzat oso lagungarri gerta litekeen liburu baten aurrean gaude. Zenbaiti sofistikatu samarra gertatuko zaio bertan ageri den «hizkuntz zerbitzuen» mundua, batez ere euskararen ikuspegi soiletik begiraturata, baina uste baino hurbilago eta erreala goa den zerbait dela esan beharra dago. Gouadec-en liburuan ageri den mundu hori oharkabea n marnitzen ari zaigu inguruan eta horregatik, zerikasi handiko iturburu gerta le-kiguke.

MALLAFRE, Joaquim; *Llengua de tribu I llengua de polis: bases d'una traducció literaria*, Quaderns Crema, Assaig, 1991, Barcelona.

Joaquim Mallafrè (Reus, 1941) Barce-lonako Unibertsitatean Filologia Erro-manikoa ikasia da eta gaur egun Hi-zkuntzalaritza Kataluniar Aplikatua ematen du Tarragonako Filosofia eta Letretako Fakultatean. Aspalididanik ari izan da itzulpengintzan, batez ere ingelesetik eta Fielding eta Sterne be-zalako XVIII mendeko autoreak itzuli ditu eta XX mendekoan artean Osborne,

Pinter, Beckett eta Joyce dauzka kata-lunieratuak. Bere itzulpenen artean *Ulisses* da gaur eguneko kataluniar itzultzaile sonatuenen artean kokatu duena. 1988an itzulpenari buruzko tesi batekin lortu zuen doktorego-maila eta orain honako obra honetan eskaintzen digu bere ikerketaren muina.

Ikuspegi historiko bat, itzulpena orokorki harturik formulazio teoriko

bat eta baita espezializazio ezberdinei buruzko gogoetak ere ageri dira bertan, beti ere hizkuntzak dituen hainbat esamolderen oinarri antropologikoak ezagutzeak duen garrantzia azpimarratuz, izan ere itzultzaileak derrigorean ezagutu beharrekoak bait ditu literatur obraren interpretazio eta bertsio zuzenerako. Guzti hau adibide argigarri ugarirekin horniturik eskaintzen digu Joaquim Mallafrek.

Liburuak bi atal nagusi ditu: «ITZULLI» izenburu orokorraren azpian ikuspegi historikoa, datuak eta gogoetak, tipologia, itzulpen literarioa bezalako gaiak lantzen ditu. Bigarrenean «TRIBU-HIZKUNTZA ETA POLIS-HIZKUNTZA» izenburupean tribua eta polisa, gorputza eta ingurunea, behaketa eta epaiketa, misterioa eta araoa, bertso, ipuin, kanta eta abar bezalako gaiak jorratzen ditu. Polis-hizkuntzari dagokion kapituluaren gizar-antolamendu eta praktika, zientzia eta espezializazioa, erlijio positiboa eta literatura landua lantzen ditu. Azken kapituluaren, «Zubiak» izenekoan, eskola eta komunikabideak aztertzen ditu.

Ondorio gisa honako gogoeta eta baieztapenak eskaintzen ditu:

- * Komunikazio-ahalbideak itzulpen-ahalbidea eskaintzen du.
- * Ezaguera teorikoek eta intuizio sistematizagarriak metodo eta transmisio didaktikoa errazten dute.
- * Itzulpenaren historiak gatazkan dauden poloen hurbiltze eta sintesi bat aurkitzeko laguntza eskaintzen digu.

- * Jatorrizko obra berorren irakurlearentzat dena gertatzen da itzulpeneko obra berorren irakurlearentzat.

Itzultzaileak autorearen papera bere baitan hartzen du obra bat beste hizkuntzan errepikatzean.

- * Itzulpen osoari aplikatu zaion baliokidetzak-kontzeptuak hiru maila ditu. Nahiz eta autore, gaia, hizkuntza eta irakurleak eratzen duten multzo osoa kontutan hartzean hitzegiten den itzulpen baliokideaz, analisi xheago batean hizkuntzarako gorde dezakegu baliokide terminoa eta itzulpenaren hizkuntz segmentuetan bereizi egin behar ditugu literalitatearen baliokidetzak soila eta zentzuarekiko fidelitatearekin bateragarria dena. Beste elementuen «balio bera» datza autore eta gaia jatorrizko obrarenak berak izatean, eta irakurleak parekagarriak.
- * Kontutan izan behar da iharduera itzultzaile ezberdinak daudela, eta nahiz eta elkar-baztertzaileak ez izan metodologia ezberdinekoak direla; ahazko itzulpena: interpretazioa eta bikoizketa; itzulpen automatikoa; itzulpen idatzia, gai ezberdinen arabera: publizitarioa, kazetaritza, zientifiko eta tekniko, lege-administraziozkoa, erlijiosoa, literarioa.
- * Itzulpen literarioan kokaturik, baliagarritzat jotzen da didaktika (subsidiarioa) eta artistikoa (ordezpenezkoa) bereiztea.
- * Itzulpen literarioak, hizkuntzaren alderdi denotatiboez gainera, kon-

notatiboak ere bere baitan izan behar ditu.

- * Tribu eta polis kontzeptuek, hizkuntza askoren oinarrian daudenek, lagundu egiten dute literatur diskurtsuan dauden forma esanguratsuak eta elementu inplizituak sailkatzen.
- * Tribunal hizkuntz material landu ugari dago -estatikoa eta dinamikoa- honako gaiei buruz: gorpuzta eta ingurunea, hizkuntza, behaketa eta epaiketa, misterioa eta araoa, aisia narratiboa forma ezberdinetan.
- * Polisaren hizkuntzak bost sail nagusitan biltzen diren formulak eskaintzen ditu: antolamendua eta gizarte praktikak, zientzia eta espezializazioa, ideologia, erlijio

positiboa eta literatura landua.

- * Polisa zubiak behar ditu tribuarekin ukipenean jartzeko eta eskola eta komunikabideak dira. Lehen aldi batean eskolak tribuaren baliabideak erabiltzen ditu polisaren ezaguerak emateko eta gerora hizkuntza orokorra eta espezialduarekin, dokumentu, liburu, kazeta eta komunikabideekin polisean integratzea lortzen da.

Mallafrèren gogoetak, Douglas Robinson batenak bezala, itzulpenaren gogoeta eta praktikarako guztiz interesgarriak diren alderdi somatiko eta antropologiko-tribalak sakontzen eta harremanetan jartzen ditu eta lagungarri dira orain arte autore askorengan gehiegizkoa izan den karga mentalista eta razionalista gainditzeko eta orekatzen.

KOMISSAROV, V. N.; *Teorija Perevoda (Lingvističeskie aspekty)*, Moskva «Vyssaja skola» 1990.

Euskal itzultzaileen artean ezaguna den traduktologo sobietarraren azken liburua dugu eskuartean. Gure artean *Itzulpen teoriatzko ezagupenak* (1983) obrak eman zuen ezagutzera bere ize-na lehen aldiz, hain zuzen ere, *Slovo o perevode* (1973) bere lehen obra sonatuan garatzen zuen «baliokidetza-mailen teoria» zela-eta. Harez gero beste bi obra ere plazaratu ditu *Lingvistika perevoda* (1980) eta *Lingvističeskie osnovy naucno-techničeskogo perevoda* (1980).

Barkhudarov, Vannikov, Latyšev, Min'jard-Beloručev, Revzin, Recker,

Fedorov, Černov eta Švejcer eta abarrekin batera sobietar traduktologorik garrantzizkoenetako bat den Komissarov-ek, urte luzetan metatu duen esperientzia laburbildu eta eskaini nahi izan die era didaktiko eta praktikoa hizkuntza arrotzak eta itzulpengintza ikasten ari diren fakultateetako ikasleei.

Oinarritzko itzulpen-teoria linguitikoak ezagutzera ematen ditu hamar kapitulutan, sobietarren artean jadanik aipatu ditugun Barkhudarov, Recker eta Švejcer-ek egindako ekarpenak eskainiz eta baita beste traduk-

tologo atzerritar nagusienak ere. Horregatik, autorea zenbaitetan eskaintzen dituen ikuspegiekin ez datoz beti bat, zeren inoren iritzi eta interpretazioak ematera mugatzen bait da puntu jakinetan.

Liburua itzulpen-teoriaren objektua, arazoak eta metodoak azaltzetik hasten da.

Bigarren kapituluan, jatorrizko edukin funtzional-situazionala emateko orduan itzulpenak baliokidetza nola lortzen duen lantzen du, ondorengoan hizkuntz unitateen semantika ematekoan itzulpenak baliokidetza nola lortzen duen aipatzeko.

Laugarren kapituluan, itzulpen mota ezberdinen auzia ukitzen du, hurrengoan itzulpen zientifiko-teknikoaren eta kazetaritza-informaziozko materialaren itzulpenak dituen berezitasunak lantzeko.

Azken lau kapituluetan, hurrenez hurren, itzulpen korrespondentziak, itzulpen prozesua deskribatzeko prozedurak, itzulpenaren teknika, itzul-

penaren pragmatika eta itzulpenaren alderdi arauemaileak sakontzen ditu.

Bukaerako eranskinean, «Itzulpen-terminoen hiztegi laburra» dator 100 bat traduktologi kontzepturen definizio laburrez hornitua eta traduktologian gehien nabarmendu diren, eta hasieran aipatu ditugun autore sobietarren bibliografia funtsekoena, oinarritzko 15 obraren zehaztapenekin.

V. N. Komissarovek Atzerritar Hizkuntzen Fakultate eta Institutuetarako bereziki prestatu duen 250 orrialdeko liburu honek laburbilduma soil eta argia izatearen bertute nabaria du. Azkenik, esan behar da, traduktologo sobietar honengan usadioa denez, ingelese-tik errusierarako itzulpengintzatik hartzen dituela teoria argitzeko adibideak, beraz bi hizkuntza horien arteko konparaketa burutzen du sarri tartekaturiko pasarteetan. Beste behin, sobietarrek erakutsi dute, teoria berri eta abstraktotan katigatu gabe, sinkretismoaren bidetik zentzu didaktiko eta praktikoa gainezka duen ikasliburu bat ontzeko gai direla.

DOUGLAS ROBINSON, *The Translator's Turn*, The Johns Hopkins University Press, 1991, Baltimore.

Benjamin eta Derridari esker, itzulpena ateratzen ari da estudio humanistikoen bazterretatik. Itzulpen-teoria - San Augustinen garaietatik instrumentalismoaren eta perfekzionismoaren artean zalantzan ibili da - luza-roegi egon da alienaturik itzulpen-praktikaren giza testuinguruetatik. Bajtin eta Burke bezalako autoreen ekarpenetan oinarriturik, Robinsonek

itzulpen-nozio aberatsago bat garatzen du teori mailan eta sortzaileagoa dena pragmatikoki. Robinsonek uste du itzultzaileak intuizio edo sen pertsonalari jaramon handiagoa egin behar diola eta errurik gabe aritu behar duela.

Liburuak bi parte ditu: lehena «Gorputz dialogikoak» izenburupean datorrena, non itzulpenaren somatikaz eta dialogikaz hitzegiten duen.

Bigarren partean, «Aldaketa dialogoak» izenekoan, sei troporen ikuspegitik aztertzen du azterketa, hau da, metonimia, sinekdokea, metafora, ironia, hiperbolea eta metalepsiarenetik.

Laugarren eta azken kapitulua itzulpenaren etikaren inguruan ardatzen du.

Robinsonek berak egiten duen azken laburbilketaren arabera, liburu honako proposamen hauetara mugatzen da:

1. Itzultzaileak zuzentzat sentitzen dituen hitz eta esaldiak hautatzen ditu.
2. Hitz eta esaldi «egoki» horiek idazlea eta irakurlearekiko elkarrizketa konplexuan aurkitzen ditu.
3. Itzultzaileak era askotara korritzen du SHtik XHrako bidea.
4. Itzultzaileak zuzeneko eragina du XHko irakurleen baitan eta era askotara lortzen du XHko irakurlearen baitan eragin hori izatea.

Gauzak honela esanda, badirudi inork ez lukeela kontra egingo, baina Robinsonek usadiozko itzulpen-teoriaren kritika errotiko bat egiteko abiapuntutzat hartzen ditu orain arte aipaturiko ondorioak eta gero honako beste lau baieztapen hauek egiten ditu:

5. Testuen arteko baliokidetzaz ez da itzulpen ororen azken xedea. Baliokidetzaz interpretaziozko fikzio bat da itzultzaileari benetako itzulpen-xedera iristen laguntzen diena, XTa lantzen hain zuzen ere.
6. Zentzuz zentzuko baliokidetzaren alde ahalegintzea SHko testuaren interpretazio ideologikoki ilaun batean oinarritzen da eta bere frui-

tukortasuna erlatiboki interesik gabeak diren testu batzuekin bakarrik lortzen du: testu tekniko eta adituekin bakarrik. SHko testu gehienek aldaketa berritzaileagoak eskatzen dituzte.

7. XHko hitz eta esamoldeen aukera zuzentzen duten arauak ez dute garrantzi handirik itzulpen-praktikan eta testuekiko beren intuizio hobereenetatik itzultzaileak desbideratzen dituzten heinean, oso kaltegarritzat jo behar dira.
8. Inoiz ez liratake bultzatu behar itzultzaileak (edota itzultzaileak ez luke pentsatu behar) transferentzia inpersonal, neutralak egiteko tresna bat denik. Itzultzailearen esperientzia pertsonalak —emozioak, motibazioak, jarrerak, asoziazioak— XHko testua burutzean baimengarriak ez ezik, ezinbestekoak dira.

Liburuaren azken partean eskaintzen dituen formulazio taxonomikoak, bai tropoetan oinarrituak (metonimia, sinekdokea, metafora, ironia, hiperbolea, metalepsia) eta zazpi bertsioak (konbertsioa, rebertsioa, subertsioa, perbertsioa, abertsioa, dibertsioa eta konbertsazioa) erabat behinbehinekotzat jotzen ditu autoreak eta etorkizuneari gero eta tresna hermeneutiko finagoei lekua utzi beharko dieten iritzikoa da Robinson.

Labur esateko, ohar, bibliografia eta kontzeptu-aurkibide xehe batez hornituriko Douglas Robinsonen liburu guztiz iradokiorra gertatzen da eta gogoeta itzulpenaren alderdi berriak ikusi eta sakontzeko, bere garaian Steinerrren *After Babel* gertatu zen bezalaxe.

Xabier Mendiguren

BERRI ETA ALBISTE

Lino Akesolo

Otsailaren 16an izan ginen azkenengoz elkarrekin. EIZIEk ohorezko bazkide izendatu zintuzten eta horretarako ekitaldi berezia zegoen antolatuta.

Bi lagun arduratu ginen Donostiarako eramane-ekarria egiteaz. Norberekeria izango zen nahi baduzu, baina ez genuen aukera hura alferrik galdu gura eta horregatik egin genizun hainbeste itaun itzulpengintzaz, hiztegegintzaz eta abarrez.

Diccionario de Autoridades, Gurutzeko Jon Deunaren lanen itzulpena, itzulpen arloko arazoak eta beste izan genituen mintzagai, gu entzule gintuzula beste ezer baino, hizmiztia ez zinen arren. Bazkalostean ikaraldia ere izan genuen zorabio hura zela-eta, gogoratzen?, baina, tira, horretan geratu zen dena, zorionez.

Itzulera isil xamar etorri ginen denok, nekea nabaritzen zitzaizun eta hurrengo batean bisitatxo bat egingo genizula agindu ondoren agurtu genuen elkar.

Gerora, hau dela eta bestea dela, honegatik eta hargatik, behin eta berriz atzeratu, eta azkenean bisitarik gabe gelditu ginen. Gerotik gerora ibiltzeak dakartzan kalteak nozitzea egokitu zaigu guri ere; berandu eritzita bazeunde bezala, isil-isilik (ohi bezala) joan zara gureartetik, zeure jakituriaren zati bat, handiena beharbada, zeurekin eramanez. Badugu, bai, norberekeria izango da nahi baduzu, emandako hitza jan behar izanaren pena eta damurik.

Manu Ormazabal

Jose Inazio Berasategi

Berarekin jardun genuenok gogoan izango dugu beti Joxe Inazio.

Behargin saiatua, lana atera egiten zuen hark eta, hutsak huts, ondo gainera. Ekinekoa, geldi egoteko txarra eta ezer egin gabe egoteko askoz okerragoa.

Umoreduna, nahiz eta txiste kontari txarra izan. Bizia, argia, «axeri» ere deitzen genion; idiazabaldarra izan. Norabaita joan behar genuenean ia beti izango zuen azken zertxoren bat egiteko eta «banijok» esango zigun urduri.

Maite zuen gure zorioneko Euskal Herria eta euskararen alde isilean, fin asko, lan handia egiten ari zen. Eginkizun horretan badirudi gustoko edo ezinbesteko dugula norberak berea egitea. Elkarrekin ados ez geundenean begietara begira azaltzen zituen bere arrazoiak eta azkenean irribarrez geratzen zen. Kontrako jarrerak bateratzeko ahaleginak egiten zituen eta batzutan lortzen ere bazekiena genuen.

Eta oso lagun ona, lagun zintzoa genuen.

Halabeharrak astindu ederra egin zigun!

Kaxildo Alkorta

Jose Inazio Berasategi Oroitzaz eta doluz

Jose Inazio Berasategi Lardizabal lankidea joan zaigu ustekabean aurtan, 1991ko uztailaren 9an, Olaztin jasandako auto-istripu latz batean.

Idiazabalen jaioa zen Jose Inazio, 1950eko otsailaren 19an, eta Seminario-ikasketetan zenbait urte eman ondoren, utzi eta Iparraldera pasatu zen. Hurrengo urteetako gora-beherez gutxi azal dezaket nik, ez bait zen Jose Inazio epealdi hartaz azalpen asko eman zalea. Bada, haatik, haietaz eta haietakoez argibide ugariagorik eskain diezagukeenik.

Iparraldea utzi eta Parisera joan zen, han lortu zuelarik Filosofian Lizentzia, Pariseko Unibertsitate Katolikoan 1980an, eta baita Paris-VIII Unibertsitatean Geografian Lizentzia eta Lurralde-Antolaketa (*Amenagement Regional*) Diploma ere, 1981ean. Parisen ezkondu zen, bestalde, Mari Karmen Arostegirekin.

Euskal Herrira itzuli eta Zaldibiako udalean hasi zen itzultzaile-lanean, 1982ko irailetik 1983ko abuzturarte, eta, hautaprobetara aurkeztu eta gaingitu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Euskalduntze-sailean sartu zen 1983ko irailaren 1ean.

Euskalduntze-zerbitzuko lankide izan genuen 1986ko uztailean eta Itzultzaile-Eskolako koordinatzaile eta arduradun ondoren, 1990eko abuztuaren 4ean Euskalduntze-zerbitzuko buru izatera iritsi zelarik, galdu zitzaigun arte. Urte horietan zehar egin zituen lanak eta garatu zituen egitekoak ezin dira aipamen laburrotan bildu. Esan dezadan, halabaina, itzulpen-lan, euskarazko eskolen antolaketa eta

ikastaroez gain, udal-itzultzaileen koordinazio eta bateratzeari eman ziola ahaleginik handiena lehenengo urteetan.

Jose Inazio Berasategi bera izan zen Administrazio eta Lege-arloko Itzultzaile-Eskolaren (ALAIE) sortzaile eta bultzatzaile, eskolaren antolaketa gauzatu, irakaslegoa bildu, jarraipenaz arduratu eta are ikasgai batzuk eman ere egin zituelarik. Berak bultzatu zuen, baita, Gasteizko Filologia-Fakultateak ezarri duen Itzulpen-Masterra eta, azkenik, aipatu dezadan SENEZ aldizkari honen sorreran izan zuen partaidetza.

1988az geroztik, Euskararen Aholku-Batzordeko kide izan zen Jose Inazio, eta 1990-91 epealdi horretan Batzordeko idazkari. Euskararen Aholku-Batzordearen baitan Demolinguistikaz ziharduen batzorde-atalean eman zituen ahaleginik handienak, 1989an argitaratu zen «Soziolinguistikazko Mapa» landu eta prestatu zuen taldeko partaide lehiatsu izanik.

Euskalduntze-zerbitzuburu bezala, parte zuzen-zuzena hartu zuen hizkuntza-eskakizunen hariko administrazioko normalkuntza-planaren sorreran eta, bereziki, plan hori gauzatu eta martxan jartzen.

Dena den, ezagutu genuenontzat ez du eman berri dudana zerrenda laburregi honek agortzen Jose Inazioren bizitzaren ibilbide joria eta gizatasun aberatsa, aipatutako lanetatik zenbait azken urteotako euskalgintzarako eta euskararen aurrerapenerako garrantzi berebizikoak izango badira ere.

Beraxarekin lan egiteko aukera izan dugun guztiok ditugu gogoan, eta luzaroan izango, bere ezagupen zabal bezain apala, bapatean erakutsiko bait zizun halako batean inoiz somatu gabeko gairen bati buruz zenbat zekien; bere eszeptikotasun samurra, ez bait zen eszeptiko erdeinu eta ajolagabez, luzidotasunez, begi-zorrotzez, buru argiz eta are ongi-nahiez ere; edozein dogmakeriaz eta estukeriaz zein zegoen urrun eta, azkenik eta guztien buruan, zein zen lankide zintzo eta sailua, alai eta irrifartsua.

Hauxe da gure oroitzeta eta gure dolua. Bakean gerta dadila.

Eneko Oregi Goñi

PREMIO NACIONAL DE TRADUCCION 1991

1984 urtetik hasita etengabe egin denez, aurten ere Kulturako Ministraritzako Espainiar Letren Sailak Sari Nazionalak banatu ditu, Narratiba, Saiakera, Espainiar Historia eta Itzulpena alorretan.

Azken eremu honi gagozkiolarik, finalisten artean honako obra hauek geratu ziren: latinetik itzultitako Dezimo Magno Ausonioren *Obrak* (Antonio Alvar Ezquerria) eta Horazioren *Odak* eta *Epodoak* (Manuel Fernández Galiano); hizkuntza erromanikoetatik itzultitakoen artean Marguerite Yourcenar-en *¿Qué? La Eternidad* (Emma Calatayud), Abbé Prevost-en *Manon Lescaut* (Anton Narbaiza) eta José Saramagoren *Historia del Cerco de Lisboa* (Basilio Losada); hizkuntza germaniarretatik itzultitakoen artean Lichtenbergen *Aforismos* (Juan del Solar) eta Jane Austenen *Mansfield Park* (Maria Dolors Ventós) katalunierara itzulia; beste hizkuntza batzuen sailean albanieratik itzuliriko Ismail Kadareren *El Viaje Nupcial* eta txekieratik itzuliriko Václav Havelen *Cartas a Olga* (Mónika Zgustová).

Ekainaren 7an epaimahaikoek egin zuten bigarren bileran *Historia del Cerco de Lisboa* obraren itzulpenagatik **Basilio Losadari** eta Dezimo Magno Ausonioren *Obrak* lehenbizikoz gaztelaniara osorik itzultzeagatik **Antonio Alvar Ezquerrari** erdibana ematea erabaki zuten.

Itzulpen obra osoarengatik saria, berriz, Miguel Sáenz Sagaseta de Ilúrdozi eman zitzaion. Bederatzi hautagairen artean zegoen itzultzaile saritu hau Espezialisten Batzordeak, APETik eta ACEk proposatua zen eta 1989an sari bera lortu zuen Juan Ramón Masoliver Ródenas eta 1990ean irabazi zuen José María Valverderena bezalako izenez osaturik dagoen zerrenda luzatzera dator.

Miguel Sáenz, itzultzaile saritua, Larachen (Marokkon) jaioa da 1932an, Zuzenbidean eta Alemaniar Filologian Lizentziatua Madrileko Konplutoar Unibertsitatean. Nazio Batuen itzultzaile izan da New York eta Vienan, 1965etik 1970era bitartean. Harez gero itzultzaile libre izan da nazioarteko organismoetan eta literatur itzulpen ugari burutu du. Madrileko Hizkuntza Moderno eta Itzultzaileen Unibertsitate-Institutuan «Itzulpen Teoriaren» irakasle izan da (1985/86). Gaur egun Auzitegi Gorenaren Bosgarren Aretoko Fiskala da.

Berrogeitamar obra baino gehiago itzuliak ditu alemanieratik eta ingelesetik eta autoreen artean Thomas Bernhard, C.A. Burger, Joseph Conrad, Robert Coover, Alfred Döblin, Günther Grass, Peter Handke, Eduard, Mörike, W.A. Mozart, Henry Roth, Salman Rushdie, Arthur Schnitzler, Christa Wolf, Bertolt Brecht, Roald Dahl, Michael Ende, Kate Greenaway, Robert Kennedy eta abar bezalako ospe handiko idazleak daude.

Narratiba, saiakera, poesia eta literatur artikulua egunkari eta aldizkari ugaritan argitara eman izan ditu (El País, ABC, Diario 16, El Sol, Papeles de Son Armadans, Camp de l'Arpa, Revista de Occidente, Libros, estafeta Literaria, El Europeo, Quimera, El Urogallo...)

Orain arte beste zenbait sari ere irabazi ditu kalitatezko bere itzulpenengatik, hala nola: «Fray Luis de León» saria 1981ean Günther Grassen **El rodaballo**-ren itzulpenarengatik.

1983an Haurrentzako Obren Itzulpenarengatiko Sari Nazioala irabazi zuen Michael Enderen **La Historia Interminable**-rekin; eta 1986an International Board for Young People (IBBY) delakoaren Ohorezko Zerrendan agertu zen obra beraren itzulpenarengatik.

Bestalde, New Yorkeko Idazle eta Poeta Iberoamerikarren Zirkulu-Saria (1968); Ciudad de Olot (1972), Ciudad de Murcia (1973), Ciudad de Palma (1973); Almeriako «Café Colón» (1974); Ciudad de Alcalá de Henares (1980) eta Irun Hiria (1983) sariak ere baditu.

Xabier Mendiguren

EXPOLINGUA'91

Aurtengo Madrilgo Expolingua, apirilaren 11tik 14ra bitartean ospatu da, «IV Congreso Muestra Internacional Expolingua» zuelarik izen osoa. Ohi bezala, eta aurreko urteetan bezalaxe, Borbondar Infanta Ohorezko Lehendakaritzan, eta Ministro sail handia Ohorezko Batzordekide gisa dituen gertakari horrek, bi osagai izan ditu: erakusketa eta hitzaldiak.

1. Erakusketa

Chamartingo geltokiak horrelako eginkizunetarako dituen pabilioietan kokaturik zegoen eta elkarren gainean muntatutako stand txiki eta xumeez osaturik. Hizkuntzari dagokion guztia, oro har, bertan sar bazitekeen ere, aurtengoan bazirudien hizkuntzaren didaktika zela gai bakarra. Izan ere, hizkuntzen irakas-zentruen ugalketa neurrigabea zen mabarmen. Eta irakaskuntza horren atalik emankorrena -enpresa antolatzaileentzat emankorrena- hizkuntz egonaldien eskaintza, denetan nabarmenena. Mediterraneo aldeko estatuek eguzkia eskaintzen duten bezalaxe, herrialde ingelesdunek (Erresuma Batua, Estatu Batuak, Eire...) beren hizkuntza dutela salgai argi asko agertzen zen bertan. Esan bezala, 15-20 urteko neska-mutikoentzako hizkuntz egonaldiek osatzen zuten erakusketaren ehuneko mardula.

Hizkuntzarekin zerikusia duten gobernu zentralako nahiz autonomi elkarteetako standek osatzen zuten beste multzoa. Pozkarioz ikusi ahal izan genituen stand berean Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuako hizkuntz zerbitzuen erakusketak.

Itzultzailearen ikuspuntutik laguntzazko informaziorik edo tresna berririk nekez aurki zitekeen. Izatekotan, EEEko terminologi eta itzulpen zerbitzuei buruzkoa. Joan den urtean ezagutu ahal izan genituen itzulpen automatikoari buruzko aurrerapen informatikoez eta abar, deus ere ez.

Ezer gutxi erakusten zen hizkuntzen inguruko beste mila alderdi eta gaiez. Egon ere, ez zegoen inolako standik hizkuntzalaritzari buruzko argitaletxeenik, edota liburu berriak erakusten zituenik.

2. Hitzaldiak

Itzultzaile euskaldunaren ikuspuntutik, bi hitzaldi sail ziren interesgarri: bat bete-betean, «Interpretaritzza, itzulpena eta hizkuntza» izenekoa, eta bestea «Hizkuntz politikak eta ekintzak». Bigarrenean egoterik izan ez genuenez, lehenengoaren berri laburra ematera mugatuko gara.

Hitzaldi sailaren izenburuak aditzera ematen duenez, nahaste-borraste xamarra izan zen. Interpretaritzari buruzko guztiz interesgarri izan zen hitzaldi baten ondoan, hizkera militarari buruzkoak omen ziren esaldi deslotu eta funtsgabeak jasan behar izan genituen. Interesgarrienak aipatzekotan, Miguel Sáenzek literatur itzulpengintzari buruz eta Paloma Hoffman-Veviak EEEko terminologia zerbitzuari buruz emandakoak gogoratuko nituzke. Eta beste alor batetan, Joaquín Navarro Estevan magistratuak justizi administrazioko itzulpen eta interpretaritzaz eskeinitako informazio aberatsa. Hortik kanpo, ezer gutxi salbatuko nuke, hainbat gai erudito, eta itxuraz bederen betegarri, besterik ez ziren askoren artean.

3. Beste iruzkinak

Eta antolaketari buruz, Dionisio Amundarainek, joan den urteko Expolinguari buruz orri hauetantxe idazten zuenaren hari berberetik, gure harridura, oraindik ere, bat-bateko interpretaritzza sistemarik eskaintzen ez delako, eta hartaz, bi hizkuntzetan soilik, frantsesez eta espainolez, izan zirelako agerpen guztiak. «Internacional» omen zen. Antolaketaren beste alderdiak ere, eskaxak, informazio gutxi, eta komunikazioen laburpen edo eskema bat ere ez.

Euskal itzultzaile gutxi bildu ginen aurtengoan. Hurrengoan mokadu gozoren bat eskaini beharko dute bertara gaitezen.

Antton Elozegi

Itzulpena eta interpretaritza: Komunikaziorako eta normalizaziorako tresna

Iazko abuztuko azkeneko egunetan albiste honek duen izenburu berbera zuen ikastaroa izan zen Donostiako Miramar jauregian, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen dituen Udako Ikastaroen barruan, Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak antolatuta. Ikastaro horrekin batera Itzultzaileen Nazioarteko Federazioaren eginkizunak betetzeko, Federazio horretako Hizkuntza Txikietako Itzultzaileen Batzordea bildu zen, Federazioaren hurrengo Mundu Batzarra bitartean (Plymouth, 1993) egitekoak zehaztu eta horretarako bideak jartzeko.

Ikastaroa

Ikastaroa osatzen duten ponentziak batzen dituen ardatza, ikastaroaren izenburuak berak aditzera ematen duen bezala, itzulpenak eta interpretaritzak hizkuntzen normalizazio prozesuan eta hedadura txikiko hizkuntzak dituzten herrialdeen harteko harremanetan duten eta izan duten eragina aztertzea zen. Gauza frogatua baitirudi historian zehar hainbat hizkuntzen normalizazio prozesuan itzulpenak berebiziko eragina izan duela, hasieran batez ere. Euskararen beraren kasua ere ez da, puntu honi dagokionez, inolako salbuespena; eta adibideak lerroak adina multiplika daitezke. Itzulpenak Hedadura

txikiko hizkuntzetan duen eragina —orohar, eta alde guztietatik— aztertu nahi bada, badirudi beraz, gertaera hori aztertzeko oinarritzko ikuspegietako bat hauxe da hain zuzen: itzultzaileek hizkuntzaren normalizazio prozesuan duten lehen mailako protagonismoa.

Orobat, hedadura txikiko hizkuntzetan itzultzaileek duten estatusa eta onarpena ere, hizkuntza horien normalizazio prozesuan duten protagonismoari legokiokkeen, aztertu nahi izan zen ikastaroetan.

Gure artean maila honetan egiten den topaketa honetan, ez zegoen —nola bada?— gaiak agortzeko asmorik, gai horietarako lehen hurbiltzea egitea baizik.

Ikastaroaren zuzendaria Josu Zabaleta izan zen (EIZIEko idazkari orokorra eta Hedadura Txikiko Hizkuntzetako Itzultzaileen Batzordeko lehendakaria, Itzultzaileen Nazioarteko Federazioan.

Ikastaroaren gaiak era honetara banatu ziren.

1. Itzulpena, kultur iturburu. Irakaslea: Edwald Osers (Erresuma Batukoa, literatura itzultzailea, hedadura txikiko hainbat hizkuntzatatik ingeleserara).

2. Itzulpen premien eta traduktologiaren garapena. Amparo Hurtado (Traduktologian doktorea, Bartzelonako E.U.T.I.ko irakaslea, PRIS III unibertsitateko irakasle ohia).

3. Zientzi itzulpena hizkuntza txikietan normalizazioari begira. Seosamh o Murchu (Irlandako itzultzailea).

4. Itzulpen irakaskuntza Europako hizkuntzetan. Eva Koberski (Itzultzailea, hizkuntzaz hungariarra, jaiotzez jugoslaviarra. Mons-eko Itzultzaile Eskolan (Belgika) irakaslea).

5. Obra itzulien eragina literaturetan. Radivoie Constantinovic (Literatur itzultzailea, Belgradoko unibertsitatean Frantses Literatura irakaslea).

6. Hizkuntz minoritarioetatik hedatueterako literatura itzulpena. Eva Thot (Olerkari hungariarra, literatur itzultzailea. Hungarierazko literaturaren hainbat antologiaren eragilea beste hizkuntza batzuetan).

7. Itzulpena eta eleaniztasuna Europan. Maurice Voituriez. (Itzultzaile frantsesa. Itzultzaileen Nazioarteko Federazioaren ordezkaria UNESCOren aurrean).

8. Itzultzaileak Europako hizkuntza txikietan: status profesionala. Zlata Kufnerová (Txekoslovakiako itzultzailea. Hizkuntza txikietako itzultzaileen batzordeko lehendakari ohia eta lehendakariordea).

9. Etnozentrismoa eta exozentrismoa normalizazio bidean dauden hizkuntzetako itzulpenean. Joan Garcia Garmendia (Euskal itzultzailea. Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen duen Itzulpen Masterrean irakaslea).

10. Itzultzaileen zeregina hizkuntza txiki eta ertainetan. (Mahaingurua). Valentín Arias (Galiziako Itzultzaileen elkarte), Josu Zabaleta (EIZIE). Mahaiburu: Lurdes Auzmendi (EIZIE).

Ikastaroan izan ziren parte hartzaileen aldetik, Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen antolatzaileek esan zutenek, ikastaro honek izan zuen Donostian antolatu ziren ikastaro guztietan ikaslego zabalena, 115 ikaslek hartu bait zuen parte bertan.

Hedadura txikiko hizkuntzetako itzultzaileen batzordearen bilera

Goian aipatutako ikastaroak irauten zuen bitartean Hedadura txikiko hizkuntzetako itzultzaileen batzordeak zenbait bilera egin zituen arratsaldeetan—Udako ikastaroak goizez baitziren—. Bilera horietan Itzultzaileen Nazioarteko Federazioaren hurrengo mundu biltzarrera bitartean batzorde honek burutu beharreko lana finkatu eta antolatzen ahalegindu zen batzordea. Labur-laburrean adierazteko, hedadura txikiko hizkuntzetako itzultzaileen artean informazio sare bat antolatu, elkarrekiko laguntzak bilatu, eta hizkuntza horietan itzultzaileek duten estatuta eta eginkizuna aztertzu eta sistematizatu ahal izateko inkesta zabal bat egitea erabaki zen.

Nolanahi ere, Senez honen hurrengo zenbakian osorik jasoki dira aipatu uda ikastaroan emandako hitzaldiak, eta zehazki eta luze adieraziko dira hedadura txikiko hizkuntzetako itzultzaileen

batzordearen bileretan hitzegindakoak. Gai horiei buruzko ale monografikoa izango da beraz.

Klaudio Otaegi

Zegamako herriak omenaldi bikaina eskaini zion apirilaren 14ean herriko seme zen Klaudio Otaegi Gainzerain jaunari (1836 - 1890).

Olerkari zenez ospetsuago bada ere, badu beste alderdi bat, gogoz jorratu zuena, eta guri zuzenean doakiguna: itzultze lana.

Zegamako omenaldi horretan "Klaudio Otaegi Olerkaria" liburua aurkeztu zuten bi prestatzaileek, Patri Urkizu eta Xabier Azurmendik.

Bi alderdi hauek nabari erazi zituen Xabierrek Otaegirengan: olerki mundua, olerki ugaria eta ederra duela adieraziz; eta Bonaparteren laguntzailerik bikainena izatea dialektologi sailean. Bigarren alderdi honetaz ari zela, honela zioen Xabier Azurmendik: Bere itzulpenak, tamalez, artxiboetan gordetik daude argitaratu gabe.

Patri Urkizuk ere aipatu zituen olerkari honen itzultze lanak. Hala zioen: euskaraz itzulpen asko egin zuen. Autore espainolak itzultzen ditu batez ere, Fray Luis de León, Calderón de la Barca, Selgas, etab., baita Frédéric Mistral ere itzultzen du bertsoetan. Patriren hitzetan, itzultzaile aparta dugu Klaudio Otaegi, eta lan handiak egina arlo honetan.

Aipatu liburuaren aitzin-solasean bada beste zenbait jakingarri ere Klaudioren itzultze lanari buruz, baina aipamenak baino jakingarriago ere bada oraindik liburuan, izan ere olerkari honek eginiko poema

itzuli asko jasotzen baitira bertan: Fray Luis de León, Calderón de la Barca, Campoamor, Frédéric Mistral, Navarro Villoslada, José Roure, etabarrenak.

Hona hemen pare bat poema zatitxo Klaudio Otaegiren itzultze lanaren adierazgarri. Denontzat hain ezagunak diren Fray Luis de Leónen bi poema famaturen hasierako bertsoak dira, ez dago esan beharrik zein zeinetakoak.

Ta uzten dezu, Artzai Santua,
Bakardade ta lantuz,
Ibar ondokai ta ilun onetan
Zure jendea emen beraz,
Ta zu, autsirik aize garbia,
Betiko bizira zoaz?

Zer bizitz ona eta atsedena
Nai duenarentzat pakea,
Mundu nasia lajatu eta
Biotzez jarraitutzea,
Izandu diran jakintsu piskak
Igaro duten bidea!

Iñaki Zubizarreta

HARPIDETZA TXARTELA

SENEZ aldizkariaren harpidedun egin nahi dut:

Izena

Helbidea

Herria Posta Kodea

Telefonia

Urteko ordainketa (1.300 pta.),

nire Banku edo Aurrezki Kutxako kontuaren bidez egingo dut

Faktura bidez egingoi dut:

Banku edo Aurrezki Kutxa

Kontuaren zenbakia

Sukurtsala

Kontuaren jabea

Entitate horretako nire kontuan zorpetu itzazue nire izenean
doazkizuen erreziiboak.

Sinadura

1

Gaiak

Ale honetan / Duvoisin eta atzizkibidea / Alemaniarren itzulpen tradizioa / Joxe Austin Arrietarekin solasean / Txekieratik euskaratzeak sortzen dituen hainbat buruhauste / Euskal administrazio izkribu zahar batzuk / FITek munduko kultura ministroei deia / Iuvan Xestaloven gutuna / Oker ez banago / "Caleco biarguiñac..." edo eguneroko kontuak euskaraz eman ezina gezurtatzen duen testua / Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea / Bibliografia / Linc Akesolo / Jose Inazio Berasategi / Jose Inazio Berasategi. Oroitzaz eta Doluz / Premio Nacional de Traducción 1991 / Expolingua'91 / Itzulpena eta interpretaritza: Komunikaziorako eta normalizaziorako tresna / Klaudio Otaegi